# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IV. Legegintzaldia | Iruñean, 1998ko otsailaren 20a | 14 ZK.

**A U R K I B I D E A**

G SAILA:

**Jakinarazpenak, Deialdiak eta Oharrak:**

—Nafarroako 1996ko Kontu Orokorren fiskalizazio txostena, Kontuen Ganbarak egina (2. or.).

G Saila:
**JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK**

# Nafarroako 1996ko Kontu Orokorren fiskalizazio txostena, Kontuen Ganbarak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko urtarrilaren 27an eginiko bilkuran, Nafarroako 1996ko Kontu Orokorren fiskalizazio txostena, Kontuen Ganbarak egina, argitaratzea erabaki zuen.

Iruñean, 1998ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

## Nafarroako 1996ko Kontu Orokorren fiskalizazio txostena, Kontuen Ganbarak egina

AURKIBIDEA

**I.** Helburua (3. or.).

**II.** Norainokoa eta mugak (3. or.).

II.1. Norainokoa (3. or.).

II.2. Mugak (5. or.).

**III.** Iritzia, iruzkinak, ondorioak eta gomendio orokorrak (5. or.).

III.1. Iritzia (5. or.).

III.2. Bestelako iruzkinak, ondorioak eta gomendio orokorrak (8. or.).

**IV.** Finantza egoerak (12. or.).

IV.1. Egoera-balantzea, 1996ko abenduaren 31n (12. or.).

IV.2. Ondare-emaitza eta emaitza ekonomikoaren kontua, 1996ko ekitaldia (13. or.).

IV.3. Gastu-aurrekontuaren betetzea (14. or.).

**Gehigarriak.**

1. Foru Ogasunaren ekonomi eta finantza egoera 1996ko abenduaren 31n (15. or.).

1.1. 1996ko aurrekontuaren betetzearen azterketa (15. or.).

1.2. Foru Ogasunaren finantza egoeraren azterketa (17. or.).

1.3. Aurrekontu agertokia (18. or.).

**2.** Balantzearen azterketa eta azterlaritza. (19. or)

2.1. Aktiboa (20. or.).

2.2. Pasibo eta fondo berekiak (28. or.).

2.3. Ekonomi eta ondora emaitzako kontua (34. or.).

**3.** 1996ko Aurrekontuko betetze-mailaren azterketa eta zentsura (35. or.).

3.1. Aurrekontuaren betetze-maila (36. or.).

3.2. Estatuarekiko hitzarmen ekonomikoaren programa eta Gobernuaren ordainketa-sistema. (53. or.).

3.3. Azterketa operatiboa: efikaziaren, efizientziaren eta ekonomiaren ebaluazioa (62. or.).

**4.** Kontratazio publikoaren azterketa berezia (71. or.).

**5.** Erakunde autonomoak (75. or.).

**6.** Zuzenbide publikoko enteak (77. or.).

**7.** Zerga-gastuen aurrekontuak (79. or.)

**8.** Enpresa publikoen sektorea (81. or)

**Eranskinak.**

1. eranskina. Aurrekontu-aldaketak (90. or.).

2. eranskina. Aurrekontuaren betetzea (92. or.).

3. eranskina. Gastuen sailkapen funtzionala (95. or.).

4. eranskina. Erakunde autonomoen aurrekontu betetzea (95. or.).

5. eranskina. Ente publikoen finantza egoera orriak (98. or.).

6. eranskina. 1996ko gastu eta sarrera aurrekontuaren betetzea (100. or.).

**I. HELBURUA.**

Indarreko legediarekin bat etorriz, eta Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 1997ko irailaren 10ean hartutako erabakia betez, Kontuen Ganbara honek honako txosten hau egin du, ondoren esaten diren gauzei buruzko iritzia emateko:

• 1996ko Nafarroako Aurrekontu Orokorren betetze-mailaren egoera-orriak modu egokian islatzen duen aldi horretan burutu den jarduera.

• Foru Ogasunaren ondasun-egoeraren arrazoizkotasuna 1996ko abenduaren 31n, aplikatzen zaizkion eta aurreko ekitaldikoen antzekoak diren kontabilitate-hatsapenen arabera.

• Foru Komunitateko Administrazioaren eta honen erakunde autonomoen ekonomi eta finantza jarduera legezkotasunaren hatsapenaren menpe ote dagoen.

• Nafarroako Kontu Orokorren aurreko fiskalizazio txostenetan Kontuen Ganbarak emandako gomendioen betetze maila.

• Foru Ogasunaren 1996ko abenduaren 31ko finantza-egoera.

Iritzi hau Nafarroako Gobernuak egindako hainbat jarduera edo eginkizuni atxikitako baliabide publikoen kudeaketan lortu den eraginkortasun eta ekonomia mailari buruzko ondorioak osatuko du, txostenaren muinean azaldutako mugak ere kontuan harturik.

**II. NORAINOKOA ETA MUGAK.**

II.1. NORAINOKOA.

1 zk.ko laukian Foru Komunitateko Administrazio Orokorraren osaketa deskribatzen da, honako hau, hain zuzen ere:

• Administrazio Publikoaren arloa, hurrengo entitate hauek osaturik:

a) Nafarroako Gobernuko Departamentuak, 10 guztira.

b) Administrazio izaerako erakunde autonomoak ( aurrerantzean, EAk) :

1. Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutua (NAPI)
2. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua (O-NOZ)
3. Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua (NGOI)
4. Nafarroako Lan Osasunaren Institutua (NLOI)
5. Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutua (NKGI)
6. Nafarroako Mahastilan eta Enologi Zentroa (NMEZ)

7 Nafarroako Emakumearen Institutua (NEI).

• Zuzenbide publikoko enteak (aurrerakoan, ente publikoak), honako hauek, hain zuzen ere:

a) Nafarroako Unibertsitate Publikoa (NUP)

b) Nafarroako Su-Itzaltze eta Salbamendurako Partzuergoa (aurrerantzean, Partzuergoa)

c) Nafarroako Industri eta Merkataritza Ganbara (aurrerantzean, Merkataritza Ganbara).

• Enpresa publikoen arloa, Nafarroako Gobernua kapitalaren ehuneko 50aren edo gehiagoren jabea den enpresa publikoek osatua. 1996an arlo hau 24 enpresa publikok osatzen dute, eta aurreko ekitaldiarekin konparatuz berrikuntzak honako hauek dira:

– Sozietate publikotzat sartzen da “Navarra de Medio Ambiente Industrial, S.A.”, Nafarroako Gobernuak zuzenki ehuneko 100 partaidetua.

Enpresa publikoaren arlotik kanpo gelditzen dira Sigesa, S.A. eta Etudesa, deuseztu eta likidatu ondoren.

Gotebe, S.L. saldu egin da.

Selgana, S.A.k, ITG Porcino eta ITG Vacuno bereganatuak zituena, izena aldatu du: ITG Ganadera, S.A. izanen da.

Alabaina, komeni da esatea Ogasun Publikoari buruzko Foru Legeak ezartzen duela ezen, bere ondorioetarako, kapital sozialaren gehiengo erabatekoa, zuzen edo zeharkako partaidetzaren bidez, Administrazioarena denean, merkataritza entitateak sozietate publikoak direla.

1. laukia




Aztertzen ari garen Nafarroako Kontu Orokorrek, Gobernuak argitaratuek, honako egoera-orri hauek badituzte:

• Gobernuaren Aurrekontuaren 1996ko ekitaldiko kitapena, bere sailkapen guztiekin.

• 1996ko balantzea eta emaitza-kontua eskaintzen dira, birsailkapen egokiaren ondoren, 1994an onarturiko Sektore Publikoko Kontabilitate Plan Orokor berriak proposatzen dituen eskema eta terminologiarekin. Halarik ere, aurkezpen berritu hau ez da aplikazio kontablea aldatzearen ondorio, ez eta kontabilitatea Plan berriari egokitzearen ondorioa ere.

• Eranskin moduan, enpresa publikoen ikuskapen-txostenak eta urteko kontuak gaineratzen dira.

• Erakunde autonomoen aurrekontu-betetzea, salbu eta Nafarroako Emakumearen Institutuari dagokiona, dagozkion aurrekontu-lerroetatik atera daitekeen arren.

– Ente publikoen finantza-egoerak.

Ganbarak egin duen lanaren norainokoa ondorengo hau izan da:

• Nafarroako Gobernuaren eta bere erakunde autonomoen Kontu Orokorren fiskalizazioa, hurrengo finantza egoera hauen azterketaren bitartez (IV atalean bilduak):

a) Egoera balantzea, 96-12-31n (2. gehigarria).

b) 1996ko ondare emaitza eta emaitza ekonomikoaren kontua. (2. gehigarria).

c) 1996ko aurrekontuaren betetze-egoera. (3. gehigarria).

• Erakunde autonomoen azterketa Nafarroako Gobernuaren kontuenarekin batera egin da, baina 5. gehigarrian horien aurrekontu-ezaugarri nabarmenenak bereziki aztertu dira.

• Seigarren gehigarrian ente publikoen aurrekontu-egoerei buruz egindako analisiaren ezaugarri nabarmanen laburpen bat azaldu da.

• Enpresa publikoen arloari dagokionez, 8. gehigarrian profesional independenteek egindako ikuskapen txostenetatik lortu diren iritzi eta gainerako ekonomi informazioaren ezaugarririk nabarmenak bildu dira, eta horiek eranskin gisa agertzen dira Gobernuak aurkezturiko Kontu Orokorren Oroit-Idazkian.

Hori osatzeko, honako txosten honetako 1. gehigarrian Foru Komunitateko Administrazio Orokorraren ekonomi eta finantza egoerei buruzko azterketa azaldu da, eta honek 1996ko aurrekontuaren ezaugarri nagusiak zein defizita eta zorpetzearen egoera eta aurrikusten diren projekzio eta bilakaerak aztertzen ditu.

Azkenik, lana osatuz hainbat azterketa berezi egin dira, honako gai hauei dagozkienak:

• Kontratazio publikoa (4. gehigarria)

• Zerga-gastuen azterketa (7. gehigarria)

Laburbilduz, txostena lau ataletan egituratzen da, atalok egindako lana zein iritzia eta ondorio eta gomendio orokorrak islatzen dituzte. Atal hauek osatzeko aurreko ondorioak zabalago azaltzen diren 8 gehigarri bildu dira. Azkenik, aurrekontuei buruzko informazioa ematen duten 6 eranskin gehitu dira.

Metodologiari doakionez, Espainiako Estatuko kanpoko kontrolerako erakundeen koordinazio Batzordeak onetsitako “arlo publikoaren ikuskapenari buruzko hatsapen eta arauak” erabili dira.

Zehazki, balantzea eta emaitza-kontuaren azterketan egokitzat jo ditugun finantza publikoetako ikuskapen-arau eta jardunbideak erabili dira, inguruabarren arabera eta lanaren helburuak kontuan hartuz, eta gainera, horiei antolamendua eta barneko kontrola hobetzeko egoki jo diren iruzkin eta gomendioak erantsi zaizkie.

Aurrekontuaren azterlaritza zein eraginkortasun eta ekonomia mailaren analisia, aurreko txostenetan bezala, batik bat aurrekontu-programen edo eginkizun/jarduera publikoen azterketan oinarritu da. Batetik programa horietan epigrafe ekonomiko bakoitzeko gastuak eta dirusarrerak aztertu ditugu, finantza eta aurrekontu-ikuskapenaren berariazko metodologia erabiliz, eta bestetik, ezarritako helburuen betetze maila, eta ahal izan denean, erdietsitako eraginkortasun eta ekonomia maila ere aztertu ditugu, orokorrean onartuta dauden prozedurak erabiliz.

Aztertutako programak eta jarduerak honako hauek izan dira:

• Ezinduentzako arreta-programa.

• Langileen kudeaketa II.

• Osasunbidea/Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileen kudeaketa.

• Nafarroako Gobernuaren ordainketa-sistema.

• Iruñeko espetxearendako laguntzak

• Su-itzaltze partzuergoa

• Ponsalendako laguntzak (Porcelanas del Norte, S.A.L.)

• Nafarroako Unibertsitate Publikoa

Txostenak baditu, baita ere, atal ezberdinetan, interesgarri iruditu zaizkigun legezko gorabeherekin zerikusirik dituzten iruzkinak.

II.2. MUGAK.

Egindako lanak izan dituen mugen artean aipatu behar dugu baliabide publikoen kudeaketan erdietsiriko ekonomia eta eraginkortasun mailaren egiaztapena, azterturiko programa jakin bakoitzaren garapen-mailaren menpe dagoela, eta baita ere, horren kudeaketa-mailaren, eskura dagoen informazioaren eta proposaturiko adierazleen kalitatearen menpe. Hortaz, ezin izan dugu beti afera horri buruzko ondoriorik eman.

Zelaiko lana 1997ko maiatzetik urrira bitartean egin du ikuskari batek, auditoretza lau teknikok eta praktiketako laguntzaile batek osaturiko taldeak, beti ere Kontuen Ganbarako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen lankidetza iraunkorra izan dutela.

Eskertu nahi diegu Nafarroako Gobernuko langileei lan hau egiteko azaldu duten lankidetasuna, eta bereziki Ekonomi eta Ogasun Departamentuko langileei.

## III. IRITZIA. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIO OROKORRAK.

III.1. IRITZIA.

Egindako lanaren norainokoaren arabera, hauek aztertu ditugu: Nafarroako Gobernuaren egoera-balantzea 1996ko abenduaren 31n, 1996ko emaitza-kontua, ekonomia eta ondareari buruzkoa, eta Nafarroako Gobernuaren 1996ko Aurrekontuaren kitapena.

Gure lana egiteko onartu ohi diren ikuskapen publikoko arau eta prozedurak erabili ditugu, inguruabarren arabera eta lortu nahi ziren helburuak kontuan hartuz.

Gure jarduketaren ondorioz, hona hemen iritzia:

**III.I.I. 1996ko aurrekontuaren betetze mailari buruz.**

1996ko Aurrekontuaren kitapenean azaltzen diren gastu eta dirusarrerek egokiro islatzen dute aldi horretan Nafarroako Gobernuak burutu duen jarduera, hurrengo salbuespenarekin:

Dirusarrera-aurrekontuak ez du islatzen Estatuarekiko hitzarmen ekonomikoaren baitako BEZaren konpentsazioaren 4. hiruhilekoa, 5.000 milioi pezeta inguru egiten duena. Gobernuak esan du zuhurtzia erabili duela, ekitaldia ixteko garaian ez zekielako Estatuarekiko hitzarmenaren eguneratzearen emaitza zein zen, aurreko ekitaldietako balizko doiketak ere hartzen baitzituen. Azken zifra -doiketak barne- 3.234 milioi pezeta izan da eta 1997ko ekitaldiari egotziko zaio.

Gobernuak, aurreko ekitaldietan erabilitako irizpideen ildotik:

• 29.245 milioi pezetako zor-jaulkipena islatu du eta 30.000 milioiren deuseztea, 755 milioi jotzen duen garbia jaso duelarik gastu-aurrekontuan.

• Erregistro-dataren arabera jaso ditu zerga-dirusarrerak kontabilitate laguntzailean, eta ez dagokion zerga-aitorpena aurkezteko dataren arabera, zerga-dirusarreren ehuneko 5ari bakarrik eragiten dion arren.

Aurreko bi lerroaldeetan esandako irizpideak ez datoz bat Kontabilitate Publikoaren Planarekin.

**III.1.2. 1996ko abenduaren 31ko egoera-balantzeari buruz.**

Nafarroako Gobernuaren egoera-balantzearen saldoek Foru Ogasunaren ondare-egoeraren ezaugarririk nabarmenenak islatzen dituzte, 1996ko abenduaren 31n, hurrengo salbuespen hauek salbu:

• Ibilgetu materiala eta finantzarioa.

Nafarroako Gobernuaren jabetzapeko ondasun materialen inbentarioa osatu gabe egoteak eragotzi digu iritzia ematea saldo horien arrazoizkotasunari buruz.

• Zerga-zordunak.

Akatsak antzeman ditugu, zerga-zordun guztiak aztertzeko prozesua ez delako bukatu, eta gure ustez beharrezkoa da zenbait saldo sistematikoki berraztertzen segitzea, batez ere zenbateko hartzekodunak dauzkatenak.

• Diruzaintza.

Nafarroako ikastetxe publiko guztiei dagozkien Hezkuntza eta Kultura Departamentuko hainbat banku-kontu ez dago islatuta. Saldoak 530 milioi jotzen du, gutxi gorabehera. Hurrengo ekitaldian zuzenduko da hori.

• Kontingentziak.

Indarrean dagoen Nafarroako Gobernuaren funtzionarioen pentsio-sistemak sorrarazten dituen betebehar aktuarialen ondorioz dauden kontingentziak ez dira jasotzen.

**III.1.3. Legezkotasunaren hatsapenaren betetzea.**

Orokorrean, Gobernuaren ekonomi eta finantza jarduera legezkotasunaren hatsapenaren arabera gauzatzen da, Txostenean zehar aipatzen diren salbuespenak salbu.

**III.1.4. Kontuen Ganbara honek Aurreko txostenetan emandako aholkuen betetzea.**

Ekitaldi bateko Kontu Orokorrei buruzko Txosten bat argitaratzen denetik hurrengo ekitaldikoak ixten diren arte oso epe laburra igarotzen da, eta horregatik ezin daiteke behar bezalako iritzia eman lehengo txostenean azaltzen ziren gomendioak noraino bete ote diren.

Hala ere, ikusten da gero eta ahalegin handiago egiten dela ematen diren gomendioak betetzeko. Ildo horretatik, Kontuen Ganbara honek txosten bat egin zuen Foru Komunitateko Administrazio Orokorraren esparruan emandako gomendioen jarraipenari buruz, 1991tik 1995era bitarteko aldian (1996ko uztailaren 46ko 46. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala -NPAO-). Aipatu txostenean jasotako 60 gomendioetarik, Kontuen Ganbarak lehentasunezkotzat jo zuen, eta uste horri eusten dio, hurrengoak indarrean jartzea:

• Ibilgetua.

*Nafarroako Gobernuaren jabetzakoak diren ondasun higikor eta higiezinen inbentarioa egiteko prozesua amaitzea, balorazio irizpideak eta prozedura administratiboak ezarriz eta uztartuz.*

*Ibilgetuari buruzko kontabilitate saldoen berraztertze eta garbitzeari ekitea, horiek Nafarroako Gobernuaren izaera horretako ondasun multzoa isla dezaten.*

• Zordunak.

*Zordunen kontuen abenduaren 31ko saldoak aztertzea, saldo hartzekoduna dutenak, batez ere.*

• Kontingentziak.

*Egungo pentsio eredutik sorturiko betebehar aktuarialak zenbatekotu eta finantza egoera-orrietan erregistratzea.*

• Epe laburreko zorrak.

*Aitorturiko betebeharrengatiko hartzekodunak. Zentro guztietan tratamendua osatzea, ekitaldiko itxieran dokumentuzko euskarriei zein erresulten zenbatekotze arrazoizkoari bidea emateko.*

• Oroipen kontuak.

*Eratutako abalak. Berme nahikoak erdiestea -kontuan izan, hala ere, kasu batzuetan gerta daitezkeen ekonomi eta gizarte eragin bereziak- eta onarturiko arriskuen eta horien bilakaeraren etengabeko jarraipen zehatza egitea.*

• Langileriaren kudeaketa.

*Nafarroako Gobernuko egungo plantila organikoa zerbitzu publikoak modu arrazional eta eraginkorraz emateak eskatzen dituen benetako langileri beharrizanei egokitzea.*

*Lege agindua betetzea, Nafarroako Administrazio Publikoen funtzionarioak taldetan edo kidegotan sartzeari buruzko lege bat egiteari dagokiona, funtzionarioen igoera eta mugikortasuna errazteko.*

*Gizarte Segurantzari atxikirik ez dauden Nafarroako Gobernuko funtzionarioei aplika dakiekeen jubilazio eta pentsioen eredua behin betiko finkatzea, egungo iragankortasun eta segurtasun eza ekiditeko.*

*Nafarroako administrazio publikoen soldataereduan elementu aldagarriak sartzea, lanpostua, produktibitatea eta erdietsitako helburuen arabera zehazturik.*

• Zuzeneko eta zeharkako zergak.

*Horren zain dauden tributuen informatizazioa osatzea, bereziki oinordetza, ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuei buruzkoak.*

• Administrazio-kontratazioa.

*Kontratuei buruzko foru legea ahalbait lasterren onartzea, foru legea eta estatuko legea, biak batera, egoteak dakarren segurantza juridiko falta eta behin-behinekotasunezko egoera gainditu ahal izateko. Gobernuak proiektua igorri du Parlamentura, izapida dadin.*

*Administrazio Kontratazio Batzordeari eman zaizkion funtzioak garatzea, behar dituen baliabideez hornituz, legezkotasuna beteko dela hobeki bermatzeko eta kontratuen mailako jardueraren eraginkortasuna hobetzeko.*

• Barneko kontrola.

*Araubidez garatzea Nafarroako Gobernuko Kontuhartzailetza Nagusiaren eta haren Barne Ikuskapen Atalaren jarduteko formulak.*

**III.I.5. Foru Ogasunaren finantza-egoera.**

• Finantzatzeko beharrak desagertu egin dira 1996an. Horren arrazoia da ohiko dirusarrerek gora egin dutela –ehuneko 7, aurreko ekitaldiarekiko–, ohiko gastuak gutxiago igo diren bitartean –ehuneko 6–, eta kapital gastuak ere beherantz joan direla –ehuneko 7–.

1996ko ekitaldiaren bukaera alderako zor publikoa, beraz, 128.944 milioi pezetaraino jaitsi da, aurrekontu-agertokiak 152.744 milioi pezeta jartzen zuen bitartean.

1996an, ibilkorraren superabita (epe laburreko zordunak gehi erabilgarria ken epe laburreko betebeharrak), 1.000 milioi handiagoa da, aurreko ekitaldikoarekin alderatzen badugu, eta 21.806 milioi egiten du, finantza-pasibo berriak eskuratu ez diren arren. Gehikuntza honen arrazoia da finantza-dirusarreren handiagotzea, eta aldi baterako inbertsio finantzarioetan gauzatu da, batez ere.

Ondorio gisa, esan dezagun Foru Ogasunak 1996an bete egin dituela 1995-1997 aurrekontuagertokian ezartzen ziren baldintzak finantzazio eta zorpetzeari dagokionez, batez ere dirusarrera ez finantzarioetan izan den gorakadarengatik eta, neurri txikiagoan, gastuen kontrolagatik. Izan ere, Nafarroarako aurrekontu-agertokian aurreikusitakoak baino 2.902 milioi gastu ez-finantzario gehiago gauzatu dira.

Hortaz, Ganbara honen gomendioek indarrean diraute gastuen alorrean; hau da, aurrekontuaren aldetik zorrotz jokatzeko beharrak bere hartan dirau, datozen ekitaldietan “aurrekontu-agertokiaren” helburuak beteko direla ziurtatu ahal izateko. Beraz, hauek dira guk proposatzen ditugun neurriak:

*Nafarroako Gobernuak aplikatzen dituen gastu-programa eta politika guztien berrazterketa sistematikoa eta egituratua.*

*Baliabide publikoaren kudeaketan emaitza ekonomiko-sozialen bilaketa eragin eta langileak motibatu behar dituzten eginbide eta tresnen*

*ezarpenean sakontzea, baliabide publikoen eraginkortasunaren hobetzea bermatuz.*

*Administrazio eta herritar guztiek parte hartu behar duten iruzurraren aurkako erabateko jarduketa bultzatzea.*

Neurri hauek guztiak eraginkorragoak izango lirateke administrazio eta gizarte-eragile guztiek eta Nafarroako Parlamentuak babestuko luketen jarduketa plan baten barruan sartuko balira.

**III.I.6. Eraginkortasuna eta ekonomia.**

Norainokoaz ari ginenean aipatu ditugun muga eta edukiekin bat etorriz, gure helburua da Nafarroako Gobernuak garatu dituen hainbat programa eta jarduketa kudeatzean lortu den eraginkortasunari eta ekonomiari buruzko zenbait ondorio ateratzea.

1996. urtean honako hauek aztertu dira:

• Hezkuntza Departamentuko langileen kudeaketa.

• Su-itzaltze partzuergoa.

• Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren kudeaketa.

• Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

• Minusbaliatuen programa

Aurreko txostenak aintzat harturik, hona Kontuen Ganbararen gomendioak:

*Nafarroako Gobernuak egungo arautegiaren eta programakako aurrekontu-praktikaren garapena sakondu behar du, eraginkortasun, ekonomia eta gardentasunen hatsapenen arabera jokatu behar duen kudeaketa publikoak eskatzen dituen baldintzak bete ahal izateko. Azterketa eta gogoeta prozesu honetan estamentu guztiek hartu behar dute parte, eta batez ere Nafarroako Parlamentuak.*

*Kudeaketa publikoaren fase guzti-guztietan baliabide publikoen erabilera arrazoizkoa bilatzen duten aurrekontu-tekniken filosofiak presente egon behar du, antolamendu guztia hartu behar du eta enplegatuen lanaren pizgarri izan behar du, bidenabar norberaren erantzukizuna eskatzen delarik.*

*Programa publiko guztiek biltzen dituzten laguntzak aplikatzeak gizartean lortzen dituen egiazko emaitzak analizatzeko azterketak edo ebaluazioak sistematikoki egin behar ditu, lortu nahi ziren helburuak benetan lortzen ari ote diren baieztatu ahal izateko.*

III.2. BESTELAKO IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIO OROKORRAK.

**III.2.1. 1996ko Aurrekontuaren betetzeari buruzko ezaugarririk nabarmenenak** (1.1. eta 3. gehigarriak).

Nafarroako Gobernuak aurkezturiko informazioaren arabera, hona hemen 1996ko Aurrekontuaren betetzeari buruzko ezaugarririk nabarmenenak:

1996ko aurrekontuak hasieran hurrengo aurreikuspen hauek zituen: 255.335 milioi pezetako gastuak, finantzaz besteko 238.851 milioi pezetako dirusarrerak eta hortaz, 16.484 milioi pezetako kanpo-finantzaketaren beharra.

Aitorturiko betebeharrek 253.121 milioi jotzen dute eta bateratuaren gaineko betetze-maila % 94 da.

Bere izaera kontuan harturik, gastuen egiturazko osaketa egonkorrari eutsi zaio, baina ohiko gastuek 2 puntu egin dute gora, kapital gastuen kaltetan.

Departamentuei dagokienez, Osasunak eta Hezkuntzak gastu osoaren ehuneko 45 biltzen dute.

Aitorturiko eskubideek 257.364 milioi pezeta jotzen dute guztira eta betetze-maila ehuneko 95,6 da.

Horien osaketari dagokionez, ohiko dirusarrerek, 1995ekoekin alderatuz, 8 puntu gora egiten dute, finantza-dirusarreren kaltetan.

Betetze horren ondorioz, ez da beharrezko izan 1996an aurreikusita zegoeen 16.484 milioiko zorra jaulkitzea.

Aurreko datuekin bat, aurrekontua 4.243 milioiko superabitarekin itxi da, aurreko ekitaldiko benetako defizita 4.121 milioi izan zen bitartean, zorjaulkipena kontuan hartu gabe.

• Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoa.

Estatuaren zama orokorretarako egiten den ekarpenak, 1996. urtean, 18.699 milioi jotzen zuen transferentzia ekarri du. 1997ko urrian izenpetu da hitzarmenaren eguneratzea.

• Gobernuaren ordainketa-sistema.

Nafarroako Gobernuaren ordainketa-sistemak arrazoiz ziurtatzen du egindako ordainketen nondikoa eta haien kontabilizazioa. Hala ere, gomendatzen dugu:

*Jardunbideen eskuliburu eguneratua egitea.*

**III.2.2. Kontratazio Publikoa** (4. gehigarria).

• Administrazio Kontratazioko Batzarra

Departamentuek kontratuak eta euren aldaketak igortzearen inguruan dituzten betebeharretatik batzuk bete gabe jarraitzen dute.

Batzarraren jarduera, oro har, kontratuen erregistrora eta kontratazioari buruzko oroit-idazkiaren idazketara mugatzen da, eta ez ditu kontratazio publikoaren arloan kontrol eta aholkurako benetako organo gisa aritzeko dituen eginkizunak garatzeko behar dituen baliabideak. Ekitaldi honetan, hain zuzen, ez dugu oroit-idazkirik izan.

*Gomendatzen dugu Batzarraren jarduera indartzea –urtero oroit-idazkia idatzi behar du– eta Departamentu guztiek horrekin dituzten betebeharrak betetzera irmoki premiatuz.*

• Kontratuen inguruko jardunaren oroit-idazkia 1996an.

Administrazio Kontratazioko Batzarrak 1996an jaso dituen kontratuek gora egin dute: ehuneko 23, 1995ekoekin konparatuz gero.

Kontratuen izaerari dagokionez, zabalduena hornidura-kontratua da –kontratu guztien ehuneko 42–, baina zenbatekoetan lehenengoak obretakoak dira –esleitutakoaren ehuneko 64–.

Esleipen-sistemari dagokionez esan behar da, 1995ean jada, lehenengo aldiz, lehiaketa izan zela, zuzeneko kontratazioaren gainetik, Administrazioak gehien erabiltzen duen esleipen-prozedura. 1996ean, egindako kontratuen ehuneko 55, lehiaketaren bidez esleitu ziren. Zenbatekoei begiratzen badiegu, nagusitze hau are eta garrantzizkoagoa da, lehiaketa baita esleitutako zenbatekoaren ehuneko 85.

Lizitazioaren eta esleipenaren zenbatekoak alderatzen baditugu, ikusten duguna da batez besteko beherakada ehuneko 17 dela –1995ean ehuneko 24–, eta azpimarratzekoa da kontratuen ehuneko 17k ehuneko 30 baino beherakada handiagoa daukatela.

Azkenik, ondorengo koadroan ikusten ahal da Nafarroako Gobernuak 1991 eta 1996 arteko aldian erabili dituen esleipen-prozeduren bilakaera, ehunekoetan, beti ere.

| Ekitaldia | Enkantea | Lehiaketa | Z. Esleipena |
|---|---|---|---|
| 1991 | 1 | 8 | 91 |
| 1992 | 0,5 | 15 | 84,5 |
| 1993 | 0,3 | 21 | 78,3 |
| 1994 | 2 | 33 | 65 |
| 1995 | 5 | 50 | 45 |
| 1996 | 6 | 55 | 39 |

Ikusten denez, zuzeneko esleipenak –prozedura negoziatua deitzen dena, gaur egun– hurrengo bilakaera izan du: 1991 urtean egin ziren kontratu guztien ehuneko 91 prozedura honen bidezkoa izan zen, eta 1996. urtean, aldiz, egin ziren kontratuen ehuneko 39. Alderantziz, lehiaketa, ehuneko 8 baino ez zena, egun kontratuen ehuneko 55 izatera pasatu da.

**III.2.3. Erakunde autonomoak** (5. gehigarria).

• Nafarroako Gobernuak administrazio izaerako zazpi erakunde autonomo ditu, eta horien aurrekontuen kitapena Gobernuarenean sartzen da.

• 1996an, egin diren gastu guztiek 76.039 milioi pezeta jotzen dute –hau da, Gobernuaren gastu guztien ehuneko 30–, eta dirusarrerak 2.658 milioi dira –dirusarrera guztien ehuneko 1–. Beraz, 73.381 milioiko behar finantzarioa dago, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak behar horien ehuneko 78 hartu du bere gain eta Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak ehuneko 17.

• 1995eko ekitaldiarekin konparatuz, erakunde autonomoen gastuak ehuneko 7 gehitu dira, dirusarrerak berriz, ehuneko 24 gehitu dira. Finantzazio beharrak 478 milioi pezeta gehiago jotzen du, ehuneko 7 aurreko ekitaldiarekin konparatuz gero.

Gomendatzen dugu:

*Zerbitzu jakin batzuk erakunde autonomoen formularen bitartez ematen jarraitzeari buruzko egokitasuna ebaluatzea, are gehiago horietako batzuk oinarrizko eskumenak mugaturik eta baliabide urriak dituztenean.*

*Aurrekontu-zorroztasunaren politikaren barruan, erakunde autonomoek gastua ez gehiagotzeko eta kudeaketa hobetzeko neurriak har ditzaten saiatzea.*

**III.2.4. Zuzenbide publikoko enteak** (6. gehigarria)

• Nafarroako Unibertsitate Publikoak 5.625 milioiko gastuak izan ditu, 6.122 milioiko dirusarreren aurrean. Horrenbestez, 497 milioiko superabita erakusten du aurrekontuan. Ohiko gastu eta dirusarrerak dira nagusi bere aurrekontu-egituran.

1995. urtearekin alderaturik, gastuek ehuneko 22 egiten dute gora, eta dirusarrerek ehuneko 15. Beraz, 1996ko aurrekontuko superabita aurreko ekitaldikoa baino 184 milioi gutxiago da.

Dirusarreren ehuneko 69 transferentzietatik datoz, batez ere Nafarroako Gobernuaren transferentzietatik, eta ehuneko 10 tasetatik.

Kontuen Ganbara honek Nafarroako Unibertsitate Publikoari buruzko fiskalizazio-txostena egin du 1996an, kudeaketa– edo ekintza-auditoriaren ikuspegitik. Hirugarren gehigarriko 3.3. atalean jaso ditugu ondorioak.

• Su-itzaltze Partzuergoak, 1.708 milioiko gastu-dirusarrerak erakusten ditu 1996an, aurreko ekitaldikoak baino ehuneko 5 gehiago. Dirusarrera ia guztiak Nafarroako Gobernuaren transferentzietatik datoz.

Kontuen Ganbara honek Partzuergoari buruzko fiskalizazio-txostena egin du 1996an. Haren ondorio operatiboak 3. gehigarriko 3.3. atalean jaso ditugu.

Finantza-egoera orrien gaineko iritzia aldekoa da, alegia, haien aurrekontu-likidazioak ongi islatzen duela burututako jarduna. Kontabilitate orokorrik ezak eta inbentario osatu gabeak, hala ere, ezinezko egiten dute Partzuergoak 1996ko abenduaren 31n duen ondare-egoerari buruzko iritzia ematea.

• Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbarak kanpoko profesional batek eginiko ikuskapen txostena aurkeztu du, eta beronek salbuespenik gabeko iritzia azaltzen du. Kopururik nabarmenenei dagokienez, ohiko dirusarrerek 368 milioi pezeta jotzen dute, eta gastuek 382 milioi. Ekitaldiko emaitza, beraz, 14 milioi pezeta jotzen duen galera da.

**III.2.5. Zerga-gastuen aurrekontua** (7. gehigarria).

• Zerga-gastuen aurrekontuak, 1996. urtean, 46.722 milioi pezeta jotzen zuen, hau da, zerga-dirusarrera guztien ehuneko 23. Zergaz zerga, azpimarratzekoak dira PFEZren zerga-gastuek jotzen duten portzentaia –ehuneko 32– eta Sozietateena –ehuneko 29–. Halere, ratiorik handiena erakusten duen zerga ondarearen gainekoa da, zerga-gastuek aurreikusitako dirusarreren ehuneko 54 egiten baitute.

• Zerga-gastuen aurrekontuaren handitze-ehunekoa 8,7 da, aurreko ekitaldiko aurrekontuan jasotzen diren kopuruekin konparatuz gero. Aurrekontuan sartzen diren aurreikuspenak betetzen ote diren edo noraino betetzen diren jakiteko azterketarik edo jarraipenik egiten denik ez da jaso.

Gomendioak:

*Zerga-gastuen zenbatze eta zenbateste-saioak areagotzea, lortu nahi diren helburuak aintzat harturik, baita zenbatesten diren kopuruak eta egiazkoak alderatzea, ematen diren alderaketak eta hauek geratzeko arrazoiak aztertuz eta, hala badagokio, zuzenketa-neurri beharrezkoak hartuz.*

*Kontu Orokorrean zerga-gastuak noraino betetzen diren gaineko informazioa sartzea.*

**III.2.6. Enpresa publikoen sektorea** (8. gehigarria).

• Nafarroako Gobernuak kapitalaren gehiengoa –hau da, ehuneko 50 edo gehiago– du 24 enpresatan. 1995. urtearekin konparatuz, aldaketarik garrantzizkoenak hauek dira: Navarra de Medio Ambiente Industrial, S.A. sartu da, ehuneko 100 partaliertua; Sigesa eta Etudesa atera egin dira, deuseztu eta likidatu ondoren; eta Gotebe, S.L. saldu egin dute.

• Profesional independenteek zein Nafarroako Gobernuaren Kontuhartzailetzak berak 22 enpresa ikuskatu dituzte guztira eta hurrengo emaitza hauek izan dira:

a) Hamazazpi enpresek iritzi garbiarekin dituzte auditoretza txostenak.

b) Bost enpresek iritzia salbuespenekin azaltzen dute.

• Enpresa publikoen arloaren datu ekonomiko garrantzizkoenak azpimarratzekotan:

a) Enpresa hauetako langileak, 1996.ean, 1.003 dira. Langileon batez-besteko kostua –soldatak eta gizarte zamak– urteko 4,5 eta 5 milioi bitartekoa da. Zazpi enpresak ez dute langilerik.

b) Enpresa publikoen arloko negozio-zifren zenbateko garbiak 17.166 milioi jotzen du, eta 1.500 milioi baino gehiagoko fakturazioa daukaten bost enpresa nabarmentzen dira –Magnesitas de Navarra, Audenasa, Vinsa, Funvera eta Tracasa–.

c) Lortutako dirulaguntzek edo eta emaitzei eratxikitakoek 1.537 milioi egiten dute, eta ehuneko 6 gutxitu dira, 1995ekoekin alderatuz.

d) Arloko irabazi garbiek 29 milioi jo dute, aurreko ekitaldian izandako galera garbiek 660 milioi jo zuten bitartean. Mozkinetan, Vinsa nabarmentzen da –547 milioi– eta azpimarratzekoa da Nilsa enpresa mozkinetan sartu dela. Galeretan aipagarriak dira Nafinco –382 milioi–, partaliertuen egoeraren ondorioz, eta Soles System –591 milioi–.

e) Aurreko ekitaldikoekin alderatuz gero ehuneko 3 gehitu diren epe luzerako zorrek 27.655 milioi jotzen dute. Zenbateko horretatik 4.528 milioi Gobernuari berari dagozkio, hartzekoduna den aldetik.

• Azkenik aipatu behar da Nafarroako Gobernua arrisku ekonomikoak bereganatzen ari dela

zenbait enpresatan, berorietan aplikatzen ari delako hainbat formula finantzario, abalak, maileguak, aurrerakinak eta gerorapenak, konparazioen, eta ez beti behar diren bideragarritasun-bermeekin.

Francisco Javier Sesma Masa auditore jaunak proposatuta, lan honen ardura izan baitu, ematen dut txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete eta gero.

Iruñean, 1998ko urtarrilaren 16an

Kontuen Ganbarako Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

## IV. FINANTZA-EGOERAK

### IV.1. EGOERA BALANTZEA 1996/12/31 (pezetatan) — 2. koadroa

| A K T I B O A | 1996ko ekitaldia | 1995eko ekitaldia |
|---|---|---|
| **A) Ibilgetua** | **146.656.080.597** | **137.377.003.590** |
| III. Ibilgetu materiala | 104.195.982.605 | 96.428.161.229 |
| 1. Lursailak eta eraikinak | 70.386.908.639 | 65.217.871.984 |
| 2. Instalazio teknikoak era makineria | 5.329.759.134 | 5.010.895.847 |
| 3. Tresneria eta altzariak | 15.112.369.911 | 13.546.667.632 |
| 4. Bestelako ibilgetua | 13.366.944.921 | 12.652.725.766 |
| V. Inbertsio finantzario iraunkorrak | 42.460.097.992 | 40.948.842.361 |
| 1. Epe luzeko balore-kartera | 21.769.991.179 | 18.674.991.179 |
| 2. Beste hainbat inbertsio eta epe luzeko kredituak | 20.690.016.813 | 22.273.761.182 |
| 3. Epe luzerako eraturiko fidantzak eta gordailuak | 90.000 | 90.000 |
| **B) Hainbat ekitalditan banatu beharreko gastua** | **131.372.488** | **260.707.118** |
| **C) Aktibo ibilkorra** | **88.731.955.493** | **80.400.009.362** |
| I. Izakinak | 539.683.904 | 536.216.365 |
| 2. Lehengaiak eta beste hainbat hornidura | 539.683.904 | 536.216.365 |
| II. Zordunak | 23.638.937.443 | 26.341.862.836 |
| 1. Aurrekontuko zordunak | 54.179.171.384 | 53.781.218.683 |
| 3. Beste hainbat ente publikoen baliabideak kudeatzeagatiko zordunak | 321.479.043 | 743.483.200 |
| 5. Beste hainbat zordun | 224.764.106 | 264.585.321 |
| 6. (Hornidurak) | (31.086.477.090) | (28.447.424.368) |
| III. Aldi baterako inbertsio finantzarioak | 64.764.893.442 | 53.274.020.520 |
| 2. Beste hainbat inbertsio eta epe laburreko kredituak | 64.344.510.642 | 52.775.885.024 |
| 3. Fidantzak eta epe laburrean eraturiko gordailuak | 420.382.800 | 498.135.496 |
| IV. Diruzaintza | (211.559.296) | 247.909.641 |
| **Guztira (A+B+C)** | **235.519.408.578** | **218.037.720.070** |

| P A S I B O A | 1996ko ekitaldia | 1995eko ekitaldia |
|---|---|---|
| **A) Fondo berekiak** | **34.900.932.344** | **25.543.647.055** |
| I. Ondarea | 3.738.727.382 | 19.963.844.281 |
| 1. Ondarea | 3.738.727.382 | 19.963.844.281 |
| III. Aurreko ekitaldietako emaitzak | 21.811.237.037 | 7.007.047.382 |
| 1. Aurreko ekitaldietako emaitza positiboak | 21.811.237.037 | 7.007.047.382 |
| IV. Ekitaldiko emaitzak | 9.350.967.925 | (1.427.244.608) |
| **C) Epe luzeko hartzekodunak** | **118.117.957.978** | **133.439.114.965** |
| I. Obligazio eta beste hainbat balore negoziagarrien jaulkipena | 112.835.000.000 | 129.705.430.000 |
| 1. Obligazioak eta bonoak | 112.835.000.000 | 129.705.430.000 |
| II. Epe luzeko beste hainbat zor | 5.282.957.978 | 3.732.184.965 |
| 2. Beste zor batzuk | 5.014.246.226 | 3.480.591.417 |
| 4. Epe luzerako jasoriko fidantzak eta gordailuak | 268.711.752 | 251.593.548 |
| III. Akzioen gaineko despoltsapen eskatu gabeak | — | 1.500.000 |
| **D) Epe laburreko hartzekodunak** | **82.500.518.256** | **59.054.958.050** |
| I. Obligazioak eta bestelako balore negoziagarriak jaulkitzea | 16.109.260.000 | — |
| 1. Obligazioak eta epe laburreko bonoak | 16.109.260.000 | — |
| III. Hartzekodunak | 66.391.258.256 | 59.054.958.050 |
| 1. Aurrekontuko hartzekodunak | 64.090.400.068 | 57.563.340.361 |
| 2. Aurrekontukoak ez diren hartzekodunak | 500.000.000 | 500.000.000 |
| 3. Beste hainbat ente publikoen baliabideak kudeatzeagatiko hartzekodunak | 933.272.160 | 586.819.031 |
| 4. Administrazio publikoak | 174.347.400 | 159.129.257 |
| 5. Beste hainbat hartzekodun | 598.576.441 | 148.514.695 |
| 6. Epe laburreko fidantzak eta jasoriko gordailuak | 94.662.187 | 97.154.706 |
| **Guztira (A+C+D)** | **235.519.408.578** | **218.037.720.070** |

## IV.2. ONDARE-EMAITZA ETA EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA (BATERATUA) 1996KO EKITALDIA

3. koadroa

| **Z O R** | **1996ko ekitaldia** | **1995eko ekitaldia** |
|---|---|---|
| **A) Gastuak** | | |
| 2. Hornidurak | 8.479.237.813 | 8.015.375.666 |
| b) Ekitaldiko kontsumoak | 8.479.237.813 | 8.015.375.666 |
| 3. Ohiko kudeaketari dagozkion beste hainbat gastu | 106.450.242.852 | 96.233.635.063 |
| a) Langileria gastuak | | |
| a.1) Soldatak eta alokairuak | 65.401.590.435 | 61.602.812.213 |
| a.2) Gizarte zamak | 9.676.677.541 | 8.850.678.154 |
| b) Gizarte prestazioak | 3.777.685.702 | 3.609.566.057 |
| e) Beste hainbat kudeaketa-gastu | | |
| e.1) Kanpoko zerbitzuak | 12.981.587.940 | 12.261.360.276 |
| e.2) Tributuak | 2.593.133 | 274.559 |
| e.3) Ohiko kudeaketari dagozkion beste hainbat gastu | 409.623.554 | 385.531.572 |
| f) Gastu finatzieroak eta antzekoak | | |
| f.1) Zorren arabera | 14.200.484.547 | 9.523.412.232 |
| f.2) Galerak inberstio finantzarioetan | — | — |
| 4. Transferentziak eta dirulaguntzak | 108.085.254.303 | 105.213.218.343 |
| a) Ohiko transferentziak | 80.853.295.590 | 78.871.729.699 |
| c) Kapital transferentziak | 27.231.958.713 | 26.341.488.644 |
| 5. Galerak eta aparteko gastuak | 20.594.517.946 | 24.575.157.757 |
| a) Ibilgetutik datozen galerak | 39.858.108 | 172.868.260 |
| c) Aparteko gastuak | 15.277.590.058 | 18.814.962.670 |
| d) Beste ekitaldietako gastuak eta galerak | 5.277.069.780 | 5.587.326.827 |
| Saldo hartzekoduna (aurrezkia) | 9.350.967.925 | |

| **H A R T Z E K O** | **1996ko ekitaldia** | **1995eko ekitaldia** |
|---|---|---|
| **B) Dirusarrerak** | | |
| 1. Ohiko kudeaketagatiko dirusarrerak | 209.153.388.387 | 194.882.513.464 |
| a) Zerga-dirusarrerak | | |
| a.1) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga | 79.350.694.090 | 75.972.305.328 |
| a.2) Sozietateen gaineko zerga | 27.533.798.678 | 21.886.676.617 |
| a.3) Ondorengotzaren eta dohaintzen gaineko zerga | 719.376.844 | 687.131.417 |
| a.4) Ondarearen gaineko zerga | 3.816.234.562 | 3.364.852.878 |
| a.6) Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zerga | — | — |
| a.9) Ondare eskualdatze eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga | 8.302.299.869 | 9.543.297.361 |
| a.10) Balio erantsiaren gaineko zerga | 79.326.887.753 | 74.756.976.957 |
| a.11) Zerga bereziak | 10.104.096.591 | 8.671.272.906 |
| 2. Ohiko kudeaketatik datozen beste hainbat dirusarrera | 15.545.706.409 | 14.198.271.929 |
| a) Salmentak eta zerbitzu-emateak | 5.034.426.974 | 4.995.589.818 |
| b) Kudeaketatik datozen beste hainbat dirusarrera | 4.479.494.607 | 4.409.209.648 |
| d) Kapitalean parte hartzeagatiko dirusarrerak | 2.295.087 | 2.003.566 |
| e) Beste balore negoziagarri batzuetatik eta aktiboko ibilgetuaren kredituetatik datozen dirusarrerak | 6.029.489.741 | 4.791.468.897 |
| 3. Transferentziak eta dirulaguntzak | 19.861.993.146 | 18.180.946.281 |
| a) Ohiko transferentziak | 19.861.993.146 | 18.180.946.281 |
| 4. Irabaziak eta aparteko dirusarrerak | 8.399.132.897 | 5.348.410.547 |
| a) Ibilgetutik datozen mozkinak | 460.974 | 75.194.274 |
| c)Aparteko dirusarrerak | 8.027.278.681 | 3.761.401.421 |
| d) Beste hainbat ekitalditako dirusarrerak eta mozkinak | 371.393.242 | 1.511.814.852 |
| Saldo zorduna (Desaurrezkia) | — | 1.427.244.608 |
| GUZTIRA | 252.960.220.839 | 234.037.386.829 |

IV.3. GASTU-AURREKONTUAREN BETETZEA, KAPITULU EKONOMIKOKA 4.1. koadroa
(milaka pezetatan)

| Kapitulu ekonomikoa | Hasierako aurrekontua | Alda- ketak | Behin-betiko aurrekontua | Aitorturiko betebeharrak | Betetz. % | Aitor. % |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. Langileen gastuak | 79.015.554 | 1.250.169 | 80.265.723 | 78.335.928 | 97,6 | 30,9 |
| 2. Ohiko ond. eta zerb. gastuak | 22.742.060 | 657.365 | 23.399.425 | 22.396.534 | 95,7 | 8,9 |
| 3. Finantza-gastuak | 11.479.591 | 2.731.864 | 14.211.455 | 14.201.055 | 99,9 | 5,6 |
| 4. Ohiko transferentziak | 84.614.100 | 1.411.598 | 86.025.698 | 80.853.295 | 94 | 31,9 |
| **Ohiko eragiketak, guztira** | **197.851.305** | **6.050.996** | **203.902.301** | **195.786.812** | **96** | **77,3** |
| 6. Inbertsio errealak | 29.392.007 | (780.163) | 28.611.844 | 23.096.084 | 80,7 | 9,1 |
| 7. Kapital transferentziak | 25.068.401 | 4.591.172 | 29.659.573 | 27.231.958 | 91,8 | 10,8 |
| **Kapital eragiketak, guztira** | **54.460.408** | **3.811.009** | **58.271.417** | **50.328.042** | **86,4** | **19,9** |
| 8. Finantza-aktiboak | 2.994.751 | 3.272.205 | 6.266.956 | 6.225.362 | 99,3 | 2,5 |
| 9. Finantza-pasiboak | 29.000 | 759.478 | 788.478 | 781.018 | 99,1 | 0,3 |
| **Finantza-eragiketak, guztira** | **3.023.751** | **4.031.683** | **7.055.434** | **7.006.380** | **99,3** | **2,8** |
| **Gastuak, guztira** | **255.335.464** | **13.893.688** | **269.229.152** | **253.121.234** | **94** | **100** |

DIRUSARRERA-AURREKONTUEN BETETZEA, KAPITULU EKONOMIKOKA 4.2. koadroa
(milaka pezetatan)

| Kapitulu ekonomikoa | Hasierako aurrekontua | Alda- ketak | Behin-betiko aurrekontua | Aitorturiko eskubideak | Betetz. % | Aitor. % |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. Zuzeneko zergak | 107.790.000 | 50.000 | 107.840.000 | 111.420.104 | 103,3 | 43,3 |
| 2. Zeharkako zergak | 94.925.000 | — | 94.925.000 | 97.733.284 | 103 | 37,9 |
| 3. Tasak eta bestelako dirusarrerak | 6.715.334 | 17.723 | 6.733.057 | 9.459.059 | 140,5 | 3,7 |
| 4. Ohiko transferentziak | 15.361.835 | 522.648 | 15.884.483 | 19.861.993 | 125 | 7,7 |
| 5. Ondare dirusarrerak | 3.615.855 | — | 3.615.855 | 6.087.591 | 168,4 | 2,4 |
| **Ohiko eragiketak, guztira** | **228.408.024** | **590.371** | **228.998.395** | **244.562.031** | **106,8** | **95** |
| 6. Inbertsio errealak besterenganatzea | 1.378.957 | — | 1.378.957 | 547.806 | 39,7 | 0,2 |
| 7. Kapital transferentziak | 4.818.228 | 1.975.934 | 6.794.162 | 7.910.864 | 116,4 | 3,1 |
| **Kapital eragiketak, guztira** | **6.197.185** | **1.975.934** | **8.173.119** | **8.458.670** | **103,5** | **3,3** |
| 8. Finantza-aktiboak | 4.246.255 | 11.327.386 | 15.573.641 | 4.343.690 | 27,9 | 1,7 |
| 9. Finantza-pasiboak | 16.484.000 | — | 16.484.000 | — | — | — |
| **Finantza-eragiketak, guztira** | **20.730.255** | **11.327.386** | **32.057.641** | **4.343.690** | **13,5** | **1,7** |
| **Dirusarrerak, guztira** | **255.335.464** | **13.893.691** | **269.229.155** | **257.364.391** | **95,6** | **100** |

**GEHIGARRIAK.**

**1. GEHIGARRIA. FORU OGASUNAREN EKONOMI ETA FINANTZA EGOERA 1996KO ABENDUAREN 31n.**

Atal honetan Foru Ogasunak 1996ko abenduaren 31n duen ekonomi eta finantza egoeraren berri eman nahi dugu, ikuspegi hauetatik ikusirik:

•1996ko aurrekontu-betetzearen azterketa zehatza

• Foru Ogasunaren finantza-egoeraren azterketa

• Aurrekontu-agertokia noraino bete den.

Ondoren atera ditugun emaitzik nabarmenenak azalduko ditugu.

1.1. 1996ko AURREKONTUAREN BETETZEAREN AZTERKETA.

**1.1.1. Hasierako aurreikuspenak/aldaketak.**

1996ko aurrekontua 255.335 milioko gastuekin onartu zen, eta finantzaz besteko dirusarrera teorikoak 238.851 milioikoak ziren; beraz, kanpotik finantziatu beharreko kopurua 16.484 milioi zen, nahiz eta gero ez ziren beharrezkoak izan.

Aurrekontu honek eduki zituen aurrekontu-aldaketa garbiak 13.894 milioi izan ziren, hau da, hasierako aurrekontuko ehuneko 5,4. Alabaina, egiazko aldaketek 15.327 milioi jo zuten, horietatik 1.433 milioi gastu-gutxiagotzearekin finantziatzen diren arren. Kopuru hauetan ez dira sartzen egin diren aurrekontu-transferentziak, aurrekontuaren kopuru osoaren aldaketarik ez dakartenez.

Ondorengo koadroak 1991 eta 1996 urteen arteko aldaketa garbien ehunekoen bilakaera azaltzen du.

| Ekitaldia | aldaketen % |
|---|---|
| 1991 | 11,3 |
| 1992 | 2,5 |
| 1993 | 1,5 |
| 1994 | 3,3 |
| 1995 | 2,8 |
| 1996 | 5,4 |

Ikusten denez, Aurrekontuaren betetzea, zenbatekoen aldetik, nahiko ehuneko onargarrietan mantentzen da, eta hasierako aurreikuspenekiko dauden desbideraketak ez dira sobera nabarmenak, 1996ean gehikuntza gertatu bada ere.

Aldaketa garbi hauen zenbatekoa eta izaera, 1996ko aurrekontuan, ondoren adierazten dena da (milioi pezetatan):

| Aldaketa | 1995 | 1996 |
|---|---|---|
| Aparteko Kredituak | 86 | 311 |
| Kredituen osagarria | 2.236 | 5.235 |
| Kreditu gehikuntza | 3.027 | 6.242 |
| Kreditu gainerapena | 305 | 1.013 |
| Dirusarrerengatiko sorkuntza | 1.049 | 1.093 |
| Guztira | 6.703 | 13.894 |

Azpimarratzekoa da kreditu gehigarrien garrantzia, 6.242 milioi, aldaketa guztien %45 azaltzen baitute. Gehikuntzarik nabarmenena zor publikoaren korrituak finantzatzeko kredituaren gehikuntza izan zen, 2.450 milioi.

Kreditu-osagarrien artean nabarmenena Ekonomi eta Ogasun Departamentuari dagokio –3.000 milioi–,Nafinco, S.A. enpresa publikoaren kapital-gehikuntzari aurre egiteko hainbat bideragarritasun-plan burutzeko.

1. eranskinean aurrekontu aldaketen informazio zehatza jasotzen da, departamentuka eta kapitulu ekonomikoka.

**1.1.2. Aurrekontu-betetze ekonomikoa.**

Aitorturiko obligazioek 253.121 milioi egiten dute, aurreko ekitaldian baino ehuneko 5 gehiago.

Gastuak ehuneko 94an bete dira, hau da, 1995ean baino bi puntu gutxiago.

Kapituluka, ia ehuneko 100ean bete dira gehienak, inbertsioen kapituluan baino ez da gertatu betetzea ehuneko 81era jaistea.

Ondorengo koadroan azaltzen dira bai gastutalde bakoitzak bete den guztiarekin alderaturik daukan garrantzi erlatiboa, eta bai 1992 eta 1996 urteen bitartean izan den bilakaera:

| | % 1992 | % 1993 | % 1994 | % 1995 | % 1996 |
|---|---|---|---|---|---|
| Ohiko gastua | 70 | 74 | 73 | 76 | 77 |
| Kapital-gastua | 27 | 24 | 25 | 23 | 20 |
| Gastu finantzarioa | 3 | 2 | 2 | 1 | 3 |
| Guztira | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

Nahiko egoera egonkorra mantentzen da, nahiz eta 1996. urtean ohiko gastuek puntu bat gora egin duten eta finantza-gastuek bi puntu, kapital-gastuetan hiru puntu galtzetik datozenak.

5. koadroan gastu guztia azaltzen da, departamentuka, baita aurreko ekitaldiko gastuarekiko alderaketa ere.

Gastuak Departamentuka (milioi pezetatan) 5. koadroa

| Departamentua | 1995 urtea | Guztiaren % | 1996 urtea | Guztiaren % | Aldaketaren % |
|---|---|---|---|---|---|
| Parlamentua | 824 | 0,34 | 926 | 0,37 | 12 |
| Lehendakaritza | 12.724 | 5,28 | 15.887 | 6,25 | 25 |
| Ekonomi eta Ogasuna | 33.746 | 14,00 | 41.316 | 16,32 | 22 |
| Toki Administrazioa | 23.342 | 9,69 | 24.767 | 9,78 | 6 |
| Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu, eta Etxebizitza | 1.947 | 0,81 | 10.755 | 4,25 | 452 |
| Hezkuntza, Kultura, Kirol eta Gazteri | 46.220 | 19,18 | 51.328 | 20,28 | 11 |
| Osasuna | 58.247 | 24,17 | 61.715 | 25,38 | 6 |
| Herrilan, Garraio eta Komunikazioak | 17.821 | 7,40 | 13.217 | 5,22 | (26) |
| Nekazaritza, Abeltzaintza eta Herri Sustapena | 13.386 | 5,56 | 11.602 | 4,58 | (13) |
| Industri, Merkataritza eta Turismo | 10.579 | 4,39 | 7.453 | 2,94 | (31) |
| Gizarte Ongizate | 22.132 | 9,18 | 14.155 | 5,59 | (36) |
| Guztira | 240.968 | 100 | 253.121 | 100 | |

Azterketa honetatik ateratzen duguna da oinarrian gastuaren egitura mantendu egiten dela, Osasunak eta Hezkuntzak gastu guztiaren ehuneko 45 inguru egiten dutelako, aurreko ekitaldiarekin alderaturik ehuneko 6 eta 11 gehitu direla.

Hazkunderik handiena Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuan gertatu da, 1995ean Gizarte Ongizate Departamentuan zegoen Etxebizitza gaineratu zaiolako, 7.313 milioi. 1995ean Nekazaritza Departamentuan zegoen Oihan Antolamendu Atala eta Herrilanekoetan zegoen ur-baliabideen garapena ere gehitu zazkio Ingurugiro Departamentuari.

Dirusarrerez ari garela, aitorturiko eskubideek 257.364 milioi egin dute, hau da, ehuneko 0,9 gutxiago, aurreko ekitaldiarekin alderatuz gero (kontuan izan behar da, hala ere, 1995eko dirusarrerei egotzi zaizkiola zor-jaulkipenaren 23.000 milioi).

Dirusarreren betetze maila ehuneko 95,6 izan da. Kapituluka, tasak eta salneurri publikoak –ehuneko 140ko betetzearekin– eta ondare-dirusarrerak –ehuneko 168koarekin– nabarmentzen dira. Kontrako bidetik, finantza-aktiboak –ehuneko 27,9– eta inbertsio errealen besterenganatzea –ehuneko 39,7–.

Azkenik, esan dezagun zuzeneko eta zeharkako zergen oinarrizko kapituluen betetzea oso ona izan dela, bietan iritsi den betetze-ehunekoa 103 izan baita.

Zor publikoarengatiko dirusarreretan, 16.484 milioi aurreikusi baziren ere, ez zen zor-jaulkipenik gauzatu.

Dirusarrera-talde bakoitzaren pisu espezifikoa, aitortu den guztiarekin alderaturik, eta bakoitzaren 1992 eta 1996 urteen arteko bilakaera, ondorengo hau da:

| | % 1992 | % 1993 | % 1994 | % 1995 | % 1996 |
|---|---|---|---|---|---|
| Ohiko dirusarrera | 80 | 81 | 82 | 87 | 95 |
| Kapital dirusarrera | 2 | 2 | 1 | 2 | 3 |
| Finantza-dirusarrera | 18 | 17 | 17 | 11 | 2 |
| Guztira | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

Ikusten ahal denez, egoera nabarmen aldatu da 1995 eta 1996 urteetan, ohiko dirusarrerek pisu espezifikoa berreskuratu baitute –5 puntu 1995ean eta 8 puntu 1996an–, finantzarioek galdu egin duten biartean.

6 zk.ko koadroan departamentu bakoitzari dagozkion dirusarrerak eta 1995 urtearekiko alderaketa ikusten ahal dira.

Dirusarrerak departamentuka (milioi pezetatan) 6. koadroa

| Departamentua | 1995 urtea | Guztiaren % | 1996 urtea | Guztiaren % | Aldaketaren % |
|---|---|---|---|---|---|
| Lehendakaritza | 1.022 | 0,39 | 1.354 | 0,53 | 29 |
| Ekonomi eta Ogasuna | 243.198 | 93,59 | 235.784 | 91.61 | (3) |
| Toki Administrazioa | 4.616 | 1,78 | 6.068 | 2,36 | 31 |
| Ingurugiro, Lurraldearen Antol. eta Etxeb. | 439 | 0,17 | 1.679 | 0,65 | 282 |
| Hezkuntza, Kultura, Kirol eta gazteri | 1.219 | 0,47 | 2.696 | 1,05 | 121 |
| Osasuna | 1.166 | 0,45 | 1.234 | 0,48 | 6 |
| Herrilan, Garraio eta Komunikazioak | 1.092 | 0,42 | 3.824 | 1,49 | 250 |
| Nekazaritza, Abeltzainta eta Herri Sustap. | .1.835 | 0,70 | 1.946 | 0,76 | 6 |
| Industri, Merkataritza eta Turismo | 2.589 | 1,00 | 1.708 | 0,66 | (34) |
| Gizarte Ongizatea | 2.672 | 1,03 | 1.070 | 0,42 | (59) |
| Guztira | 259.848 | 100 | 257.364 | 100 | (1) |

Argi denez, Ekonomi eta Ogasun Departamentuaren nagusigoa mantentzen da dirusarreretan –ehuneko 92–, zor-jaulkipenaren 16.000 milioi ere jaso baititu.

Azpimarratzekoa da Lurraldearen Antolamenduko Departamentuaren gehikuntza, gastuen arloan azaldu den antolamendu-aldaketaren ondorioz, Gizarte Ongizate Departamentuaren kaltetan, Etxebizitza atera baita horretatik. Herrilanek izandako gehikuntza ere aipatu behar da, Europako Batasunetik etorritako fondoen ondorioz.

2 zk.ko eranskinean, eta informazioa zehaztasun-maila handiagorekin emateko, sailkapen ekonomikoaren araberako1996ko Aurrekontuaren betetzea aurkezten da, kapituluka eta artikuluka.

**1.1.3. Aurrekontuaren emaitza.**

Gobernuaren datuen arabera, Aurrekontuaren emaitzak (aitorturiko eskubideak, guztira, ken aitorturiko betebeharrak) 4.243 milioiko superabita aurkezten du. Aurrerago iruzkinduko ditugu magnitude honen alderik esanguratsuenak.

**1.4. Gastu-egoeraren betetze funtzionala.**

Hiru zk.ko eranskinean, 1996ko aurrekontu betetzea aurkezten da, sailkapen funtzionalaren arabera, eta aurreko ekitaldiekiko alderaketa.

Azterketa egin eta gero azpimarratu behar da “Izaera sozialeko ondasunen produkzioa” (batez ere osasungintza, irakaskuntza eta etxebizitza) gastu funtzionalaren ardatza dela –ehuneko 50–, eta zenbateko hau, gainera, urtero haziz doa –puntu bat 1995. urtearekin alderatuz–. Ondoren, “Sektore Publikoarentzako Transferentziak” (HItzarmena Estatuarekin eta Udalbatzak) eta “izaera ekonomikoko ondasunen produzkioa” (batez ere azpiegiturak) direlakoek gastuaren ehuneko 14 eta 9 azaltzen dute, hurrenez hurren, nahiz eta azkena bere garrantzia emeki emeki galtzen ari den

1.2. FORU OGASUNAREN FINANTZA-EGOERAREN AZTERKETA.

7. koadroan aurrekontuko zenbaki garrantzizkoenen bilakaera biltzen da, 1992tik 1996ra eta Nafarroako Gobernuak eman duen informazioaren arabera.

Aurrekontu atalen bilakaera 1992-1996 (milioi pezetatan) 7. koadroa

| | 1992 | 1993 | 1994 | 1995 | 1996 |
|---|---|---|---|---|---|
| Ohiko dirusarrerak | 173.067,2 | 189.154,1 | 190.373,5 | 227.262 | 244.562 |
| Ohiko gastuak | 161.238,8 | 174.681,3 | 166.786,5 | 183.101 | 195.787 |
| **Aurrezki gordina** | **11.828,4** | **14.472,8** | **23.587** | **44.161** | **48.775** |
| Ohiko dirusarreren gaineko aurrezki g. % | 6,8 | 7,6 | 12,4 | 19,4 | 19,9 |
| BPG gaineko aurrezki gordinaren % | 1,3 | 1,5 | 2,4 | 3,9 | 4,1 |
| Kapital dirusarrerak | 4.503 | 5.787,8 | 3.821,8 | 5.345 | 8.459 |
| Kapital gastuak | 62.223,8 | 56.292,2 | 56.627,6 | 54.635 | 50.328 |
| **Finantziatu beharrekoa** | **(45.892,4)** | **(36.031,6)** | **(29.218,8)** | **(5.129)** | **6.906** |
| Finantzaz besteko dirusarreren g. FBren % | 25,8 | 18,5 | 15,1 | 2,2 | – |
| BPGren gaineko FBren % | 5,1 | 3,9 | 2,9 | 0,5 | – |
| **Epe luzean metaturiko zorra** | **40.859,8** | **76.591,1** | **110.123,2** | **133.186** | **128.944** |
| Dirusarrera ez finantzarioen g. zorraren % | 23 | 39,3 | 56,7 | 57,3 | 52,7 |
| PBGren gaineko zorraren % | 4,6 | 8,2 | 10,1 | 11,8 | 11,2 |
| **Estat. kargei ematen zaien ekarpena** | **27.374** | **28.318,8** | **13.765,3** | **21.164** | **18.699** |
| Dirusarrera ez finantz. g. ekarpenaren % | 15,4 | 14,5 | 7,1 | 9,1 | 7,6 |
| PBGren gaineko ekarpenaren % | 3,1 | 3 | 1,4 | 1,9 | 1,6 |

Aurrezki gordina: Ohiko dirusarrerak-ohiko gastuak
Finantzazio beharra: Aurrezki gordina + kapital dirusarrerak –kapital gastuak

Azterketa egin eta gero, hona azpimarratu nahi duguna:

• Aurrezki gordinak –ohiko dirusarreren eta gastuen arteko diferentziak– gorantza duen joerari eutsi egiten zaio, bai zenbateko osoak aintzat hartuz, baita Foru Komunitateko BPGren eta ohiko dirusarreren ehunekoen gainean.

• Finantziatu beharrekoa edo defizita desagertu egin da 1996an, aurreko lerroaldean esaten denaz gain, eta, beraz, administrazio guziendako aurreikusita zegoen konbergentzia-helburua, BPGren gaineko ehuneko 0,2, bete egin da.

• Epe luzeko zorrak 133.186 milioi pezeta jo zituen 1995ean, eta 128.944 milioira jaitsi da 1996an, hau da, aurreko ekitaldian baino 4.242 milioi gutxiago.

• Azkenik, ondorengo koadroan alderatu dira 1994-1996 aldirako, epe laburreko zordunen eta epe laburreko betebeharren arteko harremana (milioi pezetatatan). bai Nafarroan eta bai Estatuko Administrazioan, eta emaitzak ondorengo hauek dira:

| | 1994 | 1995 | 1996 |
|---|---|---|---|
| Epe laburreko zordunak | 32.192 | 26.342 | 23.638 |
| Aldi baterako inbertsio finantzarioak | 25.056 | 53.274 | 64.765 |
| Diruzaintza | 12.067 | 248 | (211) |
| Epe laburreko hartzekodunak | (63.316) | (59.055) | (66.391) |
| Ibilkorraren superabita | 5.999 | 20.809 | 21.801 |

Hitz batez, ibilkorrak nabarmen egin du gora 1995ean, dirusarrera likidoak nabarmen igotzen direlako, (pasiboak eskuratzea eta zerga izaerakoak, batez ere), eta 1996an ere, beste pasibo batzuk eskuratu beharrik gabe. Erabilgarri honen zati handia, abenduaren 31n, aldi baterako inbertsio finantzarioen barruan sartuko litzateke

Erabilgarritasun hauek eta zerga-dirusarreren joerari eusteak bidezko egin dezake zor publikoaren amortizazio-planak aurreratzea komenigarria ote den aztertzea.

1.3. AURREKONTU AGERTOKIA.

Monetaren Batasun Ekonomikoaren hirugarren fasera sartu ahal izateko beharrezkoa da, Maastricht-eko Itunak azaltzen duen bezala, konbergentzia ekonomiko-maila bat lortzea, eta honek eskatzen du, beste hainbat adierazleen artean, finantza publikoak ukitzen dituzten bi adierazle ezartzea: defizita edo finantziatu beharrekoa ez izatea BPGren ehuneko 3 baino gehiago eta zor publikoaren bolumena ez izatea BPGren ehuneko 60 baino handiagoa.

Bi helburu hauek lortzearren, Administrazio Publiko guztiek Aurrekontu-agertokia taxutzen dute, 1992 eta 1996 urteen artekoa.

Haatik, egoera ekonomikoak, batez ere 1992ko bukaeran hasi zen atzerapenak, aurre-

kontu-agertokian aurreikusitako helburuak lortzea eragotzi egin du; hortaz, helburuak doitu eta berrikusi egin dira aurrekontu-agertoki berri bat egiteko. Administrazio Publiko guztiei aplikatuko zaie, 1995ean izenpetu zen, 1997 urtera arte irauteko.

8 zk.ko koadroan Foru Komunitateko Administrazioari dagozkion zenbatespenak bildu ditugu

1995-1997 aurrekontu agertokia (milioi pezetatan) — 8. koadroa

| | 1995 | 1996 | 1997 |
|---|---|---|---|
| Finantzaz besteko dirusarrerak | 209.423 | 226.729 | 244.397 |
| Finantzaz besteko gastuak | 232.460 | 243.213 | 253.305 |
| **Finantziatu beharrekoa edo defizit** | **23.037** | **16.484** | **8.908** |
| Finantzaz besteko dirusarreren g.ko % | 11 | 7,3 | 3,6 |
| **Zorra** | **134.660** | **152.744** | **162.452** |
| Finantzaz besteko dirusarreren g.ko % | 64,3 | 67,4 | 66,5 |

Ondoren, eta 1996 urterako, aurrekontu betetzearen ondoriozko egiazko datuak eta aipatu agertokian islatzen ziren aurreikuspenak alderatuko ditugu (milioi pezetatan)

9. koadroa

| | Agertokia | Betetzea | Alderaketa |
|---|---|---|---|
| Finantzaz besteko dirusarrerak | 226.729 | 253.021 | |
| Finantzaz besteko gastuak | 243.213 | 246.115 | |
| Finantzatu beharrekoa (FB) | 16.484 | (6.906) | |
| FBk finantzaz besteko dirusarreretan egiten duen % | 7,3 | - | Bai |
| Zorra (Z) | 152.744 | 133.186 | |
| Zk finantzaz besteko dirusarreretan egiten duen % | 67,4 | 52,7 | Bai |

Foru Ogasun Publikoak bete egin du, beraz, aurreikusitako aurrekontu-agertokia, batez ere finantzaz besteko dirusarrerek eduki duten gehikuntza handiari esker. Finantzaketa-beharrizanik ez dago eta zorrak aipatu dirusarreren gainean duen portzentaia 52,7 da, agertokiak aurreikusitako ehuneko 67,4a baino apalagoa.

**Ondorio** bezala, 1996. urtean finantza publikoek ezarri diren aurrekontu-zorroztasuneko neurriei egoki erantzun dietela esan dezakegu. Hala ere, ez da ahantzi behar erantzun egoki honen alde etorri dela ekitaldiko egoera ekonomiko ona –zerga-dirusarrerak handiagoak izatea ekarri duena–, zeren, beste aldetik, finantzaz besteko dirusarrerak agertokikoak aurreikusitakoa baino 2.902 milioi gehiago izan baitira.

Hori dela eta, hala gastuaren saneamendu eta murrizketarako nola baliabideen izendapen eta kudeaketarako neurriak aplikatzen segitu behar da. Horrek ekarri behar du Nafarroako Gobernuak aurrera eramaten dituen politika eta programa guztien aldizkako berrazterketa sistematikoa eta egituratua, arrazoizkoak eta egokiak ote diren analizatzeko, eta oihartzun ekonomikoa eduki dezakeen edozein jarduketa publikori ekin baino lehen, aurrekontuaren aldetik balorazioa egin beharra derrigorrez bete beharreko arau gisa sartzea.

Neurri horiek hartzeak, 1995eko Kontuei buruzko txostenean esaten zen bezala, eraginkortasun handiagoa izango luke denak batera hartuko balira aintzat epe ertaineko jarduketa plan baten barruan, gizarte guztia ukituko zuena eta aurrekontu-izaerako ekintzak, zerbitzuen antolakuntza-ekintzak, langileriaren politikari buruzkoak eta zerga-izaerako ekintzak bilduko zituena, eta, beharrezkoa izanez gero, hainbat funtzio edo jardueren arauak aldatzearen aldeko ekintzak ere, zeinak, noski, Parlamentuaren babes nahikoa beharko lukeen.

## 2. GEHIGARRIA. BALANTZEAREN AZTERKETA ETA AZTERLARITZA.

Iruzkindu bezala, 1996ko Balantzea eta Emaitza Kontua –eta 1995ekoekin alderatzea– Kontabilitate Plan berrian ezarritako eskema eta eta kontzeptu terminologiko berrien arabera aurkeztu dira.

Ondoren jarriko ditugu egindako lanetik ateratzen diren alderdirik behinenank, aurkezteko eskema berriarekin bat.

2.1. AKTIBOA.

**2.1.1. Ibilgetu materiala.**

Azpitalde honen saldoak ondoren erakusten den bilakaera izan du (milioi pezetetan)

| I. Materiala-Ez materiala | 1995/12/31 | 1996/12/31 |
|---|---|---|
| Lursailak eta eraikinak | 65.218 | 70.387 |
| Instalazioak | 5.010 | 5.330 |
| Tresneria eta altzariak | 13.547 | 15.112 |
| Beste hainbat ibilgetu | 12.653 | 13.367 |
| Guztira | 96.428 | 104.196 |

Hau da, saldoaren gehikuntzak 7.768 milioi jotzen du, hau da, ehuneko 8ko gehikuntza. Honen arrazoia lursailetan eta beste eraikinetan bilatu behar da.

Goian esandako ibilgetua, Oroit-idazkiak dioenaren arabera, Foru Komunitatearen Administrazioaren –76.965 milioi– eta bere erakunde autonomoen artean banatzen da, ondoren aipatzen den banketaren arabera (zenbatekoa milioitan):

| EA | Zenbatekoa |
|---|---|
| (NGOI) Nafarroako Gizarte Ongizate Institutua | 1.971 |
| (O-NOZ) Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua | 23.833 |
| (NMEZ) Nafarroako Mahastilan eta Enologi Zentroa | 640 |
| (NAPI) Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutua | 162 |
| (NKGI) Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutua | 509 |
| (NLOI) Nafarroako Lan Osasunaren Institutua | 116 |
| Guztira | 27.230 |

Arlo honetako lanak ondorengo gorabehera hauek hartu ditu kontuan:

a) Kontabilitateari buruzkoak, ibilgetuaren erregistroa eta Inbentarioaren egungo egoera.

b) Aurrekontu-kontabilitate eta kontabilitate orokorraren arteko berdinkatzea.

c) Ibilgetuko bajen azterketa.

Ondoren atera diren ondorioak eta interesguneak aipatuko ditugu, aurreko ekitaldiei buruzko txostenean eman zirenen oso antzekoak direla aurretik esanda:

**A)** Inbentarioa eta kontabilitatea.

Ibilgetuaren kontu iragankorren azterketa eta arazketa egin gabe daude, eta hau ezer baino lehen egitea beharrezkoa da, ondare-masa honen kontu behin betikoek Nafarroako Gobernuaren ondasun-multzoa egoki islatuko badute.

Ez da definitu kontabilitatea eta higiezinen inbentarioaren arteko lotura egiteko metodoa, eta berau beharrezkoa da inbentarioa etengabe eguneratua eduki ahal izateko.

Inbentarioari dagokionez, hauxe esan behar:

• Ondasun higiezinei buruzko datuak osatu eta garbitzeko lanak aurrera darrai eta arreta berezia egiten zaio katastroko informazioarekin koordinatzeari eta aipatu ondasunen egoera juridikoari buruzko arazoak konpontzeari.

• Ondasun higigarrien inbentarioa eguneratu eta txukuntzeko lanak bigarren aldirako atzeratu dira.

• Inbentarioaren aplikazio informatikoak ez du balio kudeaketa egokia egiteko. Arduradunek diotenez, beste aplikazio bat taxutu behar da, informazio-beharrizanei egokitzeko eta zuzeneko ustiapena ahalbidetzeko.

**B)** Aurrekontu-kontibilitatea eta kontabilitate orokorra berdinkatzea.

• Ibilgetu-kontuetako altak bat datoz, oro har, aurrekontuari egotzitako inbertsio-gastuekin.

• Kontuotako bajak, funtsean, inbentarioan sartu ezin diren inbertsioen erregularizazioari dagozkio, eta neurri apalagoan, ibilgetua saltzeari eta erresultak deusezteari. Prezioa geroratu zaien salmentak, urtealdi bakoitzaren epemuga zein ekitalditan, orduko dirusarrera-aurrekontuan jasoko dira.

**C)** Ibilgetuko bajak.

Ibilgetuko bajak hurrengo kontzeptuei dagozkie (kopurua milioi pezetatan dago):

| | |
|---|---|
| Lursailak eta eraikinak saltzea | 463 |
| Ibilgailuak saltzea | 4 |
| Industrialdeak saltzea | 453 |
| Guztira | 920 |

Ibilgetuko baja edo salmenten prozedura aztertu eta hurrengo **ondorioak** atera ditugu:

**1.go.** Ez dago ondarearen kontabilitate-balioari buruzko irizpide argirik, ez erosketan ez salmentan, ez eta kontabilitate-erregistro eta egiaztatzea egiteko prozedura egokirik ere.

**2gn.** Aurreko lerroaldean esan dugunaren ondorioz gerta daiteke aurretik erregistratu gabeko ondasunei baja ematea. Batzuetan eskuratze-balioa erabiltzen da baja erregistratzeko eta bestetzuetan, salmenta-balioa.

**3gn.** Lursailen bajatzat kontabilizatu diren 242 milioi mailegu-itzulketa bati dagozkio, 2.1.2 atalean jasotzekoak, beraz.

**4gn.** Industrialdeen kostuen kontrolerako prozedura egokia ezarri beharraz, salneurria egoki zehaztu ahal izateko.

**Ondorioz**, eta lehen esan dugunarekin bat etorriz, ezin dezakegu iritzirik eman ibilgetu material eta ez materialen saldoei buruz, hau da, saldo hauek 1996ko abenduaren 31n Nafarroako Gobernuaren jabetzapeko izaera honetako ondasunen berri egoki ematen duten ala ez.

Horregatik Ganbara honek berriz dio beharrezkoa dela Nafarroako Gobernuak inbentario egoki osatua izatea, beren finantza-egoerek Gobernuaren jabetzapeko ondasunak zeintzuk diren ahalik eta fidelen jakinaraz dezaten.

Gure gomendioak:

*• Nahi den inbentario-eredutik abiatuz, prozedura orokorrak garatzea, aplikatu beharreko irizpide teknikoak ezartzea eta beharrezkoak diren giza eta gauzazko baliabideak paratzea.*

*• Inbentarioaren eta kontabilitate-sistemaren arteko koordinazio egokia ziurtatuko duten mekanismoak ezartzea, inbentarioa beti eguneratua egon dadin.*

*• Ibilgetuaren kontabilitate-saldoak arazteari ekitea, hauek errealitatea ongi isla dezaten.*

*• Industrialdeen kostuen kontrolerako prozedura egokia ezarri.*

**2.1.2. Finantza-inbertsio iraunkorrak.**

Ondare-masa honek ondoren adierazten den bilkaera izan du (milioi pezetatan):

| Finantza-ibilgetua | 95/12/31 | 96/12/31 | Aldaket. % |
|---|---|---|---|
| Epe luzeko balore-kartera | 18.675 | 21.770 | 16,6 |
| Epe luzeko beste hainbat inbertsio | 22.274 | 20.690 | (7,1) |
| Guztira | 40.949 | 42.460 | 3,7 |

Hau da, aldaketa garbiak ehuneko 3,7ko gehikuntza erakusten du, aurreko ekitaldiarekiko: epe luzeko baloreen kartera 16,6 gehitu da eta bestelako inbertsioak eta epe luzeko maileguak ehuneko 7,1 gutxitu dira.

Ondorengo koadroan, eta informazioa gehiago garatzeko asmoz, aurreko bi kontzeptuak banakatuko ditugu:

| Finantza-ibilgetua | 1995/12/31 | 1996/12/31 |
|---|---|---|
| Sektore publikoko inbertsioak | 18.439 | 21.534 |
| Sektore pribatuko inbertsioak | 236 | 236 |
| Sektore publikoari eginiko maileg. | 13.966 | 13.313 |
| Sektore pribatuari eginiko maileg. | 8.308 | 7.377 |
| Guztira | 40.949 | 42.460 |

• “Sektore publikoko inbertsioak”. 3.095 milioi pezeta gehiago dago, hurrengo inbertsioen ondorioz:

a) Nafincoren kapital-gehikuntza, 3.000 milioi pezeta.

b) “Terminal de Transportes de la Comarca de Pamplona, S.A.”ren kapital-gehikuntza, 70 milioi.

c) “Navarra de Medio Ambiente Industrial, S.A.”ren kapital sozialaren ehuneko 100 harpidetzea: 25 milioi pezeta.

• “Sektore publikoari eta pribatuari eginiko mailegu”etan 1.584 milioi garbi gutxiago dago. Mailegu hauetatik ondoren aipatuko ditugunak dira azpimarratzekoak; izan ere, beroriek dira 1.000 milioi baino gehiago jotzen dutenak:

| Maileguak | (milioitan) |
|---|---|
| Iruñeko Udalari eginiko mailegua | 2.260 |
| Birlandatzeko maileguak | 2.525 |
| Enpresa publikoak (Riegos) | 2.610 |
| Funtzionarioen montepioak | 2.467 |
| Ikerketa eta garapena | 1.429 |
| Krisialdiko enpresak | 1.645 |

Ganbarak egin duen lanetik eta Gobernuko Auditoria Atalak egin dituen txostenetatik mailegu eta aurrerakin hauei buruzko informazio hauek aterako ditugu:

a) Ikus ahal izan da gastu eta dirusarreren aurrekontuko “Finantza-aktiboen gehikuntza eta gutxitzeak” izeneko 8. kapituluko ia aurrekontulerro guztiak finantza-ibilgetuko kargu edo abonu gisa aplikatu direla. Kontuok, hortaz, aurrekontutik datozenak baino kargu eta abonu handiagoak dituzte, hurrengo eragiketen ondorioz: ordainketa geroratu zaizkien ibilgetu-salmentak, banaketen kontuaren bidez eginiko maileguak, lagapenak, trukeak eta zuzenketak.

b) Finantza-ibilgetuko kontuon mugimenduak aztertuz gero, 700,4 milioi pezetako baja gertatu da emaitzen (galeren) kontura, horra zehaztasuna:

| | |
|---|---|
| TRW/Taboada maileguaren permuta | 25 |
| Funverari mailegua barkatzea eta Nafincori aldatzea | 100 |
| Graficas Estellaren mailegua barkatzea eta Nafincori aldatzea | 550 |
| Kobratu gabeko korrituak, Vinsa (amortizazio aurreratua) | 0,8 |
| Taboadaren abalak arautzea | 24,6 |
| Guztira | 700,4 |

Baja horien zatirik handiena, 675 milioi pezeta, Nafinco enpresarendako laguntzei dagokie baina ez dira horrela kontabilizatu aurrekontuetan, eta ez dira Gobernuaren oroit-idazkian zehazten.

Nafinco enpresak izandako galerak gutxitzeko erabili den prozedura, 1996ko Aurrekontuei buruzko Legeko seigarren xedapen gehigarriaren babesean, enpresa horrentzako edo, zeharka, enpresa horrek partaliertzen dituenentzako laguntza da, 675 milioi egiten duena.

c) Idazpen akastunak dituzten kontuak edo iraungitako eta itzuliezinezko mailegu-kontuak erregularitzatu beharra dago.

Hitz batez, goian esandakoek nabarmen uzten dute zalantza handiak daudela mailegu eta aurrerakinetan egindako inbertsio finantzarioen kobrantzagarritasunari buruz eta hauek zenbat egiten dutenari buruz. Egoera honek galarazi egiten digu, beraz, aurreko saldoen arrazoizkotasunaren gainean iritzirik ematea.

Gure gomendioak:

*• Saldoak aztertu eta arazteko prozesuarekin segitzea, ondare-masa honek izaera honetako inbertsioak behar bezala isla ditzan.*

*• Kobrantza-kudeaketarako prozedurak azkartzea, behar izanez gero bide betearazlea erabiliz.*

*• Kontu eta arreta berezia ematea ondare eta finantza-egoera zailean dauden enpresetan finantza-inbertsioen metatzeari.*

*• Nafarroako Gobernuak bere enpresa publikoei zorrak barkatzea eta lagatzeari uko egitea, dirulaguntzak emateko modu iluna delako. Eragiketok, edonola ere, oroit-idazkian agertu behar dira.*

**2.1.3. Hainbat ekitalditan banatu beharreko gastuak.**

Bilakaera honako hau izan da (milioi pezetatan)

| Hainbat ekitalditan banatu beharreko gastuak | 95/12/31 | 96/12/31 |
|---|---|---|
| Geroratutako finantza-gastuak | 261 | 131 |

Txikiagotzea 127 milioi izan da. Txikiagotze hori Nafarroako zor bereziaren amortizaziotik dator, eta bere jatorria da aipatu zor horren poltsaratze-balioaren eta jaulkitze-balioaren artean dagoen aldea.

Gastu hauek aipatu zorraren amortizatze-planaren arabera egozten zaizkie emaitzei, urtero.

**2.1.4. Izakinak.**

Bere saldoaren bilakaera hauxe izan da (milioi pezetatan)

| Izakinak | 1995/12/31 | 1996/12/31 |
|---|---|---|
| Nafarroako Ospitalea | 108 | 125 |
| Bideko Ama Birjina Ospitalea | 158 | 170 |
| Ubarmin Klinika | 24 | 22 |
| Anbulategiak | 26 | 20 |
| Tuterako barrutia | 80 | 68 |
| Lizarrako barrutia | 63 | 65 |
| Oinarrizko Laguntza | 77 | 69 |
| Guztira | 536 | 540 |

Hau da, izakinen barruan Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzutik (O-NOZ) datozenak baizik ez dira sartzen. 1995. urteari dagokionez, 4 milioi gehiago izan dira.

Izakinen izaerari bagagozkio, azpimarragarrienak “botikagaiak” dira –210 milioi– eta “kontsumorako osasun-materiala” –242 milioi–.

**2.1.5. Zordunak.**

Haien saldoak bilakaera hau izan du (milioi pezetatan):

| Zordunak | 1995/12/31 | 1996/12/31 |
|---|---|---|
| Aurrekontuetakoak | 53.781 | 54.179 |
| Administraziokoak eta bestelako ente publikoetakoak | 743 | 321 |
| Bestelako zordunak | 265 | 225 |
| Zordunen hornidura | (28.447) | (31.086) |
| Zordunak, guztira | 26.342 | 23.639 |

Alegia, Foru Ogasunaren aldeko eskubideak 2.703 milioi gutxitu dira, hots, ehuneko 10.

Hala ere, Foru Ogasunaren aldeko zorren benetako zenbatekoa zehazteko, zordunen kontuak pasiboan agertzen direnekin erlazioan jarri behar dira, hots, haien saldo hartzekodunekin –fiskalekin eta banaketa kontuekin–. Zehazki,

| | 1995/12/31 | 1996/12/31 |
|---|---|---|
| Zordunak | 26.342 | 23.639 |
| Zordunak– Saldo hartzekodunak | (22.854) | (24.768) |
| Banaketa kontu hartzekoduna | (587) | (933) |
| Guztira | 2.901 | (2.062) |

Atal honetan bakarrik ikusiko ditugu aurrekontu zordunak eta bestelako ente publikoen baliabide-

en administraziokoak, hurrengoan “bestelako zordunei” dagozkienak iruzkinduko direlarik.

Eskubide horietariko gehienen trataera eta jarraipena hirugarrenen kontabilitate laguntzaileko sistemaren bidez egin da. Horrek Kontabilitatea-SGEFi (ekonomia– eta finantza-kudeaketarako sistemari) ematen die informazioa. Bi sistemak koadratu dira, hirugarrenen kontabilitate laguntzaileak kudeaturiko zor guztiak kontabilitateari eskualdatu zaizkiola egiaztatzeko.

**“Aurrekontu-zordunak”** kontua honela sailkatzen da (milioi pezetatan):

| Aurrekontu-zordunak | 1995/12/31 | 1996/12/31 |
|---|---|---|
| Kontabilitate-zentroetan | 2.643 | 2.396 |
| Ohiko Kudeaketan | 13.318 | 10.902 |
| Luzapenarekin | 13.643 | 13.057 |
| Premiamendu bidean (ohikoak eta frakziodunak) | 26.366 | 29.091 |
| Aurrekontuetako aldez aurreko dirusarrerak | (1.977) | (1.150) |
| Kobrantzak eta aplikatzeke dauden sortak | (212) | (117) |
| Honaino, guztira | 53.781 | 54.179 |
| Ohikoak, saldo hartzekoduna | (22.854) | (24.768) |
| Zordunentzako hornidura | (28.447) | (31.086) |
| Guztira, garbi | 2.480 | (1.675) |

• “Eskubide aitortuak, zentro kontableetan” izenekoaren saldoa, 1996ko ekitaldia ixterakoan, 2.396 milioi pezeta da, aurreko urtekoa baino ehuneko 9 gutxiago kontuari buruz.

Saldoa, alde batetik, eta bestetik, kontabilitate-zentroek Ekonomi Eta Ogasun Departamentuari bidali dioten egiaztagiritza alderatuz gero, saldoaren ehuneko 21 justifikatu gabe dagoela esan behar da –ehuneko 88 NGOIri dagokio eta ehuneko 12 Tuterako Osasun Barrutiari– eta justifikatu den saldoaren ehuneko 12an zorduna identifikatu gabe dagoela.

Auditoria Atalak 1995ean kontuari buruz egindako txostenaren ondorioek indarrean diraute:

1go. Orokorrean, zentroek egoki kontrolatzen dituzte zor hauek, gorabehera hauek hobetu behar badira ere:

a) Zordunak egokiro identifikatzea.

b) Kobratu gabe dauden zorrak Ekonomi eta Ogasun Departamentura garaiz igortzea.

2gn. Preskribaturik edo preskribatzeke dauden zorrei dagokienez:

a) Ekonomi eta Ogasun Departamentura eramatea, zorduna guztiz identifikaturik. Eskubide pribatuko zorrak badira, kobratzeko kudeaketak arintzea, eta, hala bada, Gedesa enpresa publikoaren edo Gobernuko Aholkularitza Juridikoaren, edo bien, lankidetza eskatzea.

b) Preskripzioaren kasuan, zio eta guztizko txostenarekin igortzea Ekonomi eta Ogasun Departamentura.

3gn. Ekonomi eta Ogasun Departamentuak eskubide horien kobrantzari buruzko arauak prestatzea.

4gn. Departamentu bakoitzeko organo kudeatzaileen eta zentro kontablearen arteko koordinazioa bultzatzea, zordunen kontrol handiagoa sustatzearren.

*Gure gomendioa da aurreko neurriak hartu eta aplikatzea.*

• “Zordunak ohiko kudeaketan” kontu-multzoak 10.307 milioiko saldu zorduna du eta 24.732 milioiko saldo hartzekoduna.

“Izaera fiskaleko zordunetan” egindako lana, Hirugarrenen Kontabilitate Laguntzailearen zorrak kontabilitatera eskualdatu direla egiaztatzea izan da, alde batetik eta, bestetik, zerga figura nagusien oharterazpenen kontabilitate egokitasuna aztertzea –bai kontu zordunetan, bai kontu hartzekodunetan–, haren arrazoizkotasuna aztertzeko. Lorturiko emaitzak hauxek izan dira:

a) PFEZeko zordunak. Azkeneko saldo garbia 1.383 milioikoa da. Saldo zordunek 2.198 milioi eta saldo hartzekodunek, 816 milioi egiten dute.

Hirugarrenen Kontabilitate Laguntzailea eta SGEF alderatu dugu eta 1,5 milioiko alde txikiari antzeman diogu, aurreko ekitaldietatik heldu dena.

Saldo zordunak. Hamar milioitik goitiko saldoak aztertu ditugu eta arrazoizkoak direla atera.

Saldo hartzekodunak. Bost milioi baino gehiago egiten duten saldoak aztertu ondoren, laginaren ehuneko 65a oker dagoela atera dugu.

b) Sozietateen gaineko zergako zordunak. Azkeneko saldo garbia 2,424 milioikoa da. Saldo zorduna 4.430 milioikoa da eta saldo hartzekoduna, 2.006 milioikoa da.

Saldo zordunak. 50 milioitik goitikoen gainean laginketa bat egin da. Saldo zordunaren ehuneko 52ari dagokio. Emaitza balekoa izan da.

Saldo hartzekodunak. 10 milioitik beheitiko zenbatekoak aztertu dira. Ondorio gisa, saldo horien ohartarazpen kontableek akats ugari dutela atera dugu. Ehuneko 71ari eragiten dio.

c) Ondarearen gaineko zergako zordunak. Saldo garbia 39 milioikoa da, 170 milioiko saldo zordunaren eta 131 milioiko saldo hartzekodunaren emaitza.

Saldo zordunak. Bi milioitik goitiko saldoen lagina –alegia, saldoaren ehuneko 57 – azterturik, ikusi da akats ugari dagoela, eta horren ondorioz, saldoaren kopuruaren ehuneko 25, gutxienez, gaizki dagoela, 1996ko abenduaren 31rako.

Saldo hartzekodunak. Milioi batetik gorako zenbatekoen lagina azterturik –alegia, saldoaren ehuneko 61–, ikusi da akats ugari dagoela, eta horren ondorioz, saldoaren kopuruaren ehuneko 50, gutxienez, gaizki dagoela, 1996ko abenduaren 31rako.

d) BEZen zordunak. Azkeneko saldo garbia (18.463) milioikoa da. Saldo zorduna 2.772 milioikoa da eta saldo hartzekoduna 21.243 milioi. Hirugarrenen Kontabilitate Laguntzailearen eta SGEFren arteko aldea 8 milioi da.

Saldo zordunak. Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoaren ondoriozko joan-etorriak kontabilitzatzeko erabili idazpenak aztertu ondoren egiaztatu ahal izan dugu BEZen doiketaren laugarren hiruhilekoari dagokion kopurura kontabilizatu gabe dagoela, 5.000 milioi inguru.

Beste alde batetik, 25 milioi pezeta baino gehiago diren saldo hartzekodunen lagina, kontuaren saldo zordunaren ehuneko 13, aztertu eta emaitza balekoa izan da.

Saldo hartzekodunak. 50 milioitik goitiko saldoak aztertu dira. Nabarmentzekoa da:

1go. Konpentsatu beharreko BEZ osoa. Urtero ekitaldi bakoitzari dagokion ordainketa edo kobrantzarik sortzen ez duten hartuak erregistratzeko. 1994an hornitu zen lehenbizikoz. Horregatik izen hori duten hiru kontu oinarrizko daude. Hona hemen haien saldoa (milioi pezetatan), 1996ko abenduaren 31n:

| Ekitaldia | 1996/12/31 |
|---|---|
| 1994 | (10.811) |
| 1995 | (1.338) |
| 1996 | (4.467) |
| Guztira | (16.416) |

Saldo osotu horrek ondorengo zergaldietan bilduko ez den edo zordunek kobrantza eskatzen badute itzuli beharko den BEZ kontzeptuko kantitatea azaltzen du. Zerga honetako saldo hartzekodunen ehuneko 77 egiten du.

2gn. Saldo hartzekoduna 50 miliotik gora duten gainerako kontuetan, berriz, bi zergaduni dagozkion (483) milioi pezetako saldoak –osoko BEZaz bestelako saldo hartzekodunen ehuneko 10– erregularizatu behar dira; eta (136) milioi pezeta jotzen duen saldoa preskribaturik ote dagoen aztertu behar da, eta ondorioz, erregularizatu beharra ote dagoen.

e) Fabrikazio-zerga berezietako zordunak. Haren azkeneko saldo garbia 36 milioikoa da. Haren saldo zorduna 42 milioikoa da eta hartzekoduna, 78 milioikoa.

1,5 milioi baino gehiagoko saldo zordunak aztertu –saldo positiboen ehuneko 85–, eta zuzenak direla ateratzen da.

Saldo hartzekodun guztiak aztertu ditugu, eta ondorioa da kontuaren zati negatiboaren ehuneko 94 oker dagoela eta erregularizatu egin behar dela.

f) Ondoretza-zergaren zordunak. 12 milioiko saldo hartzekoduna, izaeraren kontrakoa. 1997an erregularizatu da.

g) Jokuaren gaineko zerga tasaren zordunak. Haren saldo hartzekoduna 235 milioikoa da, tasaren izaerarekin bateraezina dena. 187 milioi jotzen duten saldo zordunen eta 422 milioi jotzen duten saldo hartzekodunen emaitza da.

Ondorioa da saldoa ez dela arrazoizkoa eta doitu egin behar dela.

h) “Garraiobideen gaineko zergaren zordunak”. Saldo garbia 69 milioi pezeta da, 88 milioiko saldo zordunetik eta 19 milioiko saldo hartzekodunetik aterea.

Ibilgailuak matrikulatzeko erabili prozeduraren ondorioz, ez litzateke saldo zordunik ez hartzekodunik izan behar, hurrengo salbuespenekin: esportazioaren ondoriozko itzulketa edo Kudeaketa Ataletik egindako kitapenak.

Saldo hartzekodunak. 250.000 pezetatik beherakoak aztertu dira (zenbateko hori saldo hartzekodunen ehuneko 56) eta atera den ondorioa da lagineko zenbatekoaren ehuneko 78 oker dagoela, hau da, sado hartzekodunaren guztizkoaren ehuneko 44 da.

Zordun saldoak. Kontuaren zordun saldoaren ehuneko 28a den zenbatekoa osatzen duten sal-

doak aztertu dira, eta atera den ondorioa da aztertu diren 18 saldoetatik 14 oker daudela, hain zuzen ere ordainketa egotzi zaielako dagokionaz besteko aldi bati.

i) Nafarroako Gobernuaren Ikuskapen Atalak kudeaketa arrunteko –hau da ondare, luxu, oinordetza eta jokuaren gaineko zerga-tasa– agerian jartzen da kudeaketa akats eta arazo ugari daudela, eta aholku puntualak egiten dira aztertutako zordun kontuetako bakoitzean, haiek hobetu nahian.

*Laburbilduz, egindako lanetik eta lorturiko ondorioetatik abiatuta, esan daiteke "Diruzaintzako atzerapena eta guztiko kudeaketa arrunteko zordunak" izenekoak osatzen dituzten kontuak aztertu eta berrikusi behar direla, behar diren doiketa de bersailkapen guztiak eginez Foru Ogasunaren zofdunen egoera arrazoizko era batean isla dezaten.*

• "Atzerapena eta guztiko kudeaketa arrunteko zordunak" izenekoak 1996ko abenduaren 31n 13.057 milioi pezetako saldoa du, eta 586 milioiko murrizketa du aurreko ekitaldiaren aldera, hau da ehuneko 4.

Kontu honetako saldoak diruzaintzan, printzipalean eta korrituetan, baina azken horiek "Aurreratutako aurrekontu dirusarrerak" kontuan kentzen dira.

1996an 4.452 milioi egiten duten zorrak atzeratu dira, gehienbat tributu izaerakoak –BEZa eta Sozietateen gaineko Zerga–.

• "Egoera berezietako zordunak" kontuak 1996ko abenduaren 31an 548 milioi pezetako saldoa du. Horrek esan nahi du 67 milioi pezetako igoera izan dela joan de ekitaldiaren aldera, hau da, ehuneko 14koa.

Kontu horrek biltzen ditu 1995etik aurrera beste Administrazio bati ordaindu zaizkion baina Foru Ogasunari ordaindu behar zitzaizkion zergetan dauden akatsetatik heldu diren zorrak, hain zuzen ere itzuli zitezen kasuan kasuko erreklamazioa aurkeztu diren zorrak. Bai saldoa bai ekitaldiaren mugimenduak arrazoizkoak dira.

• "Premiamendu bideko zordunak" kontuak 28.743 milioiko saldoa du 1996ko abenduaren 31n. Guk berraztertu ondoren, ikusi dugu aldeak badaudela kontabilitate orokorraren eta zordunen kontabilitate laguntzailearen artean. Alde horiek materialtasun nahikoa ez badute ere, doitu beharko lirateke aurreko ekitalditik datozen 13 milioi pezetatan.

Azken saldoaren osaketari dagokionez, 579 milioi pezeta –euneko 2– Agentziak mendako zatitzeetatik heldu dira; 26 zergapekok saldoaren ehuneko 57 hartzen dute –332 milioi pezeta–.

Saldoaren gainerakotik 28.177 milioietatik, 22.261 milioi izaera fiskaleko zorrei dagozkie, gehienbat BEZari eta PFEZari.

• "Aurrekontuetako aurreko dirusarrerak" kontuak azteraturiko eta zatituriko zor iraungigabeen, ondoriozkoak diren korrituak biltzen ditu. Zor horiek kasuan kasuko zordun kontuan kontabilizatu ziren eta, iraungi ahala, kontabilitate eta aurrekontura eskualdatzen dira.

1996an, eginiko lanean ikusten denez, sobera egotzi zaizkiola 1996ko dirusarreren aurrekontuari 663 milio pezeta, atzerapen eta zakiteketen korritu mugaeguneratuen kontzeptuan. 663 milioi pezeta horietatik 654 1995ean mugaeguneratu eta ekitaldi horretako dirusarreren aurrekontuari ez egotzitakoei dagozkie.

• Saldo zordunek eta hartzekodunek osatzen duten "aplikatzeke dauden kobrantza eta sortak" kontuaren barruan, bankuek egiten dituzten hamabostaldien dirusarrera eta kobrantzei aplikatzeke dagoen PFEZ atxikia azaltzen da, gehienbat. Ikusi da, itxierari buruzko Foru Aginduak ezarri ez bezala, abenduaren 31n, ez dutela beti zero pezetako saldorik edo, hala bada, saldoa ez dagoela behar bezala justifikaturik.

• "Zordunen hornidura" delakoari dagokionez, esan behar da, lehenbizi, gure gomendioen arabera, haren zenbatekoak ekitaldiko zordun negatiboen barruan sartu direla.

1996ko ekitaldia ixteko garaian, Zordunen hornidurak 2.639 milioiko gehikuntza izan du, aurreko ekitaldiaren aldera; zenbateko hori "Aurreko ekitaldietako eskubideak aldatzea" izeneko kontuaren kargura dago.

Hauxe da 1996ko abenduaren 31n zordunen hornidurak duen 31.086 milioi pezetako zorra, motaren arabera desglosatua, eta estaldura portzentaiak, joan den ekitaldian aplikaturiko berak direnak:

| | Estaldura maila % | | Hornidura zenb. (milaka pezetatan) | |
|---|---|---|---|---|
| Zor mota | 1995 | 1996 | 1995 | 1996 |
| Ohiko diruzaintza | 25 | 25 | 275.388 | 237.616 |
| Gerorapenen diruzaintza | 25 | 25 | 2.927.647 | 3.048.377 |
| Nahitaezko dirubilketarako ohiko agentzia | 90 | 90 | 23.474.931 | 25.384.831 |
| Nahitaezko dirubilketarako gerorapenen agentzia | 75 | 75 | 178.856 | 667.699 |
| Tributarioak | 25 | 25 | 1.590.603 | 1.747.954 |
| | | | 28.447.425 | 31.086.477 |

1996ko ekitaldia ixteko garaian, Zordunen horniduraren zenbatekoaren ehuneko 82 Agentzia exekutibo arruntari dagokio. Behin-behineko zorra zebatekoaren ehuneko 90an jarriko da.

Zordunen horindurari dagozkion saldoen arrazoizkotasuna azterturik, aurreko ekitaldietako irizpideak erabiliz, ondorioztatu ahal izan dugu horietarako soberako 200 milioiko dotazioa eman zaiela, “Diruzaintzako kudeaketa arrunteko zordunak” izeneko kontuaren saldorako aurreikuspen bikoitza zegoelako, eta “Egoera berezietako zordunak” izeneko kontuaren saldoa hornitu delako. Kontu horrek dituen ezaugarriak aintzat hartuz gero, ez litzateke hornitu behar. Hala ere zenbateko horrek ez du behar adinako materialtasuna doitzea proposatzeko.

• Kondonatu eta preskribitutako zorra. 1996ko guztizko zenbatekoa 2.460 milioi pezetakoa da, 1995ekoa baino 1.826 milioi gehiago. Horrek esan nahi du ehuneko 288ko gehikuntza izan dela. Premiamendu bidean dauden zordunei dagokie ehuneko 95ean eta zerga-zorrei ehuneko bostean.

Premiamendu bidean dauden zordunen zenbatekotik ehuneko 51 –1.199 milioi– zergapeko bakar bati kondonatutako zorrari dagozkie.

Ondoko koadroan azaltzen da kondonatutako eta iraungitako zorraren bilakaera 1994-1996 hirurtekoan (milioi pezetatan):

| | 1994 | 1995 | % Aldak. 95/94 | 1996 | % Aldak. 96/95 |
|---|---|---|---|---|---|
| Preskripzioak | 2.088 | 465 | (78) | 1.153 | 148 |
| Kondonazioak | – | 169 | – | 1.307 | 673 |
| Guztira | 2.088 | 634 | (70) | 2.460 | 288 |

Aurreko kontuei buruz adierazi dugunetik,

Hona hemen gure gomendioak:

*• Saiatzea ekitaldi bakoitzak bertan sorturiko dirusarrerak bil ditzan. Horretarako arindu egin beharko da aitorpenak aztertzeko jardunbidea.*

*• Hirugarren Kontabilitate Laguntzailearen jarraipen osoa egitea, aitorpenak dirusarrerekin bat etor daitezen. Horrela saldo negatibo justifikatu gabeak saihestuko lirateke.*

*• Sistematikoki tributu zordunen kontuen saldoak aztertzeari ekitea, bereziki saldo hartzekodunak dituztenak.*

*• Teorian preskribiturik edo preskribitzekotan dauden ekitaldietako zorrak sistematikoki aztertzea, eskubide galera hori saihesteko.*

*• Zorrak Nahitaezko Dirubilketarako Agentziara eskualdatzeko ezarririko epeak betetzea.*

**“Banaketa kontuko zordunak”** kontuak Nafarroako Gobernuak Nafarroako toki entitateekin dituen kontuen saldo zorduna –321 milioi– biltzen du. Zenbateko hori kontu berak eskaintzen duen eta Gobernuaren balantzearen pasiboan biltzen den saldo hartzekodunarekin – 993 milioi – konpentsatzen da. Balatze horretan egiten dira behar diren iruzkinak.

**2.1.6. Bestelako zordunak.**

Haien saldoa honela sailkatzen da (milioitan):

| Bestelako zordunak | 1995/12/31 | 1996/12/31 |
|---|---|---|
| Justifikatu beharreko fondoak | 32 | 32 |
| Burutu beharreko eragiketak | 212 | 171 |
| Nominaren kontrola | 20 | 22 |
| Guztira | 264 | 225 |

• “Justifikatu beharreko fondoen” barruan, justifikatu beharreko ordainketarako aginduak eta kutxa finkoko aurrerapenak sartzen dira.

Justifikatu beharreko ordainketarako aginduen kontua ekitaldian zehar mugimenduak izan dituz-

ten 12 azpikontutan banatzen da; urte bukaeran denak justifikaturik eta kitapenak eginik daude.

“Kutxa finkoko aurrerapenak” izeneko kontuak 52 azpikontu ditu; saldoak esleitutako fondo finkoari dagozkio.

• “Burutu beharreko eragiketak” kontuak 171 milioi pezeta ditu saldo zordunean eta 599 milioi pezeta saldo hartzekodunean.

Ekitaldia ixteko arauek ezartzen dute gauzatu beharreko eragiketek ekitaldia ixteko orduan kitaturik egon behar dutela. Hala ere, saldoa ageri duten kasuetan, saldo horrek behar bezala justifikaturik egon beharko du eta justifikazio hori Kontuhartze eta Kontabilitate Zerbitzuari bidali behar zaio 1997ko otsailaren 10a baino lehen.

Eduki ezberdineko saldo horiek osatzen dituzten azpikontuak aztertu ondoren, ondokoa azpimarratu beharrean gaude:

a) Gizarte Segurantzaren aldeko 18 milioiko saldoa duen kontu batek ez du mugimendurik batere izan ez 1995ean ez 1996an. Zenbateko hori Insaluden lan egiten zuten langileei soldataren aurrerakinak eman ondoren itzultzeko dauden diru-kopuruei dagokie.

b) Kontabilitate laguntzaileko gauzatu beharreko eragiketak: 141 milioi. Saldo hori, batez ere, aurreko ekitaldietatik herrestan ekarri da, baina ez da aztertu ez eta erregulatu ere, hala behar izanez gero.

c) Kontabilitatearen aldetik behin betiko aplikatzekotan dauden saldo batzuk.

*Gure gomendioa da kontu horien saldoa zehatz-mehatz aztertu eta saldoak eragiketak izenarekin bat azaltzeko behar dituen doiketa eta erregularizioak aplikatzeari ekinen zaiolarik.*

**2.1.7. Aldi baterako finantza inbertsioak.**

Bilakaera hau izan dute (milioitan):

| Aldi baterako finantza inbertsioak | 1995/12/31 | 1996/12/31 |
|---|---|---|
| Bestelako inbertsio eta epe laburrerako kredituak | 52.776 | 64.345 |
| Fidantzak eta epe laburrerako gordailuak | 498 | 420 |
| Guztira | 53.274 | 64.765 |

Alegia, ondare masa hori 11.491 milioitan gehitu da, hots, ehuneko 22, gehienbat epe laburrerako inbertsioak gehitu direlako.

• “Epe laburrerako bestelako inbertsio eta kredituak”. Kontu horietan biltzen den saldoa, honela sailkatzen da:

| Epe laburreko bestelako inbertsioak | 1995/12/31 | 1996/12/31 |
|---|---|---|
| Aldi baterako finantza-inbertsioak | 52.715 | 64.328 |
| Emaniko aurrerapenak | 59 | – |
| Aurrekontuetatik kanpoko zordunak | 2 | 17 |
| Guztira | 52.776 | 64.345 |

“Inbertsio kontuei” dagokienez, maiatzaren 20ko 71/1995 Foru Dekretuak Foru Komunitateko diruzaintzako fondo likidoen kokapena arautzen du.

Ekonomi eta Ogasun Kontseilariaren eskumenaren arabera, segurtasun eta errentagarritasun irizpideak eta gizarte interes bereziko jarduerak finantzatzeko partaidetza kontutan harturik, finantza entitate eta tresnetan kokatzen dira fondo hauek.

Horren arabera:

a) Kontu korrenteek funtzionamendurako gutieneko kopuruak Mibor errentagarritasunean mantentzen dituzte, hiru hilabetera, minus 2,25 puntu. Aurreko seihilekoko azkeneko hilabetetik hurrengo hilabeterako lortzen da.

b) Gainerako fondoak egun luzagarri bateko, aste bateko, hilabete bateko edo beste epe bateko gordailuetan kokatzen dira. Haien errentagarritasuna finantza entitateek luzaturiko abiapuntuzko eskaintzetatik lortzen da eta Espainiako Bankuak argitaratu zueneko eguneko batez besteko Miborri dagozkio.

Banku zirkularizaziotik lorturiko datuekin batera, aurreko saldoak inbertsio kontuetan kokaturiko saldoak zentzuzko moduan adierazten ditu.

“Emaniko aurrerapenak” eta “aurrekontuez kanpoko zordunak” multzoko kontuei dagokienez, aurreko urteko kontuei buruzko txostenak ematen zuen gomendioari jarraituz, Gobernuaren Auditoretza Atala kontu horiek erregularizatzeko ahaleginak egiten ari da, egindako berrikuspenaren emaitzei jarraituz.

• “Epe laburrerako fidantza eta gordailuak”. Auditoretza Atalaren gomendioei jarraituz, Nafarroako Gobernuak prokuradoreen fidantzen saldoa keta Eguesibarreko Udalaren gordailua erregularizatu ditu.

Ekitaldiko mugimenduei dagokienez, CANek Acería de Sestao-n duen partehartzeari 95 milioi pezeta gehitu zaizkio. Urteko gehikuntza hori igotzen joango da harik eta 500 milioi egin arte 1997an.

**2.1.8. Diruzaintza.**

Haren saldoak bilakaera hau izan du (milioitan):

| Diruzaintza | 1995/12/31 | 1996/12/31 |
|---|---|---|
| Kutxa | 13 | (926) |
| Kontu korrenteen kontuak | 235 | 715 |
| Guztira | 248 | (211) |

• “Kutxa” kontua Gobernuak egiten dituen ordainketa gehienetan erabiltzen den kontu korrontea da. 1996ko abenduaren 31n 926 milioi pezetako saldo hartzekoduna da. Saldo hori 1996ko abenduaren 31ko ordainketen multzoa kontabilizatzetik 1997ko urtarrilaren 2ra, alegia, fondoak jarri ziren egunera bitartean dagoen aldearengatik, sortu da.

• “Banku eta kreditu erakundeak” izenekoan, saldoa 715 milioi pezetakoa da eta 42 banku-konturi dagokio.

Arlo honetan egin dugun lanetik ondoriozta daiteke saldoaren zenbatekoak Nafarroako Gobernuaren fondo likido eskuragarriak islatzen dituela.

a) “Feoga Garantía Laguntzak” izeneko kontu bereziak 41,5 milioiko saldoa du eta Europako erakunde horrek ematen dituen laguntzak biltzen ditu. Nafarroako Gobernuak laguntza horiek ingresatu behar dizkio azken hartzaileei; beraz, horiek ezin izan daitezke fondo eskuragarriak.

b) Banku-zirkulazioari dagokionez, ondoriozta daiteke kontu jakin batzuk daudela Hezkuntza, Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuaren erregulazio berezia dutenak. Kontu horien saldoak eta korrituak ez dira azaltzen Gobernuaren Balantzean. Kontu horiek agertzen duten saldoa 530 milioikoa da eta diru horrek 15 milioi pezetako korrituak sortu ditu.

c) Banco de Cédito Local izenekoaren kreditukontu bat, akats baten ondorioz arlo honetan sartu dena. Hala eta guztiz ere kontu horrek duen diruzenbatekoa 742.171 pezeta baino ez da.

d) Finantza-entitate ezberdinek bidali zuten informaziotik ondoriozta daiteke Nafarroako Gobernuak dirubilketa-kontuak dauzkala –ordainsaririk gabe–.Haien saldoak, 1995eko abenduaren 31n, 89 milioi egiten zuen. Saldo horiek ez dira kontabilitatean erregistratzen kontu korrente normaletara eskualdatu arte, hilabetero, 5 eta 20 egunetan.

Banku-zirkulazioan ikusten da oraindik, aurreko ekitaldietan bezala, kontuetan baimenduriko izenpeak ez direla behar den azkartasunarekin eguneratzen.

*Arlo honetan egindako azterketari jarraituz, gure gomendioa da banku-saldoak erregularizatzea, Gobernuaren eskuragarritasun likidoak Balantzearen egunean behar bezala ager daitezen, eta behar den azkartasunarekin eguneratu daitezen banku-fondoak erabiltzeko baimenduriko izenpeak.*

2.2. PASIBO ETA FONDO BEREKIAK.

**2.2.1. Fondo berekiak.**

Masa horren saldoak bilakaera hau izan du (milioitan):

| Fondo berekiak | 1995/12/31 | 1996/12/31 |
|---|---|---|
| Ondarea | 19.964 | 3.739 |
| Aurreko ekitaldietako emaitzak | 7.007 | 21.811 |
| Ekitaldiko emaitza (galera) edo etekina | (1.427) | 9.351 |
| Guztira | 25.544 | 34.901 |

Alegia, ondarezko garbiak edo Nafarroako Gobernuaren fondo berekiek 1996ean, 1995aren aldean, 9.357 milioitan egin dute beheiti, alegia, ehuneko 37.

Ondoren iruzkin hauek eginen ditugu aurreko puntuei buruz, kontutan harturik “ekitaldiko emaitzak” eranskin honetako 2.3 atalean egiten direla modu berezian.

1992ko ekitaldia abiapuntutzat harturik, hurrengo koadroan ondare-masa horren bilakaera azter dezakegu, osagarrien zenbaki indizeetan:

| | 1992 | 1993 | 1994 | 1995 | 1996 |
|---|---|---|---|---|---|
| Ondarea | 100 | 77 | 52 | 22 | 4 |
| Aurreko ekitaldietako emaitzak | 100 | 40 | 29 | 35 | 109 |
| Ekitaldiko emaitza (galera), etekina | (100) | (77) | (81) | (4) | 28 |
| Guztira | 100 | 68 | 34 | 32 | 44 |

Ikus daitekeen bezala, 1996ko ekitaldian azken urteetan ondare-masa horretan zegoen beherako joera hautsi da. Hobekuntza hori emaitzetan izan den gorakadaren isla da.

Ondarearen idazpurua, dena den, beherako joeran jarraitzen du azken ekitaldi hauetan.

1996ko ekitaldiko ondoarearen gutxietzea, batez ere, 1995eko emaitza negatiboaren aplikazioaren eta 1995eko aurrekontu finantzaketako fondoetako 14.804 milioien ondoriozkoa da.

Aurrekontu finantzaketako fondoak aurreko ekitaldiko aurrekontuen emaitzak eta aurreko eki-

taldietatik eskubide eta obligazioen kontuaren saldoak osatzen dute.

Aurrekontu finantzaketetako fondoen igoerak sortzen duen ondare gutxitzea lotuta dago “aurreko ekitaldietako emaitzak” kontuaren igoerarekin. Kontu horrek diru-zenbateko berdina du.

Beraz, fondo berekien birsailkapena egin behar da, sortu direnak ager daitezen aurrekontu emaitzen gisara.

**2.2.2. Epe luzerako hartzekodunak.**

Bilakaera hau du (milioitan):

| Epe luzerako hartzekodunak | 1995/12/31 | 1996/12/31 |
|---|---|---|
| Obligazioak eta bonoak | 129.705 | 112.835 |
| Epe luzerako bestelako zorrak | 3.732 | 5.283 |
| Ordaintzeke dauden akzioak | 2 | – |
| Guztira | 133.439 | 118.118 |

Gobernuaren epe luzerako zorra ehuneko 15.321 milioitan jaitsi da, batez ere epe luzerako obligazio eta bonoak epe laburrerakoak izan daitezen birsailkatu direlako –16.109 milioi pezeta–.

Ondoren, aurreko kontuetako alderdirik esanguratsuenak.

• “Epe luzerako obligazio eta bonoak” kontuaren saldoa, milioitan, 1996ko abenduaren 31n. Hona hemen ezaugarri nagusiak:

| Zor publikoa | Jaulkipen eguna | Errenbolts zenbatekoa | Korritu tasa | Muga-eguna |
|---|---|---|---|---|
| ZP berezia | 91-10-7 | 6.699 (1) | * | 7-10-1997 |
| ZParen 3. jaulkipena | 30-11-93 | 36.000 | 8,30 | 30-11-1998 |
| ZParen 6. jaulkipena | 94-12-2 | 14.000 | 11,20 | 2-12-1999 |
| Obligazioen 1. jaulkipena | 12-05-95 | 23.000 | 12,35 | 12-5-2005 |
| ZParen 7. jaulkipena | 18-10-95 | 20.000 | 10,85 | 18-10-2000 |
| Zorra 96 | 27-06-96 | 5.880 (1) | 7,25 | 19-09-1997 |
| Zorra 96 | 27-06-96 | 5.880 | 8,50 | 19-12-2001 |
| Zorra 96 | 27-06-96 | 5.880 | 9,25 | 19-12-2006 |
| Zorra 96 | 27-06-96 | 3.530 (1) | 7,25 | 19-09-1997 |
| Zorra 96 | 27-06-96 | 8.075 | 9,25 | 19-12-2006 |
| Guztira | | 128.944 | | |

* Korritu inplizitua
(1) Epe laburrean birsailkatuak

Hona hemen ekitaldiko mugimenduak:

a) Nafarroako Zor Bereziaren amortizazio aurreratua, guztira 6,1 milioi egiten duena.

b) Zor Publikoaren bigarren jaulkipeneko 30.000 milioi kitatzea eta 1996an zor berria jaulkitzea. Zor berri horrek 29.245 milioi egiten du.

Azken mugimendu horiek ez dira gastuen eta dirusarreren aurrekontuan erregistratu. Aurrekontu horretan jaulkipen berriaren eta kitatzearen arteko zenbateko garbia, alegia 755 milioi pezeta, “finantza pasiboen aldaketak” izeneko gastuen aurrekontuari egotzitakoak, “aurreko ekitaldietako superabitaren aplikazioa” izenekoaren kargura.

Hala ere, zuzenean egotzi zaizkio finantza-gastuen aurrekontuari berreskurapenaren balioaren eta jaulkipenaren balioaren artean dagoen aldea, alegia, 583 milioi pezeta. Diru hori atzeratutako finantza-gastu gisa kontabilizatu beharko zen.

Finantza gastuei egozten zaizkie ere 255 milioi jaulkipenaren gastuengatik, batez ere aseguratze gastuei dagozkienak.

*Gure gomendioa da orokorki onartzen diren kontabilitate hatsapenen aplikazio zehatza egitea, jaulkipen berria eta zorraren kitapena aurrekontu-eragiketa gisa hartuta.*

“Epe luzerako bestelako zorrak” azpitaldea honela sailkatzen da:

| Bestelako zorrak | 1995/12/31 | 1996/12/31 |
|---|---|---|
| Epe luzerako maileguak | 976 | 2.509 |
| Audenasa, hartzekodunak | 2.505 | 2.505 |
| Epe luzerako fidantzak | 251 | 269 |
| Guztira | 3.732 | 5.283 |

“Epe luzerako maileguak” kontua honela sailkatzen da:

| Bestelako zorrak | 1995/12/31 | 1996/12/31 |
|---|---|---|
| Etxebizitzak sustatu eta zaharberritzea | 943 | 943 |
| Banco de Crédito Local | 33 | 12 |
| Gizarte Segurantzako Diruzaintza | – | 1.554 |
| Guztira | 976 | 2.509 |

Etxebizitzarako maileguei dagokienez, 1994ko txostenean, 1995eko Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legeko 19. Xedapen Gehigarrian ezartzen da: “Autonomi Elkarteei uzten zaizkio ... Etxebizitzaren Sustapen Publikorako Institutuak etxebizitzak finantzatzeko bere garaian eman zituen kredituak ...”. Horregatik, ematen du mailegu horiek kondonatuko direla, gure lana bukatu arte, horri buruzko inolako ekintzarik agertzen ez bada ere.

*Gure gomendioa da aurreko egoera argitu eta konpontzeko behar diren kudeaketak egitea eta, hala bada, egoera kontableak doitzea.*

"Gizarte Segurantzaren Diruzaintza" kontua epe laburreko zorra epe luzerako zor gisa birsailkatzearen ondorioa da, eta Gizarte Segurantzarekiko zorrak dira, patronalaren kuota dela eta, 1991 urtea baino lehenagoko obligazioetatik datozenak eta jatorria Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari eskualduriko erakundeetan dutenak, indarreango hitzarmen ekonomikoaren barrenean.

"Audenasako akzioen hartzekodunak" kontuari dagokionez, ekitaldian ez du mugimendurik izan. Izan ere, aurreikusirik dago 2014an amortizatuko dela.

"Epe luzerako fidantza eta gordailuak" kontuari dagokionez, Hiri Jabetzaren Ganbarari fidantzak egiteko partikularrei saldu dien papera dela-eta dagokion saldoa biltzen du, funtsean. Barne auditoretzako atalak aurrekontu– eta ondare-kontabilitatean behar diren oharrak aztertzeari ekin dio, 178/1996 Foru Dekretuaren ondotik sortu zen egoera berrira egokitzeko, ondareak, eskubideak eta obligazioak eskualdatuz.

### 2.2.3. Epe laburrerako hartzekodunak.

| Epe laburrerako hartzekodunak | 1995/12/31 | 1996/12/31 |
|---|---|---|
| Aurrekontuetako hartzekodunak | 57.563 | 64.090 |
| Aurrekontuetatik kanpoko hartzekodunak | 500 | 500 |
| ABestelako baliabideetako hartzekodunak | 587 | 933 |
| Administrazio Publikoak | 159 | 174 |
| Bestelako hartzekodunak | 149 | 599 |
| Harturiko fidantzak | 97 | 95 |
| Guztira | 59.055 | 82.500 |

Alegia, 1995etik 1996ra bitarte, epe laburrerako zorra ehuneko 40 hazi da. Horrek esan nahi du 23.445 milioi pezetako gehikuntza izan dela.

Gehikuntza horren parte handi bat Nafarroan epe luzerako zorran ekitaldi honetan egin den birsailkapenari dagokio. Diru horrek 16.109 milioi pezeta egiten du eta amortizatuta behar du urtebete baino lehenago.

Adierazitako birsailkapen hori kenduta, zorraren gehikuntza epe laburrean % 12an geratuko litzateke. Zenbateko hori, funtsean, aurrekontuetako zordunen gehikuntzari dagokio.

Ondoren, ondare masa horren kontuak ukitzen dituzten gorabeherarik esanguratsuenak.

**"Aurrekontuetako hartzekodunak"** azpitaldea kontu hauetan garatzen da:

| Aurrekontuetako hartzekodunak | 1995/12/31 | 1996/12/31 |
|---|---|---|
| Obligazio aitortuetako hartzekodunak | 14.259 | 17.444 |
| Antolaturiko ordainketetako hartzekodunak | 20.289 | 21.399 |
| Hartzekodunak, dirusarrerak itzultzeagatik | 161 | 479 |
| Zordunak (saldo hartzekoduna) | 22.854 | 24.768 |
| Guztira | 57.563 | 64.090 |

"Aitorturiko obligazioen edo erresulten ondoriozko hartzekodunen" egoerak 17.444 milioiko saldoa du; horrek esan nahi du 3.185 milioi pezetako gehikuntza izan dela, hau da, ehuneko 22 hazi dela. Idazpuru hau epe laburreko zorraren guztizkoaren ehuneko 27 da, eta osaketa hauxe du:

10. koadroa

| Kontzeptua | 95-12-31ko saldoa | Mugimenduak: Erregularizazioa (*) | Mugimenduak: Deuseztapena | Mugimenduak: Ordainketak | 96-21-31ko saldoa |
|---|---|---|---|---|---|
| 1990eko erresultak | 27.940.207 | -10.635.144 | 2.046.792 | 2.373.211 | 12.885.060 |
| 1991ko erresultak | 39.625.548 | – | 12.654.858 | 2.862.579 | 24.108.111 |
| 1992ko erresultak | 1.663.856.458 | 7.544.484 | 14.131.730 | 1.582.731.096 | 74.535.116 |
| 1993ko erresultak | 644.274.451 | 57.215.562 | 26.045.302 | 523.504.827 | 151.939.884 |
| 1994ko erresultak | 2.632.468.240 | (27.416.662) | 27.121.954 | 1.541.748.560 | 1.036.181.064 |
| 1995eko erresultak | 9.087.164.532 | 56.008.501 | 211.422.819 | 7.104.478.185 | 1.827.272.029 |
| Ber.izend.behar diren erres. | 163.606.364 | (82.716.741) | – | – | 80.889.623 |
| Aurreko ekit. erres., guztira | 14.258.935.800 | – | 293.426.455 | 10.757.698.458 | 3.207.810.887 |
| 1996ko erresultak | | | | | 14.236.322.939 |
| Guztira | 14.258.935.800 | | | | 17.444.133.826 |

(*) 0ko saldo garbia duten kontuen arteko traspasoak, legezko baimenen indarrez egindakoak.

Jatorrizko ekitaldiari dagokionez, saldoaren ehuneko 18 aurreko ekitaldietatik dator eta ehuneko 82 1996ko ekitalditik.

Aurreko txostenetan bezala, adierazi behar dugu zentro kudeatzaileek ez dutela behar bezala erresulten mantenimendua justifikatzen, gehienbat, aurreko ekitaldietakoena. Hori dela eta ezabapenak eta zuzenketak gertatzen dira, bai euskarririk ez dutelako, bai aurreko okerrak zuzentzeko asmoz.

1996ko erresultak gehienbat Ekonomi eta Ogasun Departamentuari –5.282 milioi pezeta– eta Toki Administrazioari –4.279 milioi pezeta– dagozkie.

*Gure gomendioa da zentroek ordaintzeke dituzten obligazioak behar bezala dokumentatzea eta justifikatzea.*

• “Aginduriko ordainketetako hartzekodunak” kontuak hirugarrenekiko obligazioak biltzen ditu, ordaintzeko aginduak luzatu zaizkienak.

Hona hemen haren saldoa (milioitan):

| Aginduriko ordainketetako hartzekodunak | 1995/12/31 | 1996/12/31 |
|---|---|---|
| Oraingo ekitaldiko libramenduak | 20.257 | 21.375 |
| Aurreko ekitaldiko libramenduak | 32 | 24 |
| Guztira | 20.289 | 21.399 |

Bai oraingo ekitaldiko libramenduen saldoan bai aurreko ekitaldietakoan kontabilitate zentroen libramenduen banakako zerrenda baten bermea dago.

Aurreko ekitaldian bezala, ekitaldiko libramenduen barruan bi kontu erabiltzen dira libramendu singularrak eta kontuetako zuzeneko karguak– eta kontrol eginkizuna badute ere, hori ez da betetzen urte bukaeran haietariko bakoitza modu globalean konpentsatzen denean; ondorioz, era orokorrean kitatzen dira. Eragiketa horrek ez du inolako justifikaziorik kontabilitateko agirietan. Hala ere, horren zioa izan liteke diruzaintzako eta kontabilitateko ordainketa sistemen arteko itxiera egunak ez datozela bat.

Bestaldetik, libramendu negatiboak ere aurikitu dira hala ere, zenbateko txikikoak, ordainketak eta bankuak izeneko sistemaren berezitasunengatik sortuak. Horrek ez dirudi bat datorrela kontu horien definizioarekin berarekin.

Gomendioak:

*Saiatzea kontabilitateko ohartarazpen guztiak behar bezala justifikaturik eta behar bezalako euskarriarekin egon daitezen.*

• “Hartzekodunak, dirusarrerak itzultzeagatik” kontuak ekitaldia ixtean burutu ez diren dirusarrera itzulerak biltzen ditu. 1996ko abenduaren 31n 476 milioi pezetako saldoa du.

“Saldo hartzekodunen zordunak” kontuak 24.768 milioi pezeta ditu. 2.1.5 atalera (saldo hartzekoduna) igortzen dugu horren berri eduki nahi izanez gero.

**“Aurrekontuetatik kanpoko hartzekodunak”** kontuak 500 milioiko diru-ekarpena du, Nafarroako Aurrezki Kutxatik hartua, obretako partaidetza eta Planetarioko ekipamendua (Nafarroako Gobernuaren ibilgetuan bere kostu osoagatik kontabilizaturik dagoena) finantzatzeko, aurreko eraikina eskrituratu eta gero behin betikoz aplikatuko dena. Hortaz, ez da Gobernuaren epe laburrerako

zorra, baizik eta Gobernuak osorik finantzaturik ez dagoen eraikin higiezinaren kostua konpentsatzen duena. 1997an erregularizatzen da.

"**Bestelako ente publikoen konturako baliabideen administrazioko hartzekodunak"** kontuak banaketa kontuko saldo hartzekodunak bitzen ditu –933 milioi pezetako zenbatekoa–.

Banaketa kontua Gobernuaren eta Nafarroako toki entitateen arteko kontu korrentea da. Haren korritu tasa, bai saldo zordunetarako, bai saldo hartzekodunetarako, ehuneko 8koa da, sei hilabetean behin aplikatzen dena.

1996an, saldo zorduna duten kontu guztien zenbatekoak 321 milioi egiten du eta balantze aktiboaren barruan erregistratzen dira (2.1.5 eranskina). Saldo hartzekodunek 933 milioi egiten dute guztira, eta pasiboan sartzen dira.

Kontu honi dagozkion korrituen kitapenak aurreko ekitaldiko azken seihilekoa biltzen du eta ez 1997 urteari egotziko zaion ekitaldiaren azken seihilekoa.

Iruzkindu bezala, korritu tasa ehuneko 8koa da, baina adierazi digute tasa hori –une honetan merkatuko tasaz gorago dagoena– aldatu egingo dela, aurrerantzean Mibor erreferentzia erabiliz.

Gomendioak

*Saiatzea ekitaldi bakoitzak dagozkion gastu eta dirusarrerak bere gain hartzea.*

*Banaketa kontuko saldo zordunei eta hartzekodunei aplikatzen zaien korritu tasa aldatzea, merkatuaren oraingo egoerari egokitzeko.*

**"Administrazio Publikoak"** izeneko kontuan, Gizarte Segurantzari zor zaizkionak agertzen dira, alegia 174 milioi –aurreko ekitaldiko saldoa baino 15 milioi gehiago–. Kontzeptu horren barruan Nafarroako langileen lan eta enpresa zorrak sartzen dira eta ikastetxe itunduetako irakasle langileei dagozkienak, ordainketa delegatu gisa eta ikastetxeko titularraren izenean egiten direnak.

Saldo hori, aurreko urteetan bezala, lan kuotaren nominako atxikipenaz dago osaturik bakarrik. Alegia, ez du Nafarroako Gobernuak gizarte zamengatik Gizarte Segurantzarekin duen zor guztia adierazten.

*Gure gomendioa da Gizarte Segurantzako zama guztiak behar den ekitaldian kontabilizatzea, informazio kontable publikoaren egokitasun hatsapenaren arabera.*

Hemen sartzen da, gainera, oso saldo gutxi duen "Transferituriko langileen kuotetako hartzekodunak" kontua (eskubide pasiboak, Muface eta bestelako mutualitateak). Langile publikoek gizarte aurreikuspeneko sistema bati dakarkioten dirua biltzen du.

**"Bestelako hartzekodunak"** kontuan 2.1.5 eranskinean iruzkintzen diren kontu iragankorrak eta formalizaziokoak biltzen dira. Hala ere, ondoren haien edukia zehazten da:

| Bestelako hartzekodunak | 1995/12/31 | 1996/12/31 |
|---|---|---|
| Aplikatzeke dauden dirusarrerak | — | — |
| Formalizatu beharreko eragiketak | 149 | 599 |
| Guztira | 149 | 599 |

• **"Epe laburrerako fidantza eta gordailuak"** kontuak 95 milioiko saldoa du. Horrek esan nahi du ehuneko 2ko gutxitze garbia izan dela, aurreko ekitaldiarekiko, gehienbat, gordailuak gutxitu direlako.

Hona hemen zehaztasuna (milioi pezetatan):

| Fidantzak eta gordailuak | 1995/12/31 | 1996/12/31 |
|---|---|---|
| Gordailuak | 4 | – |
| Fidantzak | 93 | 95 |
| Guztira | 97 | 95 |

• "Epe laburrera harturiko fidantzak" kontuak departamentuek eta erakunde autonomoek sustaturiko lehiaketa eta enkanteetan partehartzeari buruzko arauteria betetzean harturiko dirubidezko fidantzak eta hirugarrenei hornidura eta gainerako kontratupeko kontraprestazioengatik egindako atxikipenak biltzen ditu.

Itxiera arauen arabera, 1997ko otsailaren 10a baino lehen kontabilitate zentroek Kontuhartzailetza eta Kontabilitate zerbitzuari bidali behar dizkiete urteen arabera sailkaturiko zerrenda.

1996an, fidantzetako mugimendua eta saldoa duten 31 kontu daude. Horietatik 10 ezarritako eguna baino beranduago aurkeztu dira.

Justifikaturiko guztizko zenbatekotik, ehuneko 54 1996ko fidantzei dagokie, ehuneko 13 1995eko fidantzei eta gainerakoa aurreko ekitaldiei. 1985tik datozen fidantzak ere badaude.

Barne Auditoretzako Atala kontu hau aztertzen ari da 1997an, erregularizatzeari ekin ahal izateko.

**2.2.4. Aurrekontua kontrolatzeko kontuak eta antolamenduzkoak.**

Hurrengo ekitaldietako aurrekontua kontrolatzeko kontuak eta antolamenduzkoak ez dira nahitaezkotzat jotzen entitate publikoen balantze

eskema berrian. Izan ere, ulertzen da biltzen duten informazioa oroit-idazkian garatzen dela.

Hala ere, Gobernuaren gaurko oroit-idazkiak haiek daukaten informazio guztia adierazten ez duenez, aurreko txostenetako egiturari eusteko, kontu hauek aurkezten ditugu, bilakaera hau dutenak (milioi pezetatan):

| Aurrekontua kontrolatzeko kontuak eta antolamenduzkoak | 1995/12/31 | 1996/12/31 |
|---|---|---|
| Agiri bermagarriak | 428 | 305 |
| Harturiko abalak | 21.512 | 22.749 |
| Osaturiko abalak | 6.726 | 7.152 |
| Berme gisa eskainiriko agiriak | 11.915 | 10.976 |
| Guztira | 64.943 | 62.728 |

Ondoren haien gorabeherarik nabarmenenak.

**"Ondorengo ekitaldietako gastu konpromisoak"** kontuek 21.546 milioiko saldoa daukate; horrek esan nahi du aurreko ekitaldian baino 2.816 milioi gutxiago daudela.

Hurrengo koadroan urtez urte konprometitutako gastuen guztizkoa azaltzen da:

| Urtea | Autorizado | Porcentaje | Dispuesto | Porcentaje |
|---|---|---|---|---|
| 1997 | 5.798 | 87 | 15.872 | 74 |
| 1998 | 685 | 10 | 4.815 | 22 |
| 1999 | 88 | 2 | 705 | 3 |
| 2000 | 56 | 1 | 154 | 1 |
| Guztira | 6.627 | 100 | 21.546 | 100 |

Departamentuka, nabarmenenak dira Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentua, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura, Departamentua eta Industria, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentua, geroko ekitaldietarako baimendu dituzten zenbatekoengatik, guztizkoarekiko ondoko portzentaietan hurrenez hurren: 32, 28 eta 35.

Aurreko informazioa, kontabilitate sistematik eskuratutakoa, ez dator bat oroit-idazkian adierazitakoarekin: alde nabarmenak daude, salbu Toki Administrazioko Departamentuan, non kontabilitateari buruzko informazioa eta oroit-idazkia bat datozen.

Egitate hau azken ekitaldi guztietan errpikatu da eta horregatik, Ganbara honek berriro dio kontabilitate egoerek –kontrol kontuak edo laguntzaileak izanik ere– adierazgarri zintzoak izan behar dutela, gastuak hartzen ari diren garrantzia kontutan harturik.

*Gure gomendioa da erregistro eta kontrol jardunbideak prestatu eta ezartzea, Nafarroako Gobernuaren kontabilitate sistemak hurrengo ekitaldietako gastu-konpromisoak behar bezala adierazi ahal izateko.*

**"Agiri bermagarriak"** kontuak Hiri Jabetzako Ganbarari aurkezturiko fidantza paperen mugimenduak biltzen ditu. 305 milioi pezetako saldoa du. Horregatik, 1996ko abenduaren 31ko saldoak Biltzar horren fidantza papera adierazi behar du. 1997ko otsailean ezabatu zenez, aipatu saldoa erregularizatu behar da eta Nafarroako Gobernuko ondarean sartu, Gobernuaren Auditoretza Atalak egindako txostenari jarraikiz.

**"Harturiko abalak"** kontua honela sailkatzen da (saldoa, milioi pezetatan):

| Harturiko abalak | Saldoa |
|---|---|
| Obra eta hornidura kontratuetako abalak | 17.339 |
| Abal bereziak | 4.887 |
| Dirubilketa exekutiboaren abalak | 523 |
| Guztira | 22.749 |

**"Obra eta hornidura kontratuengatik harturiko abalak"** kontua Nafarroako Gobernuko Auditoretza Atalak aztertu du eta Ganbara honek aurreko txostenetan adierazten zituen iritziak sendetsi ditu:

• Abalak eta aurrerakinak eta haien kontabilitate-erregularizatzea aztertu eta garbitu behar da.

• Abalak sortzen dituzten kontratuak sustatu dituzten zerbitzuen eta kasuan kasuko kontabilitate zentroen arteko koordinazioa hobetzea, itzulketen kudeaketa eta kontrol hobea egiteko.

• Departamentu ezberdinetan, abal, fidantza eta jasotako gainerako bermeak eratu, jarraitu eta deusezteko jarraitu behar den prozedura biltzen duten arauak edo jarraibideak egitea.

Aurreko ekitaldietan bezala, ez dira erregistratu ez eta kontabilizatu ere, etxebizitzaren arloan jasotako abalak, Babes Ofizialeko Etxeetarako emandako dirulaguntzen berme bezala. Horren zenbatekoa 5.200 milioi pezetakoa dela kalkulatzen da.

**"Abal bereziak"** kontuak 4.887 milioi pezetako saldoa du. Saldo zuzena da eta Irtali emandako 50 milioiko abala eta Laminaciones de Lesakari emandako 4.837 milioi pezetako beste abal bat biltzen ditu.

"Agentzia exekutiboko abalak" kontuak 523 milioi pezetako saldoa du. Auditoretza Atalaren

ondorioa da saldoa zuzena zela balantzea egin zen egunean.

Aurreko lerroaldetan jarritakoari jarraituz, jasotako abalen kontuari dagokionez, Ganbara honek gomendatzen du:

*Eskuratutako abalak, estxebizitzaren arlokoak barne, behar bezala erregistratzen eta kontrolatzen direla bermatzeko jardunbideak prestatu eta aplikatzea.*

*Abalen indarraldia aztertzeari eustea.*

**"Osaturiko abalak"** kontuak honela azaldu daiteke, aurreko ekitaldiko zenbakiekin alderatuta:

| Enpresa/Sektorea | 1995/12/31 | 1996/12/31 |
|---|---|---|
| Audenasa | 3.000 | 3.000 |
| Etxebizitza Patronatua eta beste | 114 | 78 |
| Krisialdian dauden enpresak | 2.778 | 2.743 |
| Ikerketa eta Garapena | 834 | 1.331 |
| Guztira | 6.726 | 7.152 |

Saldo hau 426 milioitan gehitu da, hots, ehuneko 6. Eginiko azterketatik, nabari da:

• "Etxebizitza patronatua eta beste". Haren saldoa 78 milioi pezetakoa da 1996ko abenduaren 31n. Honela dago osaturik:

| | |
|---|---|
| Etxebizitza Patronatua | 6 |
| Tecnopec, S.A. | 72 |
| Guztira | 78 |

Teconpec-i emandako avala Sonagar-i emandako bigarren abala da. Azken hori, bere aldetik, aipatu enpresa abalatzen du enplegua sustatzeko plan bereziaren babesean eginiko mailegu baten bitartez.

• "Krisialdian dauden enpresendako abalak". Guztira, 217 milioi pezetako abalak formalizatu dira, baina formalizatu gabe jarraitzen du 1995ean Papelera de Navarra, S.A.ri egin eman zitzaion abala (1.200 milioi pezeta). Bajak 252 milioikoak dira. Construcciones Metálicas MAPAri emandako abala exekutatu da, 75 milioi pezetatan, enpresak ordainketa-etendura egin duelako.

• "Ikerketa eta garapenerako proiektuetarako abalak" izenekoak 1.331 milioi pezetako saldoa du 1996ko abenduaren 31n. Abal horiek aurreko ekitaldian aztertu ziren industri jarduera sustatzeko programari buruzko txostenean. Kontsulta egin nahi duenak hartara jo dezala.

**Hortaz,** aurreko txostenetan adieraziarekin bat, uste dugu Nafarroako Gobernuak emaniko abalak hartzen ari diren garrantziak, eragiketa zenbaiti dagokien arrisku ekonomikoak eta bermeen eskasiak Nafarroako Parlamentuari eta Gobernuari pentsarazi beharko lieketela egin den abal politika egokia den, ahantzi gabe, bistan denez, lortu nahi diren gizarte xedeak.

*Gomendatzen dugu aztertzea ea komenigarria den Abalen eta Nafarroako Gobernuak emaniko gainerako bermeen Erregistro Orokorra ezartzea.*

**"Berme gisa eskainiriko agiriak"** kontuak 10.976 milioi pezetako saldoa du 1996ko abenduaren 31n. Ganbara honek eginiko berrikuspenetatik eta Gobernuko Auditoretza Atalak egindako azterketatik ondoko ondorioak atera daitezke:

• Abaletan emandako 767 pezetako zenbatekoari baja eman behar zaio, izan ere bermatzen zituzten kredituak deuseztu direlako.

• Aurreko ekitaldian bezala, gerorapen batzuk aurkitu dira, non doakien bermeak oraindik hartu ez baitira.

• Bestaldetik, zerikusia duten zerbitzuen arteko koordinazioa hobetu beharra dago, berme bera gerorapen eta abaletarako legokeelako.

Hori guztia dela eta, gomendatzen dugu:

*Agiri horien jarraipen eta kontrolean zerikusia duten zerbitzuen arteko koordinazioa hobe izatea.*

*Aski diren bermeak lortzeko eginbeharra betetzea, kontutan harturik, hala ere, kasu batzuetan, gizarte interes batzuek lehentasuna izan lezaketela.*

2.3. EKONOMI ETA ONDARE EMAITZAKO KONTUA.

Ondoren, emaitza kontuaren edukia garatuko dugu laburki. Haren sailkapena eta 1995arekiko alderapena txosten honetako IV.3 atalean biltzen da, aurkezpen eskema berriaren arabera.

1996ko ekitaldiko ekonomi eta ondare emaitzak saldo hartzekoduna du (irabazia), 9.350 milioikoa. Alegia, Nafarroako Gobernuak bere gastuak finantzatzeko adina dirusarrera sortu ditu. Horrela irabazi bat ere sortu da, 1995ean ez bezala, izan ere urte hartan 1.427 milioiko galera sortu zelako.

Hurrengo koadroan haren osaketa eta aurreko ekitaldiarekiko alderapena (milioi pezetatan) erakusten dira:

| Emaitza | 1995/12/31 | 1996/12/31 |
|---|---|---|
| Ohiko kudeaketa | 104.832 | 109.769 |
| Transferentzien eta dirulaguntzen saldoa | (87.032) | (88.223) |
| Ohiz kanpokoak | (19.227) | (12.195) |
| Guztira | (1.427) | 9.350 |

Ikusten denez, emaitzetan 10.778 milioi pezetako hobekuntza izan da, zenbaki absolutuetan, aurreko ekitaldiaren aldera.

Hobekuntza hori nagusiki gertatu da ohikoak ez diren emaitzetan, izan ere 7.000 milioi pezetako galeren gutxiagotze garbia gertatu delako (ehuneko 37 1995aren aldean), eta hein txikiagoan kudeaketa arrunteko emaitzan ere bai, hain zuzen ere 5.000 milioi pezetatan igo delako (ehuneko 5, 1995aren aldera). Transferentzia eta dirulaguntzen saldo hartzekodunean ehuneko 1eko igoera gertatu da.

• Ohiko kudeaketaren emaitza.

Ekitaldiko ohiko dirusarreren emaitza 15.618 milioitan gehitu da, alegia, ehuneko 7,47 aurreko urtearen aldera. Azpimarratzekoak dira PFEZtik eta Sozietateen gaineko Zergatik heldu diren dirusarreren igoera –9.509 milioi pezeta (ehuneko 9,33)– eta produkzioari loturiko tributuena –4.762 milioi (ehuneko 5,12)–. Portzentaian azpimarratzekoa da korrituak direla-eta izan diren dirusarreren igoera (1.292 milioi pezeta).

Ohiko gastuei dagokienez, ehuneko 10,27 gehitu dira aurreko ekitaldikoekin alderatuta, hau da, 10.705 milioi pezeta. Finantzaketa gastuak 4.677 milioi pezeta igo dira, hau da aurreko urtean irabazitakoaren ehuneko 50. Hori jaulkipenaren korrituen ordainketa hasi izanari zor zaio batez ere, 1995eko maiatzaren 12an. Azpimarratzekoa da ere langileria gastuak 4.625 milioitan igo direla, nahiz eta oraingoan ehuneko 6,56ko igoera erlatiboa adierazten duen.

• Transferentzien eta dirulaguntzen saldoa.

Transferentzien ondoriozko gastuak ehuneko 9,25 gehitu dira, batez ere FSEtik heldu diren dirusarrerak igo direlako.

Jatorri hori duten gastuak ehuneko 2,73 hazi dira, nahiz eta dirusarrerak nabarmen handiagoak izanik, igoera absolutua haiek gainditzen dituen. Azpimarratzekoa da ohiko transferentziak 1.982 milioi igo direla, kapitaleko 890 milioien aldera, nahiz ete igoera horiek zenbaki erlatiboetan antzekoak diren.

Ez dira sartu jaso diren kapitaleko dirulaguntzak, ohiz kanpoko emaitzei aplikatzen zaizkienak.

• Ohiz kanpokoak.

Ekitaldiaren ondoriozko ohiz kanpoko galerak ehuneko 52 gutxitu dira – 7.800 milioi –. Gutxitze hori zor zaio bai ohiz kanpoko irabazien igoera nabarmenari (ehuneko 113), bai galerak jaitsi izanari (ehuneko 18,8), nahiz eta zenbaki erlatiboetan horrek garrantzi gutxiago duen. Lehenbizikoa jasotako kapitaleko dirulaguntzen igoeraren ondorioa da eta bigarrena erabilera orokorrerako jabari publikoko ondasunetan egindako inbersio txikiagoei zor zaie.

Aurreko ekitaldien ondoriozko emaitza negatiboa ehuneko 20 gehitu da. Hori 5.236 milioi pezetako eskubideak ezabatzeari zor zaio; aldi berean 330 milioi pezetako obligazioak deuseztu dira.

### 3. ERANSKINA. 1996KO AURREKONTUAREN BETETZE-MAILAREN AZTERKETA ETA ZENTSURA.

“Norainokoak eta mugak” atalean adierazi bezala, aurrekontuaren betetze-mailaren azterketa Nafarroako Gobernuak garaturiko programa eta jarduerak fiskalizatuz egin da.

Jarduketak eta haien zenbateko osoa (milioitan) hauexek izan dira:

| | Zenbatekoa | |
|---|---|---|
| Programa/jarduera | Gastuak | Dirusarrerak |
| Osasunbideako langileen kudeaketa III | 33.383 | – |
| Su-itzaltze Partzuergoa | 1.707 | 1.707 |
| Langileen kudeaketa II (Hezkuntza) | 28.106 | – |
| Nafarroako Unibertsitate Publikoa | * | * |
| Iruñeko espetxearentzako laguntzak | 126 | 63 |
| Minusbaliatuen programa | * | * |
| Estatuarekiko Hitzarmena | 21.691 | – |
| Tributuak | – | 209.953 |
| Guztira | 85.103 | 211.723 |
| Aurrekontuaren % | 33 | 82 |

* 1995eko aurrekontuari dagozkie

Eginiko landaren ondorioak hiru bloke handitan bildurik agertzen dira. Lehengoa aurrekontuaren kapitulukako betetze-mailaren sailkapen ekonomiko edo ohiko azterketari dagokio. Bigarren sortan, haren berezitasunagatik, Estatuarekiko Hitzarmen

Ekonomikoko Programa aztertzen da bakarrik. Azkenik, jarduera publikoaren zentzuzkotasuna egiaztatzen eta ebaluatzen dugu, aurrekontuetako baliabide publikoak erabiltzerakoan ekonomia, eraginkortasun eta zintzotasun hatsapenak kontutan harturik.

3.1. AURREKONTUAREN BETETZE-MAILA, KAPITULU EKONOMIKOEN ARABERA.

Atal honetan, gastu eta dirusarrera kapitulu ekonomikoak ukitzen dituzten izaera orokorreko gorabeherak aztertzen ditugu. Kapitulu horien betetze-mailaren sailkapena 2 eranskinean agertzen da.

G A S T U A K

**3.1.1. Langileak.**

Alor honetan eginiko lana atal hauetan egituratzen da:

• 1996ko gastu aurrekontuko 1. kapituluko aurrekontuaren betetze-mailaren azterketa.

• 1996ko abenduaren 31ko plantila organikoaren azterketa

• 1996ko absentismoa

Azken atal hauetako datuak Lehendakaritza Departamentuko Langileri Zerbitzuak prestaturiko txostenetik datoz gehienbat. Eskerrak eman nahi dizkiegu horregatik.

**a)** Aurrekontuaren betetze-mailaren azterketa

Gastuen 1. kapituluko obligazio aitortuek 78.335 milioi egiten dute. Haien betetze-maila ehuneko 97,6koa da eta ekitaldian gauzaturiko gastuaren ehuneko 31 egiten du. Horregatik, 1994an eta 1995ean bezala, gastatu diren ehun pezetetatik 31 langileen gastuetan erabili dira.

1. kapituluko hasierako kredituak bi kreditu osagarriren bidez gehitu ziren: bata, Hezkuntza eta Kultura Departamentuarena, aldi baterako kontratazioa finantzatzeko, eta bestea Lehendakaritza Departamentuarena, langileriaren arloko epaiak bete ahal izateko.

Aurrekontuko artikuluen arabera, kontzepturik esanguratsuenak funtzionarioen eta kontratupekoen lansariak dira –langileen gastuaren ehuneko 77,5–, gizarte kuota eta prestazioak –ehuneko 17,2– eta langileen lansari aldakorrak –ehuneko 4,3–.

Departamentuka, gastuaren ehuneko 79 Osasunari eta Hezkuntzari egotzi zaie.

Aurreko ekitaldiari dagokionez, langileen gastuak ehuneko 6,5 gehitu dira. Gehitze horren zioa da, 1996 urterako onetsitako lansarien igoera, ehuneko 3,5ekoa, Osasun eta Hezkuntza Departamentuetako aldi baterako kontratuetatik heldu diren gastuen igoera, gizarte kuota, prestazio eta gastuen igoera, eta gradu eta antzinatasunak direla eta sorturiko desbideraketak.

**b)** Plantila organikoa.

1996eko abenduaren 31ko plantila organikoari dagokionez, Nafarroako Gobernuko Langileri Zerbitzuak prestaturiko azterketaren arabera, datu interesgarri hauek nabarmentzen ditugu:

• Plantilan agertzen diren lanpostuak 16.093 dira. Horietarik, ehuneko 7 –1.113– “ez oinarrizkoak” dira; halakotzat hartzen dira Administrazioaren egitura ierarkikoaren ondorioz sortzen direnak eta unean uneko Gobernuak ezartzen duen antolamenduaren menpe daudenak. Lanpostu horiek behin behinekoak dira.

1995 urtearekin alderatuz, plantila ehuneko 2 igo da –339 lanpostu–.

• Beteriko lanpostuak, bai oinarrizkoak bai ez-oinarrizkoak, 13.900 dira. Beterik dauden oinarrizko lanpostuak 12.918 dira eta horietatik ehuneko 76 Osasun Departamentukoak –5.016– eta Hezkuntza Departamentukoak –4.898– dira.

• 2.042 lanpostu betegabe daude, hots, ehuneko 13. Osasun Departamentuan daude gehienak – 942 lanpostu betegabe–. Atzetik Hezkuntza Departamentuak jarraitzen dio –bete gabeko 457 plaza–.

• Betetako lanpostuen artean, ehuneko 42 gizonezkoek betetzen dituzte eta ehuneko 58 emakumezkoek.

• Araubide juridikoaren arabera, ondokoa da azken hiru urte hauetako bilakaera beteriko lanpostuetan.

| Araubide juridikoa | % 1994 | % 1995 | % 1996 |
|---|---|---|---|
| Funtzionarioak | 13 | 5,7 | 5,5 |
| Langile finkoak | 8,6 | 1,5 | 1,5 |
| Langile jarraigabeak | 0,4 | 0,4 | 0,5 |
| Guztira | 100 | 100 | 100 |

• Maila aintzakotzat harturik, koadro honetan, portzentaietan, lanpostu beteak eta betegabeak erakusten dira.

| Maila | Beteak, % | Betegabeak, % |
|---|---|---|
| A | 23 | 21 |
| B | 39 | 20 |
| C | 9 | 5 |
| D | 21 | 41 |
| E | 8 | 13 |
| Guztira | 100 | 100 |

Alegia, lanpostu beteen ehuneko 62 A eta B mailetakoak dira. Betegabeen artean, portzentaiarik altuena D mailan dago –ehuneko 41–.

Abenduan, guztira 17.419 izan ziren nomina jaso zuten pertsonak. Horrek esan nahi du behin behineko lanpostuen portzentaia altua dela –ehuneko 27–.

**d)** Absentismoa, 1996.

Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak lan absentismoa neurtzeko jardunbide parekatua ezarri du. Horretan, lan baja (gaisotasun edo istripuagatik, baja medikoarekin edo gabe) eta amatasun-baimena ez ezik, gaurko arauterian aurreikusten diren bestelako zioak ere (prestakuntza, euskara, norberaren aferak eta sindikatuen jarduera) sartzen dira.

Prestaturiko jardunbidea Foru Komunitateko Administrazioko eta haren erakunde autonomoetako langile guztiei aplikatzen zaie, irakasleei salbu, Hezkuntza Departamentuak beste sistema bat aplikatzen die eta.

Lorturiko emaitzak hauexek dira:

• 1996an, langile publikoen absentismoa (irakasleena ezik) 7,26 egunekoa da.

• Zioak aintzakotzat harturik, absentismoa honela sailkatzen da:

| Zioak | Absentismoa 1995 | Absentismoa 1996 |
|---|---|---|
| Lan baja (*) | 4,25 | 4,50 |
| Amatasuna | 0,65 | 0,68 |
| Prestakuntza eta euskara | 0,68 | 0,54 |
| Norberaren aferak | 0,28 | 0,93 |
| Ordainduriko baimenak eta sindikalak | 1,32 | 0,61 |
| Guztira | 7,18 | 7,26 |

(*) Baja medikoarekin eta gabe

• Zentroka, absentismoa honela sailkatzen da:

| Zentroak | Absentismoa 1995 | Absentismoa 1996 |
|---|---|---|
| Lehendakaritza | 10,16 | 10,17 |
| NAPI | | 8,68 |
| Ekonomia eta Ogasun | 2,66 | 1,71 |
| Toki Administrazioa | 5,08 | 6,60 |
| Ingurugiroa, Lurraldearen Antolamendu eta Etxeb. | 4,65 | 3,58 |
| Hezkuntza eta Kultura | 8,33 | 6,69 |
| Osasuna | 9,23 | 11,58 |
| Osasunbidea | 6,82 | 7,35 |
| Nafarroako Lan Osasunaren Institutua | 17,96 | 8,85 |
| Herrilan,Garraio eta Komunikazioak | 9,47 | 10,37 |
| Nekazaritza,Abeltzaintza eta Elikadura | 4,36 | 4,25 |
| Nmez | 4,80 | 3,49 |
| Industria, Merkataritza, Turismo eta Lan | 7,70 | 8,21 |
| Gizarte Ongizate | | 3,92 |
| Gizarte Ongizatearen Institutua | 9,43 | 8,98 |
| Kirol eta Gazteriaren Institutua | 11,79 | 3,50 |
| Guztira | 7,18 | 7,26 |

Ikusten den bezala, absentismoaren guztizko portzentaiak aurreko ekitaldikoen antzekoak dira oso, nahiz eta igoera txiki bat izan den.

Langileen gastuen kapitulua bukatzeko, aurreko txostenetan emaniko gomendiorik esanguratsuenak bilduko ditugu, funtsean indarrean diraute eta.

• Langileria alorra arautzen duen “marko juridikoa” ez betetzea.

Arlo honetako marko juridikoa garatzeko legezko aginduen ez-betetze nabarmenen artean hauxek daude:

a) Ez dago legerik Nafarroako Administrazio Publikoetako funtzionarioak talde edo kidegoetan sailkatzen dituenik. Horrek zailago egiten ditu funtzionarioen barne-igoera eta mugikortasuna.

b) Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko funtzionarioen eskubide pasiboen arautzea.

*Nafarroako Gobernuari gomendatzen diogu legezko aginduak betetzeko edo, hala bada, bestelako langileri politikarik prestatu eta ezartzeko.*

• Langileriaren kudeaketa.

a) Nafarroako Aurrekontu Orokorretan hiru sailkapen – ekonomikoa, organikoa eta funtzionala – erabiltzen direnez eta horiek aurrekontuetako programen bidez aurkezten direnez, aurrekontulerro asko erabili behar dira. Hori dela eta oso nahasia da aurrekontuetako saldoak saldoak kontrolatzea eta beharrezkoa izaten da giza eta gauzazko baliabide garrantzitsuak ibiltzea.

b) Nomina kontabilizatzeko atzerapenek, neurri batean, aurreko zioengatik, zailago egiten du haiek erregistratu, jarraitu eta kontrolatzea. Horrek eraginez, kontu horretan, Nafarroako Gobernuaren kontabilitatea ez da beti osagai erabilgarria langileria kudeatzeko ez eta euskarri bat erabakiak hartzerakoan ere.

*Gure gomendioa da Nafarroako Gobernuko langileria gastuak aurkeztu eta burutzeko gaurko jardunbidea aztertzea, gaurko aurrekontu-informazioak dakarren kostua eta erabilgarritasuna kontutan harturik, bai jarraikitzeko, bai baliabide publikoak behar bezala kudeatzea posible egiten duten neurriak hartzeko.*

• Lansari eredua.

*Gure gomendioa da Nafarroako Administrazio Publikoetako lansari ereduan zenbait osagai aldakor sartzeko ikerketak egitea, lanpostuaren, ekoizkortasunaren eta lorturiko xedeen arabera. Neurri horiek ekarriko dute osagarriak aplikatzea, motibazio eta barne-igoerarako, langile publikoei bihotz emateko.*

### 3.1.2. Ohiko ondasunak eta zerbitzuak.

Aurrekontuko 2. kapituluan aitorturiko obligazioek 23.397 milioi egiten dute. Haien betetzemaila ehuneko 96koa da eta gastu guztien ehuneko 9 egiten dute.

1995ari dagokionez, izaera horretako gastuak ehuneko 5,7 gehitu dira.

Departamentuka, nabarmenenak Osasuna –13.821 milioi–, Hezkuntza –3.834 milioi– eta Lehendakaritza –1.742 milioi– dira.

Artikulu ekonomikoka sailkatuta, ondokoa da 1996ko ekitaldiaren exekuzioa, aurreko ekitaldiarekin alderatuta (milioi pezetatan):

| Artikulo ekonomikoa | 1995 | 1996 | Portzentaia |
|---|---|---|---|
| Errentamenduak eta kanonak | 398.448 | 416.528 | 4,5 |
| Konponketak, mantenimendua eta kontserbazioa | 843.093 | 912.855 | 8,2 |
| Zerbitzu dela-eta beharreko kalteordainak | 519.942 | 490.024 | (5,7) |
| Argitalpen gastuak | 346.608 | 390.882 | 12,7 |
| Osasun laguntzako itunak | 3.041.420 | 3.096.802 | 1,8 |
| Guztira | 21.189.124 | 22.396.535 | 5,7 |

Berezko lan gisa, ondasun arrunten eta zerbitzuen arloa berraztertu da:

a) Errentamenduak eta kanonak.

b) Nafarroako Osasun Zerbitzuko zentroetako arropa alokatu, garbitu eta lisatzea (“materiala, hornidura eta beste” artikuluan sartu da).

c) Tuterako osasun barrutiko mantenimendu kontratuak burutzea (“materiala, hornidura eta beste” artikuluan sartu da).

**a)** Errentamenduak eta kanonak.

1996an 416,5 milioi pezetako exukuzioa du. Ehuneko 4,5 igo da aurrekon ekitaldiarekin alderatuta. Hauxe da horren azalpena kontzeptuz kontzeptu (mila pezetatan):

| | 1995 | 1996 |
|---|---|---|
| Eraikinen errentamenduak | 199.101 | 183.220 |
| Finken errentamenduak | 5.207 | 4.562 |
| Kuotak | 624 | 480 |
| Ekipo eta programen alokairua | 191.878 | 227.151 |
| Fotokopiagailua, makineria eta beste | 1.637 | 1.114 |
| Guztira | 398.447 | 416.527 |

• Eraikinen errentamendua Ekonomi eta Ogasun Departamentauri dagokio, Ondareari buruzko Foru Legearen 18. artikuluari jarraituz, eta horren kudeaketa Ondare Zerbitzuan zentralizaturik dago. Kontzeptu hau idazpuruaren ehuneko 44 da.

Ondare Zerbitzu horretan, espediente bat egiten da alokairu bakoitzeko –espediente horren barrenean gordetzen da dokumentazio guztia– eta gastua behar bezala kontabilizaturik dago, beste kode ekonomiko batean erregistraturiko 29,1 miloi kenduta.

• Ekipo eta programen alokairua 227,1 milioi pezetako gastua da, hau da, guztizko gastuaren ehuneko 54.

• Bi aurrekontu-lerrok informazio ekipo eta programen errentamenduarengatik dagoen gastua biltzen dute.

Ekipo eta programen Alokairuen Lerroa Azpiegitura Zerbitzuak eta informatika zentroak kudeatzen dute, eta haren gastua Nafarroako Gobernuak erabiltzen dituen iformatika-programak erabiltzeko lizentziei dagokie. Guztira 166,4 milioi egiten du.

Programen Lizentzietako Lerroaren kontrola Informazioaren Biltegi eta Teknologi Zerbitzuak egiten du, eta Microsoft produktuak erabili ahal izateko erabilpen lizentziak erosteari dagokio. Zenbatekoak 60,7 milioi pezeta egiten du.

Kontratuei buruzko azterketa bat egin ondoren, ateratzen den ondorio da Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko 13/1995 Legeak ezarritako baldintzak betetzen dituztela; espedienteek behar den dokumentazio guztia biltzen dute.

**b)** Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren alokairu, garbiketa eta lisaketa kontratuak.

Gastuaren erregulartasunaren ikuspuntutik, ez dago garrantzizko iritzirik txosten horretan. Gomendio guztiak kontratazio prozesuan eta horrek kontratatutako zerbitzuaren eraginkortasunean izango duen eraginean zentratzen dira –eragiketa azterlanean biltzen dira aspektu horiek, 3.3. idazatian eta 4. idazatian, kontratazio publikoari buruzko berariazko azterketa–.

**c)** Tuterako osasun barrutiko mantenimendu orokorreko kontratuak.

Egindako lana 1997ko maiatzaren 27ko 38 zk.ko NPAOn argiratatu zen. Hauexek dira ondorioak:

• Ondorio orokor gisa baieztatu dezakegu kontratuaren exekuzioa, orokorrean, bai kontratuan bai kontraprestazioa arautzen duten plegu administratibo eta teknikoetan ezarri ziren baldintza eta beharkizunetara egokitzen dela.

• Esleipen hartzaileak egindako lan guztietan, dagokion ordainagiria dago. Ordainagiri horrek beti aldean du osasun barrutiko mantenimenduko buruaren oniritzia. Kontratuari buruzko ordainagirietan, egiaztatu da, gainera, aplikatutako prezioak bat datozela hura erregulatzen zuten arauetan ezarritakoekin.

• Mantenimendu jarduera arruntaz kanpo egindako lanengatik luzatutako ordainagiriak esleipen hartzaileak proposamen ekonomikoan ezarritako prezioei dagozkie.

• Dena den, Ganbara honek uste du mantenimendu barruti horretako barneko kontrola indartu beharko litzatekeela, hain zuzen ere dokumentazioan behar diren lan-aginduak eta lan-gaztiguak bil daitezen, lan egokiak direla erabat bermatu ahal izan dadin.

Neurri horiek aplikatzeak ekarriko luke lan administratiboa handitzea, jarraipen eta kontrol egokiak egiteko.

**3.1.3. Finantza gastuak.**

Aurrekontuko 3. kapituluko obligazio aitortuek 14.201 milioi egiten dute. Haien betetze-maila ehuneko 100ekoa da eta ekitaldiko gastu guztien ehuneko 5,6 egiten dute.

Hurrengo koadroan, kapitulu honek 1992tik 1996ra bitarte izaniko bilakaera azaltzen da:

| Ekitaldia | Zenbatekoa |
|---|---|
| 1992 | 261 |
| 1993 | 5.006 |
| 1995 | 9.525 |
| 1996 | 14.201 |

1995 urteren aldera izan den ehuneko 49ko gehikuntza zor publikotik heldu diren finantzaketa-gastuetatik dator, batez ere.

Ondokoa da ekitaldiko finantzaketa gastuen azalpena (milioi pezetatan):

| | |
|---|---|
| Zorraren korrituak | 12.717 |
| Insalud saneatzeko eragiketaren korrituak | 559 |
| Nafarroako Zorraren ordainketa inplizituak | 583 |
| Zorra jaulki, aldatu eta deusezteko gastuak | 239 |
| BCL maileguaren korrituak | 2 |
| Banaketa kontuaren korrituak eta beste | 69 |
| Ordainketak izapidatzeko atzerapen-korrituak | 32 |
| Guztira | 14.201 |

"Zorraren interesak" aztertu ondoren, uste dugu arrazoizkoak direla, bai eta BCLari dagozkioen gainerako korrituak eta banaketa kontua ere.

"Insalud saneatzeko eragiketaren korrituak" izenekoari dagokionez, aurreko ekitaldietan azalduta dago Hitzarmen Ekonomikoaren barruan. Nafarroak Insaludeko trasnferentziak eskuratu zituenez, Insaludi egotzi gabeko 1991eko abendua baino lehenagoko obligazioen zordun da. Nafarroa, ondorio horretarako, diru-zenbateko bat jasotzen du, baina Estatuak Insalud saneatzeko jaulki zuen zorraren dagokion parte ordaindu behar du. Bere garaian amortizazio koadro bat

onetsi zen; haren arabera 1996an 559 milioi pezeta ordaindu beharko lituzke.

“Nafarroako zorraren ordainketa inplizituak” –epe luzerako hartzekodunei buruzko puntuan aztertu dugu hau– zuzenean egozten zaizkie finantzaketa-gastuei, baina kontabilitate-arauei jarraituz atzeratu egin beharko lirateke.

**3.1.4. Ohiko transferentziak.**

4. kapituluko obligazio aitortuek 80.853 milioi egiten dute. Haien betetze-maila ehuneko 94koa da eta ekitaldiko gastu guztien ehuneko 32 egiten dute.

Aurreko ekitaldiaren aldean ehuneko 2,5 gehitu da. Dena den, 1996an Estatuari 18.699 milioi pezeta ordaindu zaizkio, hitzarmen ekonomikoaren ondoriozko ekarpen gisa, nahiz eta 1995eko ekarpena 21.163 milioi pezetakoa izan zen (1996an, 2.464 milioi gehiago).

Ondorioz, 1995 urtearen aldean, kapitulu honetako gastuaren gehikuntza 7,7koa izan da, kontzeptu hori kenduta.

Transferentzia horien xede diren sektoreak koadro honetan biltzen dira (zenbatekoa milioitan):

| Sektoreak | Zenbatekoa | % |
|---|---|---|
| Estatua | 18.699 | 23 |
| Enpresa eta ente publikoak | 7.120 | 9 |
| Udalak eta kontzejuak | 18.343 | 22 |
| Enpresa pribatuak | 2.317 | 3 |
| Familiak eta erakundeak | 34.374 | 43 |
| Guztira | 80.853 | 100 |

• Estatua. 1996an hitzarmenaren ondorioz egin zen ordainketa biltzen du; haren azaterketa txosten honetako 3.2. idazatian ageri da.

• Enpresa eta ente publikoak. Kontzeptu honen barruan Nafarroako Unibertsitate Publikoaren 3.386 milioi pezeta biltzen dira baita Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuarako 1.529 milioi pezetako zenbatekoa ere; Horri buruzko ondorioak txostenaren 3.3. idazatian bildu dira.

• Toki korporazioak. Funtsean Toki Administrazioko Departamentuak partehartze fondoko toki korporazioei egindako transferentziak biltzen ditu.

• Enpresa pribatuak. Nekazaritza eta Industri Departamentuaren laguntzen kudeaketa biltzen du, funtsean. Laguntza horiek 1995eko kontuetan berrikusi ziren.

• Familia eta erakundeak. Zenbatekorik handiena biltzen du –guztizkoaren ehuneko 43-; bertan, kontzeptu zenbait sartze dira, esate baterako itupeko irakaskuntza pribatuari emandako dirulaguntzak (8.566 milioi pezeta), ikasleentzako bekak (1.270 milioi pezeta), GOINaren hitzarmenak eta egonaldiak ordaintzeko erabilitako 3.271 milioi pezeta, pentsio lagungarrietarako 351 milioi pezeta, 1.581 milioi pezeta zergarik gabeko pentsioetarako, 641 milioi pezeta LISMI pentsioetarako, 820 milioi pezeta oinarrizko gizarte zerbitzuetarako eta 1.203 milioi pezeta nazioarteko kooperazio proiektuetarako.

GOINaren eskualdaketa kontzeptu horiek 1995eko ekitaldian aztertu ziren “minusbaliatuei arreta egitea” programaren barrenean, eta 1997ko 55 zk.ko NPAOn argitaratu zen.

Arlo honetan, 3. eranskin honen hasieran aipaturiko txostenei buruz egindako azterketatik eta eta azken ekitaldietan egindako ahaleginetik abiatuta, gure ondorioa da laguntzei eta dirulaguntzei buruzko arauteria orokorrik ez dagoela eta asko direla haiek emateko eta jarraikitzeko arauteri berariazkoak. Horiek elkarrengandik ezberdinak dira eta oinarrizko gorabehera batzuk ez dituzte biltzen edo ez behar bezala, hala nola:

• Hautatzean aplikaturiko irizpideen definizioa.

• Diruz laguntzen ahal den gehieneko zenbatekoa objektiboki zenbatzeko irizpideak ezartzea.

• Zehaztea zer gastu laguntzen ahal diren diruz.

• Onuradunak zerga betebeharrak eta gizarte segurantzarekikoak egunean izateko eginbeharra.

• Espreski finkatzea, hala bada, zer kontrapartida Nafarroako Gobernuaren alde dakartzan berarekin dirulaguntza lortzeak.

• Dirulaguntzaren onuradunak arauak betetzen ez baditu, dirua itzuli eta berriro ordaintzeko tresnak.

Joan den urteko kontu orokorretan gomendatzen genuen Nafarroako Gobernua hornitzea arau bilduma batez, alde batetik, dirulaguntzak ematerakoan, zabalkunde, lehiakortasun eta aukera berdintasun hatsapenak aplikatzen direla bermatzeko eta, bestetik, haiek egokiro aplikatzea, behar diren barne kontroloeko tresna eta jardunbideak ezarriz.

Zentzu horretan, Nafarroako Gobernuak 1997ko ekainaren 29ko 74 zk.ko NAOn argitaratu zen aratueria burutu du. Horren bidez Nafarroako Foru Komunitateak eta haren erakunde autonomoek dirulaguntzak eman, kudeatu eta kontrolatzeko araubide orokorra arautzen da.

### 3.1.5. Inbertsioak.

6. kapituluan aitorturiko obligazioek 23.096 milioi egiten dute. Haien betetze-maila ehuneko 81ekoa da eta gastu guztien ehuneko 9 egiten dute.

Koadro honetan kapitulu honek 1991tik 1996ra bitarte izan duen bilakaera aztertzen da, milioi pezetatan:

| Ekitaldia | Zenbatekoa | Indizea | Aurrekontuaren % |
|---|---|---|---|
| 1991 | 40.744 | 100 | 18 |
| 1992 | 38.125 | 94 | 17 |
| 1993 | 34.675 | 85 | 15 |
| 1994 | 31.479 | 77 | 14 |
| 1995 | 28.293 | 69 | 12 |
| 1996 | 23.096 | 57 | 9 |

Ikus daitekeenez, 1991tik 1996ra bitarte, inbertsioetarako hornidurak ehuneko 43 gutxitu dira, hots, 17.648 milioi pezeta arrunt. Aurrekontu osoaren gaineko eragina ere ehuneko 9 gutxitu da. Beraz, 1996an aurrekontuan agertzen den guztizkoaren ehuneko 9 da, hau da, 1991ean zegoenaren erdia.

Inbertsioetarako aurrekontua 18.611 milioi pezetakoa da eta egindako inbersioa 23.096 milioikoa da –5.515 milioi daude, burutu gabeko inbertsioei dagozkienak—.

Nagusiki, burutze maila eskas horren arrazoia Herrilan Departamentuan dago eta zehazkiago errepideetan egin beharreko inbertsioetan. Xede horretarako 3.012 milioi pezetako gerakina dago. Ingurugiro Departamentuan ere 704 milioi pezeta daude, egin gabeko inbertsioei dagozkienak.

Departamentuka hartuta, inbertsioen ehuneko 49 hartzen dituena Herrilan Departamentua da –11.285 milioi pezeta inbersioetarako–. Departamentu horretan, azpimarratzekoa da bide sarea zabaldu eta kontserbatzeko egindako inbertsioa –10.281 milioi pezeta– eta obra hidraulikoetarako inbertsioak –424 milioi pezeta–. Hezkuntza eta Kultura Departamentuak, 1996an, 3.098 milioi pezeta inbertitu ditu eta Ingurugiro Departamentuak 2.164 milioi pezeta.

Inbertsioen kontratazio publikoan legezkotasun hatsapena betetzen ote den, txosten honetako 4. Eranskinera igortzen da, non afera hori zehatz-mehatz aztertzen baita.

Azkenik, 1996ko Kontu Orokorrek, gure gomendioei jarraikiz, obra handien burutzeari buruz informazioa badaukatela. Hala ere, informazioak esleipenaren prezioa eta urtean-urtean ordaindua besterik ez du adierazten.

*Gure gomendioa da informazio hori osatzea, aurreikuspen, burutze eta ordaintzeke dagoenari buruzko datuak bilduz, bai zenbatekoari dagokionez, bai obra portzentaiari dagokionez. Halaber, obra bati loturiko kostu kontzeptu guztiak sartu beharko lirateke.*

### 3.1.6. Kapital transferentziak.

7. gastu kapituluak 27.232 milioi egiten duten obligazio aitortuak dauzka. Haien betetze-maila ehuneko 92koa eta guztien ehuneko 11 egiten dute.

1995etik, 890 milioitan gehitu da, hots, ehuneko 3,4.

Departamentuka, ondokoak dira esanguratsuenak: Toki Administrazioa –5.625 milioi–, Nekazaritza –5.184 milioi–, Industria –5.087 milioi– eta Ingurugiroa –6.751 milioi–.

Helburuei dagokienez, ondoko sektoreetan zentratzen da, batez ere (zenbatekoa milioitan):

| Sektoreak | 1995 | 1996 | % |
|---|---|---|---|
| Enpresa eta ente publikoak | 1.104 | 1.017 | (8) |
| Udalak eta kontzejuak | 8.408 | 8.617 | 2 |
| Enpresa pribatuak | 10.102 | 10.501 | 4 |
| Familiak eta erakundeak | 6.727 | 7.097 | 5 |
| Guztira | 26.341 | 27.232 | 3,4 |

Kapitulu honetan aplikatzekoak dira transferentziei buruz kasuan-kasuan egin eta ohiko izaerakoetan adieraziriko lanetatik atera diren ondorio eta gomendioak.

### 3.1.7. Finantza aktiboak.

6.225 milioiko gastua du. Haien betetze-maila ehuneko 99koa da.

1995aren aldean, 3.131 milioitan gehitu da, alegia, ehuneko 101, gehienbat sektore publikoko akzioak erosi direlako. 1995ean kontzeptu hori dela-eta 20 milioi exekutatu baziren, 1996an 3.095 milioi exekutatu dira. Horietatik, 3.000 Nafincoren akzioak erosteko erabili ziren, 70 Iruñeko Garraioetarako Terminerako eta 25 hondakin bereziak kudeatzeko Sozietaterako.

Gastuaren izaera funtsean Sektore Publikoari –2.653 milioi– eta Sektore Pribatuari –294 milioi– emaniko mailegu eta aurrerapenak dira.

Aurrekontuetako gastu hauei buruzko iruzkinak balantzeko kasuan kasuko ataletan agertzen dira.

**3.1.8. Finantza pasiboak.**

9. kapituluko gastuek 781 milioi egiten dute. Gastu aurrekontuko betetze-maila ehuneko 99 da. Ondotik azaltzen da horren saldoa:

| | |
|---|---|
| Nafarroako Zor Publikoaren amortizazioia | 755 |
| BCL maileguen amortizazioa | 20,5 |
| Zor publiko bereziaren amortizazioa | 5,5 |
| Guztira | 781 |

Nafarroako zorraren amortizazioa, 755 milioi, 30.000 milioiko zorraren amortizaziotik 29.245 milioi pezetako aulkipen berrira –1996an– dagoen alde garbia da.

Hori epe luzerako zorrak izeneko puntuan aztertu da, Balantzearen 2.2.2. puntuan. Ateratzen den ondorioa da kontabilitate publikoko hatsapenak aplikatuz gero, kitatutako zorraren 30.000 milioi pezeta gastu gisa erregistratu behar zirela eta 29.245 milioi pezeta jaukipen berria dela-eta izandako dirusarrera gisa.

D I R U S A R R E R A K

**3.1.9. Zuzeneko eta zeharkako zergak.**

Atal honetan zuzeneko eta zeharkako zorren izaera eta betetze-mailari buruzko datu nagusiak aztertuko ditugu, egitura honen arabera:

• Alderdi orokorrak, non ekitaldiko aurrekontuaren betetze-maila eta azkeneko ekitaldietako bilakaera aztertzen baitira.

• Kontabilitateko irizpideak, ekitaldiari aplikatzen ahal zaizkionak egiaztatzen, zordunen atalean eginiko iruzkinak (2.1.5. Eranskina) kontutan harturik.

• Zerga ikuskaritza

• Zerga figura bakoitzerako, kasuan kasuko iruzkinak eta haien betetze-mailaren ondoriozko iruzkin bereziak

Ondoren aurreko atalak garatuko ditugu.

• ALDERDI OROKORRAK.

“Zuzeneko zergak” izeneko 1 kapituluan aitorturiko eskubideek 111.420 milioi egiten dute; haien betetze-maila ehuneko 103koa da. Dirusarreren aurrekontuko eskubide likidatuen ehuneko 43 dira, 1995eko ekitaldian baino 4 puntu gehiago.

1995arekin alderatuz, zuzeneko zergak ehuneko 9 gehitu dira. Horrek guztira 9.509 milioi pezeta gehiago egiten du dirusarreretan. Ia-ia gehikuntza hori PFEZari eta Sozietateen gaineko Zergari dagokie osorik, 3.378 eta 5.647 milioi, hurrenez hurren.

Kapituluaren osaketari dagokionez, aitorturiko eskubideak honela sailkatzen dira portzentaietan, aurreko ekitaldiarekin alderaturik:

| Zuzeneko zergak | 1995 | 1996 | Desbider. |
|---|---|---|---|
| PFEZ | 75 | 71 | (4) |
| Sozietateen gainekoa | 21 | 25 | 4 |
| Ondarearen gainekoa | 3 | 3 | – |
| Ondorengotzeen gainekoa | 1 | 1 | – |
| Guztira | 100 | 100 | – |
| Guztiaren % | 39 | 43 | 4 |

Ikus daitekeenez, sozietateen gaineko zergak eragin handiagoa du, PFEZak garrantzia erlatiboa galdu duelarik kapitulu honetan –4 puntu–. Bestaldetik, aipatzekoa da zuzeneko dirusarrerek ekitaldiko dirusarrera guztien ehuneko 43 egiten dutela eta aurreko ekitaldiaren aldean ehuneko 4 gehitu direla.

Zeharkako zergak izeneko 2 kapituluak 97.733 milioiko eskubide aitortuak dauzka. Kapituluko aurrekontu bateratuarekiko haren betetze-maila ehuneko 103koa da. BEZak eta Fabrikazioaren gaineko zerga bereziek ehuneko 100 baino gehiago egiten dute, ehuneko 105 lehenbizikoak eta ehuneko 115 bigarrenak. BEZa dela-eta izandako dirusarreretan, bereizi behar dira Ekonomi eta Ogasun Departamentuak egindako kudeaketa –63.973 milioi pezeta eta ehuneko 116ko burutze maila– eta “BEZa dela-eta egindako doiketak”, indarra duen Estatuarekiko hitzarmen ekonomikoa aplikatzetik datorrena –15.354 milioi pezetako eskubide ezagutuak ditu eta ehuneko 74ko burutzea, 1996ko laugarren hiruhileko “BEZa dela-eta egindako doiketak” ez direlako kontabilizatu.

2. kapituluan likidatutako eskubideak 1996ko ekitaldiko dirusarreren aurrekontutik likidatu diren eskubideen ehuneko 38 dira, 1995ean baino 2 puntu gehiago.

Aurreko ekitaldiari dagokionez, kapituluko betetze-maila ehuneko 5 gehitu da, osorik 4.762 milioi gehiagoko eskubideak egiten dituena. Zerga figuren arabera, BEZa ehuneko 6 gehitu da, Fabrikazioaren gaineko zerga bereziak ehuneko 20 eta Garraiobideen gaineko zerga bereziak ehuneko 5. Ondare eskualdaketak ehuneko 15 jaitsi dira eta egintza juridiko eta dokumentatuak ehuneko 11.

Portzentaietan eta aurreko ekitaldiari dagokionez, 2 kapituluko osaketa ikus dezakegu:

| Zeharkako zergak | 1995 | 1996 | Desbider. |
|---|---|---|---|
| Eskualdaketen gainekoa | 5 | 4 | (1) |
| Egintza juridikoen gainekoa | 5 | 5 | – |
| BEZa | 81 | 81 | – |
| Bereziak | 7 | 8 | 1 |
| Garraiobideen gainekoa | 2 | 2 | – |
| Guztira | 100 | 100 | – |
| Aurrekontuaren % | 36 | 38 | 2 |

Labur bildurik, zeharkako zergengatik biltzen diren ehun pezetatik 81 BEZaren ondoriozkoak dira. Bestaldetik, zeharkako zergen eragina % 2 gehitu da aurrekontuari dagokionez.

Beraz, zuzeneko eta zeharkako zergek Nafarroako Gobernuaren dirusarreren ehuneko 81 egiten dute, hots 209.152 milioi pezeta.

Hurrengo koadroetan dirusarrera horiek 1991tik 1996ra bitarte izaniko bilakaera agertzen da.

a) Pezeta arruntetan

| Zuzenekoak | 1992 | 1993 | 1994 | 1995 | 1996 | 96/95 ald. % | 96/92 ald. % |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| PFEZa | 59.842 | 63.098 | 66.401 | 75.972 | 79.351 | 4 | 33 |
| Sozietateen g. | 17.045 | 18.794 | 13.612 | 21.887 | 27.534 | 26 | 62 |
| Ondarearen g. | 1.872 | 1.607 | 3.031 | 3.365 | 3.816 | 13 | 104 |
| Ondorengotzen g | 443 | 640 | 387 | 687 | 719 | 5 | 62 |
| Guztira | 79.202 | 84.139 | 83.431 | 101.911 | 111.420 | 9 | 41 |

| Zeharkakoak | 1992 | 1993 | 1994 | 1995 | 1996 | 96/95 ald. % | 96/92 ald. % |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Ondare Esk. g | 3.009 | 3.227 | 3.674 | 4.744 | 4.044 | (15) | 34 |
| E.J.D. | 3.213 | 2.543 | 4.463 | 4.800 | 4.258 | (11) | 33 |
| BEZa | 54.344 | 47.920 | 61.734 | 74.757 | 79.327 | 6 | 46 |
| Bereziak | 3.886 | 7.096 | 7.646 | 8.671 | 10.104 | 17 | 160 |
| Guztira | 64.452 | 60.786 | 77.517 | 92.972 | 97.733 | 5 | 52 |

b) Zenbaki indizeetan, 1991 urtea 100 oinarritzat harturik

| Zuzenekoak | 1992 | 1993 | 1994 | 1995 | 1996 |
|---|---|---|---|---|---|
| PFEZa | 100 | 105 | 111 | 127 | 133 |
| Sozietateen g. | 100 | 110 | 80 | 128 | 162 |
| Ondarearen g. | 100 | 86 | 162 | 180 | 204 |
| Ondorengo. g. | 100 | 145 | 87 | 155 | 162 |
| Guztira | 100 | 106 | 105 | 129 | 141 |

| Zeharkakoak | 1992 | 1993 | 1994 | 1995 | 1996 |
|---|---|---|---|---|---|
| E.J.D. | 100 | 79 | 139 | 149 | 133 |
| BEZa | 100 | 88 | 114 | 138 | 146 |
| Bereziak | 100(*) | 183 | 197 | 223 | 260 |
| Guztira | 100 | 94 | 120 | 144 | 152 |

(*) 1993an lehenbizikoz garraiobideen gaineko zerga ezarri zen

Labur bildurik, bost urteetan, zuzeneko eta zeharkako zergak, nominalki, ehuneko 41 eta ehuneko 52 gehitu dira, hurrenez hurren.

• KONTABILITATEKO IRIZPIDEAK.

Oinordekotza, ondare-eskualdaketak eta egintza juridiko eta dokumentatuak kenduta, zerga-dirusarrerak Foru Ogasunarentzat kobrantzek sortzen dituzten zerga-autolikidazioetatik datozenean, aurrekontuari egozten zaizkio kobrantzaren orduan, bai itxurazko zordunketa gisa bai behin betiko zordunketa gisa (lan atxikipenak, kapitalaren atxikipenak eta zatiketak).

Gero, aitorpenak zerga bezala kargatzen dira eta –berrikuspen automatikoko prozesu baten ondoren– zerga-kontabilitatean notatzen dira eta interfasera aldatzen dira.

Interfasetik Hirugarren Kontabilitate Laguntzailera igortzen da. Itxurazko zordunketak, halakorik bada, behin betiko bihurtzen dira eta aurrekontuetan sortzapen positibo edo negatiboa sortzen, beti ere alderik baldin badago aurretiko itxurazko sortzapenetik egiazkora.

Aurretiko kobrantzarik ez badago, CATYGTen kargatzen den egiazko zordunketak sortzapen positiboa edo negatiboa sortzen du aurrekontuan, ordaintzeko edo itzultzeko aitorpenak badira, hurrenez hurren.

Zerga kudeatzen duen zentrotik eginiko likidazioen kasuan, prozedura antzekoa da baina interfaserako pausua –eta beraz, Hirugarrenen Kontabilitate Laguntzailera eta aurrekontuetan notatzea– ez da gertatzen zorra jakinarazten den arte, beraz, irmoa izan arte.

1996 urteko zergen apunteek 106.643 milioi pezeta egiten zuten. 1996an eta hurrengoetan honela aldatu ziren interfasera:

| Noiz eskualdatu ziren | Zenbatekoa | Ehunekoa |
|---|---|---|
| Interfasera 1996an aldatu zirenak | 101.560 | 95 |
| Interfasera 1997an aldatu zirenak | 3.663 | 4 |
| Aldatzeko daudenak (97ko urrian) | 1.420 | 1 |

Aitorpenei dagozkien eta 1996an interfasera eskualdatu ziren apunteen zenbatekoa, zergak direla-eta urte horretan eginiko aitorpenengatik apuntaturiko guztien ehuneko 96 dira; ikuskaritzako berrikuspenei dagokien zenbatekoa 1996an zergapeturikoen ehuneko 96 dira; berrikuspen arruntari dagokion eskualdaturikoa eta errekurtsoa dela eta egindako berrikuspenak 1996an kontzeptu horiek direla-eta zergapeturiko zenbatekoen ehuneko 96 eta ehuneko 68 dira hurrenez hurren.

Alegia, zergen apunteen ehuneko 5 –5.083 milioi– zergapetzen denean ez beste ekitaldi batean eskualdatzen dira interfasera. Kitapenen kasuan, sortzapenean, ondorioz, egin beharreko notifikazioa da interfaserako aldaketarako baldintza. Portzentaia ehuneko 4 izango da, eta nabarmen jaitsiko da 1995eko ekitaldikoaren aldera. 1995eko portzentaia ehuneko 49 zen.

Apuntearen jatorriaren eguna eta tributua zergapentzen den eguna ez dira guztiz bat etortzen.

| Jatorriko data | Zenbatekoa (milioitan) | % |
|---|---|---|
| Jatorriko data 1996 | 91.329 | 90 |
| Jatorriko data 1995 | 10.206 | 10 |
| Jatorriko data, lehenago | 25 | – |

Alegia, 1996an zergapetu eta urte berean interfasera eskualdaturiko apunte guztietarik, ehuneko 10aren jatorriko data ekitaldi hori baino lehenagokoa da.

Jatorriko data aitorpena aurkeztu zen egunari dagokion aitorpenei dagozkien apunteen kasuan, zergapeturiko eta 1996an interfasera aldaturiko zenbatekoaren ehuneko 8 1995ean aurkezturiko aitorpenei dagokie.

• TRIBUTU IKUSKARITZA.

Ikuskaritza Zerbitzuak aurkezturiko informazioaren arabera, 1996an 3.184 milioi egiten zuen zorrari ekin zitzaion. Guztira 2.427 ikuskaritza akta dira eta 600 zerga-ordaintzaile.

Hurrengo koadroan zor hori biltzen da, zergaka (zenbatekoa milioitan):

| Zerga | Zenbatekoa |
|---|---|
| PFEZa | 1.551 |
| Ondarearen gainekoa | 33 |
| BEZa | 413 |
| Lan atxikipenak | 96 |
| Kapital atxikipenak | 17 |
| Sozietateen gainekoa | 1.067 |
| Eskualdaketen gainekoa | 7 |
| Guztira | 3.184 |

Zerga horiek adostasun aktetan agertzen dira 2.705 milioitan eta desadostasun aktetan 479 milioitan.

Adostasun aktak aldian-aldian zergapetzen dira Ikuskaritzatik. Desadostasun aktak kudeatu eta bideratzeko tributuak bidaltzen dira, normalean errekurtsoen xede baitira, eta haien zergapetzea atzeratu egiten da.

1996an ikuskaritza akta gisa kontabilizaturiko zenbateko, jatorriko urte eta izaerari dagokionez, informazio hau da nabarmentzekoa:

• 1996an ikuskaritza aktengatik 3.160 milioi kontabilizatu dira. Kuotak eta zehapenak 2.565 milioi egiten dute eta 1 eta 2 kapituluetan egozten dira eta korrituak 595 milioi eta 3 kapituluan egozten dira.

• Zenbateko horren ehuneko 81 1996an ekiniko aktei dagokie, ehuneko 12 1995ean eta gainerakoa aurreko ekitaldietan.

• Tributu figurari dagokionez, kuota eta zehapenaren eta korrituen zenbatekoak, milioitan, hurrengo koadroan azaltzen dira:

| Zerga | Zenbatekoa |
|---|---|
| PFEZa eta atxikipenak | 1.658 |
| BEZa | 354 |
| Sozietateen gainekoa | 1.115 |
| Ondarearen gainekoa | 33 |
| Besterik | – |
| Guztira | 3.160 |

Ikus daitekeenez, kotabilizatu diren dirusarrera gehienak –ehuneko 88– PFEZari eta Sozietateen gaineko Zergari dagozkie.

Hurrengo atalean gehiago zehazten dira alderdi hauek, zerga figura bakoitzari dagokionez.

• ZERGA FIGURA NAGUSIAK.

**a)** Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga.

Haren eskubide aitortuek 79.351 milioi egiten dute, hots, ehuneko 97ko burutzapen maila, eta dirubilketaren gehikuntza aurreko urtearen aldera ehuneko 4koa da, izan ere 1995 da 1994an baino 3.378 milioi gehiago.

Ekitaldiko dirusarrerak iturri hauetatik datoz, portzentaietan:

| | % |
|---|---|
| Lan atxikipenak | 85 |
| Kapital atxikipenak | 14 |
| Zatiketak | 5 |
| PFEZaren aitorpena | (4) |
| Guztira | 100 |

Sorturiko dirusarreretatik, 1.086 milioi, aitorpenen azterketetatik datoz. Jatorriaren arabera, azterketa horiek honetatik datoz (zenbatekoa milioitan):

| | Zenbatekoa |
|---|---|
| Lan atxikipenak | (23) |
| Kapital atxikipenak | 1 |
| Zatiketak | (1) |
| PFEZaren aitorpena | 1.109 |
| Guztira | 1.086 |

PFEZeko dirusarreren ehuneko 1,7 gutxi gorabehera –1.328 milioi– ikuskaritza aktetatik datoz. Zerga horien jatorria hauxe da (zenbatekoa milioitan):

| | Zenbatekoa |
|---|---|
| Lan atxikipenak | 79 |
| Kapital atxikipenak | 14 |
| PFEZaren aitorpena | 1.235 |
| Guztira | 1.328 |

Zenbateko hori dagokioen kuota eta zehapenaz dago osaturik. Aktetako korrituak –330 milioi– 3. kapituluan kontabilizatzen dira.

PZEZean kontabilizatzen diren gainerako dirusarrerak zergadunen kitapenen ondoriozkoak dira.

Ondoren, iruzkin batzuk eginen ditugu 1995eko ekitaldiari dagokion eta 1996an aurkeztu zen PFEZaren aitorpen gaineratuari buruz –11 koadroa–. Aitorpen hori 1997ko irailaren 27an dago prestaturik, guztira 250.266 aitorpen zirelarik.

PFEZaren aitorpen gaineratuak 1991/1995 (milioika pezetatan)

11.A. koadroa

| | 1991 urtea 196311 aitorp. | 1992 urtea 221175 aitorp. | 92/91 aldak. % | 1993 urtea 231042 aitorp. | 93/92 aldak. % | 1994 urtea 243486 aitorp. | 94/93 aldak. % | 1995 urtea 250266 aitorp. | 95/94 aldak. % |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Ohiko oinarri zergagarria | | 445.825 | | 478.391 | 7 | 521.993 | 9 | 561.902 | 8 |
| Murriztapenak | (2.077) | (4.032) | 94 | (4.985) | 24 | (6.120) | 23 | (7.116) | 16 |
| Likidazio-oinarria, guztira | *415.313 | 448.086 | 8 | 480.639 | 7 | 526.422 | 10 | 566.086 | 8 |
| K. osoa/L. oinarria % | | | 18 | | 19 | | 19 | | 19 |
| Kuota osoa, guztira | 78.302 | 82.468 | 5 | 90.320 | 10 | 99.061 | 10 | 108.085 | 9 |
| Kenkariak: | | | | | | | | | |
| Familietakoak | 10.026 | 6.792 | (32) | 7.117 | 5 | 7.440 | 5 | 7.718 | 4 |
| Orokorrak | 12.487 | 18.732 | 50 | 19.023 | 2 | 20.334 | 7 | 20.960 | 3 |
| Inbertsioak | 2.999 | 3.349 | 12 | 3.882 | 16 | 4.662 | 20 | 5.219 | 12 |
| Bestelakoak | 1.377 | 1.426 | 4 | 1.355 | (5) | 1.313 | (3) | 4.886 | 272 |
| Kenkariak, guztira | 26.975 | 30.297 | 12 | 31.377 | 4 | 33.749 | 8 | 38.783 | 15 |
| Kouta osoaren kenkarien % | | 37 | | 35 | | 34 | | 36 | |
| Kouta likidoa | 54.961 | 56.863 | 3 | 63.662 | 12 | 69.886 | 10 | 74.158 | 6 |
| K. likidoa/Z. Oinarria % | 13 | 13 | | 13 | | 13 | | 13 | |
| Konturako atxikipenak | 56.059 | 60.276 | 8 | 63.829 | 6 | 68.023 | 7 | 74.756 | 10 |
| Ordainketa zatituak | 2.989 | 3.136 | 5 | 3.627 | 16 | 3.825 | 5 | 3.854 | 1 |
| Konturako ordainketa, guztira | 59.048 | 63.412 | 7 | 67.456 | 6 | 71848 | 7 | 78.610 | 9 |
| Autolikidazioaren kopurua | (4.087) | (6.549) | 60 | (3.794) | (42) | (1.962) | (48) | (4.452) | 127 |

* Oinarri zergagarria.

1995eko PFEZaren aitorpen gaineratua, tarteka (Zenbatekoa milioika pezetatan)

11.B. koadroa

| Oinarri zerga (milioiak) | Zenbat aitorpen | % | Oinarri zerga Kopurua | % | Kuota likidoa kopurua | % |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 0 | 3.238 | 1 | 0 | 0 | 5 | 0 |
| >0tik a 2 | 140.860 | 56 | 161.838 | 29 | 7.282 | 10 |
| 2tik 5era | 89.689 | 36 | 263.470 | 47 | 34.092 | 46 |
| 5etik 10era | 13.579 | 5 | 90.403 | 16 | 17.991 | 24 |
| 10 baino + | 2.900 | 1 | 50.351 | 9 | 14.787 | 20 |
| Guztira | 250.266 | 100 | 566.062 | 100 | 74.157 | 100 |

97/09/17an lorturiko datuak

Datu hauek aztertuta, ondokoak azpimarratu behar ditugu:

• PFEZaren 1995ko aitorpen gaineratua, aurreko lau urteetakoa bezala, Foru Ogasunaren aurkakoa da, eta autolikidazio negatiboaren zenbatekoa ehuneko 127 gehitu da 1994 urtekoaren aldera; alegia, 1994an autolikidazio zenbatekoa –1.962 milioi pezetakoa bazen, 1995ean –4.452 milioi pezetakoa da.

• Zerga-oinarri arrunta ehuneko 8 gehitu da aurreko urtekoaren aldean. Zerga oinarrian sartzen diren kontzeptuetatik ondokoetan izan dira aldaketarik adierazgarrienak:

a) Lan-errendimenduak ehuneko 8 gehitu dira, zenbaki absolutuetan. Beraz 1994an baino 34.604 milioi pezeta gehiago dira.

b) Kapital higikorraren errendimenduek, 1994ko aitorpen gaineratuan ehuneko 14 behera egin zutenak 1993koen aldean, ehuneko 9 egin dute gora, 3.733 milioi pezeta.

c) Kapital higiezinaren errendimenduak negatibo izatera iritsi dira: ehuneko 351 egin dute behe-

ra, 1994ko aitorpen gaineratuan 1.118 milioi pezeta izatetik 1995eko aitorpenean 2.802 molioi pezeta izatera pasatu dira.

d) Lanbide-jarduеretako eta enpresa-jardueretako errendimenduek ehuneko 7 eta ehuneko 8 egin dute gora, hurrenez hurren. Horrek esan nahi du zenbaki absolutuetan 1.140 eta 3.839 milioi pezeta gehiago egongo direla aurreko urtean baino.

e) Zerga-oinarri positiboak gardentasun fiskalean egoztea 2.375 milioi pezetakoa da, 1994ko aitorpen gaineratuan 1.416 milioi pezeta izan ziren bitartean. Horrek esan nahi du ehuneko 68ko gehikuntza izan dela. Kontzeptu hori dela– eta 1994ko eta 1995eko aitorpen gaineratuetan ingresoak izan dituzten aitorpen egileen kopurua ehuneko 0,2 eta 0,3 dira, hurrenez hurren, haiek lortu diren aitorpenetako guztizkoan.

f) Gehikuntza erregular garbiek aurreko ekitaldiko beherako joera izan dute. 447 milioi pezeta jaitsi dira, alegia, ehuneko 19.

• Oinarri zergagarrien gutxiagotzea ehuneko 16 handiagoa izan da, eta honen jatorrian hauxe dago, pentsio-planei eman zaizkien kopuruak handiagoak izan direla pentsio-planetako ekarpenak ere gehitu direlako.

Hauxe izan da azken bost urte hauetako aitorpen gaineratuetako ekarpenen bilakaera:

| Ekitaldia | Zenbatekoa (milioi pezeta) | Indizea (oinarrizko urtea 1991) |
|---|---|---|
| 1991 | 2.077 | 100 |
| 1992 | 3.246 | 156 |
| 1993 | 4.598 | 221 |
| 1994 | 5.687 | 274 |
| 1995 | 6.594 | 317 |

• Likidazio-oinarria 39.664 milioi pezeta gehitu da eta kuota osoa 9.024 milioi pezeta, alegia ehuneko 8 eta 9 hurrenez hurren, aurreko urteko aitorpenean biek izan zuten ehuneko 10eko gehikuntzaren aldean.

• Kenkariek, osotara, ehuneko 15eko hazkundea izan dute, 1994ko aitorpen gaineratuan izan zuten gehikuntza baino 7 puntu gehiago; era berean, 2 puntu igo da kuota osoan adierazten duten portzentaia. Portzentaia hori ehuneko 36 izan da.

Gehikuntzarik hadiena “Bestelako kenkariak” izeneko taldean gertatu da. Horiek 1994an 1313 milioi pezeta izatetik 1995ean 4.886 milioi pezeta izatera pasatu dira, hau da, ehuneko 272 gehiago; gehikuntza hori justifikatzen duten talde horretako kenkarien artean ondokoak aipa daitezke:

a) Kenkariak zergak ordaindu dituzten sozietateen dinbidenduengatik. Kontzeptu hori dela eta 4.171 milioi pezeta daude, 1994ko aitorpen eratsian ziren 898 milioi pezeten aldean.

Adlaketa hori 1995eko aitorpen eratsian izandako irizpide aldaketarengatik gertatu da, izan ere dibidendu horiek zerga-oinarrian eta kuotako kenkarietan sartu direlako.

b) Gardentasuna duten sozietateen kenkariak. 1995eko aitorpen gaineratuan 314 milioi pezeta ziren; 1994koan, ordea, 33 milioi pezeta ziren.

Azpimarratzekoa da 1995ean kenkari berri bat sartu dela “Bestelako kenkariak” izenekoan, alegia, errentarientzako zerga-konpentsazioa, 16 aitorlek erabili dutenak eta milioi bat pezeta egiten duena.

• Familiarengatiko kenkarien artean –orokorrean ehuneko 4 igotzen direnak–, gehikuntzarik handiena minusbaliotasuna dutenekin gertatzen da. 198 milioi pezeta gehiago dira 1994an baino, eta 65 urte baino gehiago duten famili unitateko kideengatiko kenketa dela eta 116 milioi pezeta gehiago. Horiek biek, 1.538 milioi pezeta eta 1.011 milioi pezeta suposatzen dute, hurrenez hurren.

Ondorengoengatiko kenkariak talde honetan garrantzi handiena duena izaten jarraitzen du 4.922 milioi pezetarekin, aurreko urtean baino 43 milioi gutxiago.

• Kenkari orokorrek 626 milioi gehiago egiten dute, ehuneko 3, 1994ko aitorpen gaineratuaren aldean. Guztira 20.960 milioi pezeta egiten dute, kuotako kenkarien guztizkoaren ehuneko 54. “Lan errendimenduak” izenekoarengatik egindako aitorpenek –11.181 milioi pezeta– eta “batera egiteko aukera”ren bidez egindakoek –8.524 milioi pezeta– jarraitzen dute izaten talde honetan diru zenbateko handienak ematen dituztenak, eta joan den urtearen aldean ehuneko 1 eta ehuneko 3 gehitu dira, hurrenez hurren.

• Inbertsioarengatiko kenkarien barruan –kuotako kenkari guztien ehuneko 14 dira eta ehuneko 12 gehitu dira–, etxebizitzarengatiko inbertsioari dagokiona da talde honetan garrantzirik handiena duena, izan ere inbertsioagatiko kenkarien ehuneko 80 egiten baitu.

• Bizitza aseguruen primengatiko kenkaria, inbertsioengatiko kenkarien ehuneko 17 egiten duena, ehuneko 27 gehitu da aurreko urtearen aldean.

Tartekako banaketari buruz esan behar da aurreko aitorpenetako egitura egonkor mantentzen dela, orokorrean, eta erdiko tarteetan multzokatzeko joera badagoela.

**b)** Sozietaten gaineko Zerga.

Zerga honek 27.534 milioi jotzen duten eskubide likidatuak dauzka, eta honek esan nahi du aurreko ekitaldiko likidazioarekin alderatuz ehuneko 26 igo direla, hau da, 5.647 milioi kopuru absolutuetan.

Zerga honen bidez eskuratzen diren dirusarrerek zuzeneko zergen bitartez eskuratzen direnen ehuneko 25 egiten dute.

Portzentaietan, ekitaldiko dirusarrerak hauetatik datoz:

| | % |
|---|---|
| Kapital higiezinaren atxikipenak | 21 |
| Aitorpenak eta konturako ordainketak | 79 |
| Guztira | 100 |

Zerga hau dela-eta sortutako zenbatekoaren jatorriari begiratzen badiogu, honako hau azpimarratu behar dugu:

• Zerga honen betetzearen ehuneko 3,4, 931 milioi pezeta, ikuskapen aktetatik datoz.

• Lerroaren ehuneko 2,6, 760 milioi pezeta, aitorpenen berraztertzetik dator.

• Zenbateko txiki bat, 41 milioi pezeta, errekurtsoen bidez egindako doiketetatik heldu da.

• 5.806 milioi pezeta PFEZetik murriztutako kapitalaren atxikipenen ehuneko 30ari dagozkio.

• Ehuneko 73 –19.966 milioi pezeta– aitorpenetatik eta kontura egindako ordainketetatik dator, eta aurreko urtea baino 4.540 milioi pezeta gehiago egiten dute.

1996ko aurrekontuari egozten zaion aitorpena 1995eko ekitaldikoa da. Aitorpen gaineratua –12. koadroa– 8.367 aitorpen erabiliz lortu da.

1994-1995eko Sozietateen Aitorpen Gaineratua (mila pezetatan) 12. koadroa

| Kontzeptua | Nafarroako arautegia 1994 | Nafarroako arautegia 1995 | 95/94 % aldak. | Beste hainbat arautegi 1994 | Beste hainbat arautegi 1995 | 95/94 % aldak. |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Oinarri zergagarria | 57.129.126 | 68.995.708 | 21 | 780.775.976 | 725.690.837 | (7) |
| O.Z. gutxiagotzea, 12/93 Foru Legea | 11.743.330 | 8.061.575 | (31) | | | |
| Likidazio-oinarria | 81.939.750 | 99.710.928 | 22 | | | |
| Kuota osoa | 25.845.225 | 31.239.463 | 21 | 315.106.349 | 385.969.265 | 22 |
| % Likidazio Oinarria/Kuota Osoa | 32 | 31 | | | | |
| Kenkariak eta hobariak: | | | | | | |
| Kenk. zerg. bik. eta hobaria | 2.670.027 | 2.496.368 | (7) | 54.984.622 | 79.612.049 | 45 |
| Enpleg. inb. kenk. eta 12/93 F. Legea | 3.077.615 | 3.364.542 | 9 | | | |
| Enpleg. inb. kenk. eta beste batzuk | | | | 59.787.347 | 61.893.664 | 4 |
| Kenkariak eta hobariak, guztira | 5.747.642 | 5.860.910 | 2 | 114.771.969 | 141.505.713 | 23 |
| % Kenkaria/Kuota osoa | 22 | 19 | | 36 | 37 | 1 |
| Lehengo urteetako e. galera | 14.636 | 1.063.850 | 7.169 | 398.856 | 1.321.365 | 231 |
| Kuota likidoa | 20.215.111 | 26.592.967 | 32 | 202.285.758 | 245.955.272 | 22 |
| Tributazio Nafarroari | 13.495.007 | 18.758.610 | 39 | 2.197.376 | 1.569.424 | (29) |
| % Kuota likidoa/Trib. Nafarroari | 67 | 71 | | 1 | 1 | (41) |
| Konturako atxikipenak | 5.113.145 | 4.810.698 | (6) | 141.241.191 | 186.000.945 | 32 |
| Konturako ordainketak | 1.586.689 | 3.274.732 | 106 | 651.672 | 885.805 | 36 |
| Autolikidazioaren zenbatekoa | 11.908.318 | 15.483.878 | 30 | 1.545.704 | 683.837 | (56) |

Likidazioaren zenbatekoak 20.328 milioi egiten du, eta horretatik konturako ordainketak eta atxikipenak kentzen baditugu, 16.168 milioiko zenbateko garbia gelditzen zaigu.

Zenbateko garbi honetatik, ehuneko 96 Nafarroako arautegiaren bidez tributatzen duten enpresei dagokie, eta gainerakoa, ehuneko 4, alegia, beste hainbat arautegiren bidez –Estatukoa edo Euskal Diputazioetakoa– tributatzen dutenei.

Nafarroako arautegiaren bidez tributatzen duten enpresei dagokienez, hona azpimarratuko duguna:

• Kuota osoa eta likidazio-oinarriaren arteko portzentaia ehuneko 31 da –aurrekoan baino puntu bat gehiago–

• Kuotaren kenkariek eta hobariek 5.861 milioi egiten dute, hau da, kuota osoaren ehuneko 19 –1994 urtean baino 3 puntu gehiago–, hau da, zenbaki absolutuetan 113 milioi igo da. 1995eko aitorpenean hobari berri bat ezarri da, bereziki babesturiko kooperatibentzat (9/94 Foru Legearen 28.2 artikulua), guztira 58 enpresari aplikatu zaiena eta guztira 85 milioi pezeta egiten duena.

• Nafarroako arautegiaren arabera tributatzen duten enpresetatik, Nafarroari dagokion kuota kuota likidoaren ehuneko 71 da, hau da, 1994ko aitorpen gaineratuan baino 4 puntu gehiago.

• 12/1993 Foru Legeak ezartzen dituen enpresen inbertsoetarako zerga-pizgarriei dagokienez, ondorengo hau esan behar dugu aitorpen gaineratuari buruz:

a) Oinarri zergagarria gutxiagotzeak 8.062 milioi pezeta egiten du, eta guztira 421 enpresek aplikatzen dute. 1994 urtearekin alderaturik, gutxiagotzea 3.681 milioi handiagoa da eta 24 enpresa gehiagok aplikatzen dute.

b) Kuotako hobariek 9 enpresa ukitzen dituzte –1994 urtean lau enpresa–, eta 453 milioi jotzen dute –1994 urtean, 125 milioi pezeta–.

c) 55 enpresek aplikatzen dituzte kuotako kenkariak –1994an baino 30 enpresa gutxiago–, eta 44 milioi egiten dute –1994 urtean 76 milioi–.

Kenkari hauei aitorpen gaineratuaren ondoriozko batez besteko kopuruak aplikatzen badizkiegu, eta beste kenkari baten babesean sartu ezin izateagatik egin beharreko doitzeak kontuan hartu gabe, zerga gastuek edo dirubilketaren gutxiagotzeak 2.100 milioi egiten dutela jotzen da.

**c)** Ondarearen gaineko Zerga.

Dirusarrerak 3.816 milioi dira, eta aurreko ekitaldiarekin alderatuz gehiagotzea ehuneko 13 da.

Ia sortzen diren dirusarrera guztiak zergapekoen aitorpenetatik datoz, eta ehuneko 0,7k baizik ez du bere jatorria ikuskapenaren jarduketetan.

1996 urtean aurkezturiko Ondare aitorpena 1995eko Ondare kitapenari dagokio.

1993-95eko ondare-aitorpen gaineratua
(milioi pezetatan)

13. koadroa

| Kontzeptua | 1993 | 1994 | 94/93 aldak.% | 1995 | 95/94 aldak.% |
|---|---|---|---|---|---|
| Zerga-oinarria | 841.584 | 940.944 | 12 | 1.030.061 | 9 |
| Murriztapenak | -254.640 | -261.138 | 3 | (282.512) | 8 |
| Likidazio-oinarria | 586.944 | 679.806 | 16 | 747.549 | 10 |
| Kuota osoa | 5.111 | 6.377 | 25 | 7.043 | 10 |
| %, kuota osoa/likidazio oinarria | 0,87 | 0,94 | | 0,94 | |
| Soberakina/sartu beharreko kuotaren muga | 2.182 | 3.074 | 41 | 3.217 | 5 |
| Sartzeko kuota | 2.928 | 3.302 | 13 | 3.825 | 16 |
| %, Sartu beharreko kuota/likidazio oinarria | 0,50 | 0,49 | | 0,51 | |

Aitorpen gaineratuaren gaineko datuei dagokienez –1997ko irailaren 15ean egin zen–, 8.794 aitorpen erabilita, ondoko datuak nabarmendu nahi ditugu:

• Zergan gutxieneko kopuru salbuetsita bezala –21 milioi– aurreikusten diren oinarri zergagarriaren murriztapenek oinarri horren ehuneko 27 egiten dute, eta 1994ko ekitaldiarekin alderatzen badugu, puntu bat txikiagoa da.

• Kuota osoa likidazio-oinarriaren ehuneko 0,94 da, aurreko urteko portzentaia bera.

• Zergan aurreikusten diren muga eta murriztapenekin, sartu beharreko kuotak ehuneko 54 egiten du, hau da, 1994an baino 2 puntu gutxiago.

**d)** Balio Erantsiaren gaineko Zerga.

79.327 milioiko betetzea dauka, eta honek, 1995arekin alderatuz, ehuneko 6ko gehikuntza suposatzen du, hau da, eskubideen gehikuntza 4.570 milioi da zenbaki absolutuetan.

Zergaren iturriak banakatzen baditugu, ondoko hau ikusiko dugu:

| BEZa | 1995 | 1996 | Aldak. % |
|---|---|---|---|
| Norberaren kudeaketa | 54.701 | 63.973 | 17 |
| Hitzarmenaren doitzea | 20.056 | 15.354 | (23) |
| Guztira | 74.757 | 79.327 | 6 |

Hau da, norberaren kudeaketako BEZean gehikuntza nabarmena gertatu da. Egin beharreko doiketa ehuneko 23 gutxitu da, izan ere azken hiruhilekoa erregistratu gabe dagoelako (5.000 milioi pezeta inguru).

1996 urteari dagokion BEZaren aitorpen gaineratua –14. koadroa– 151.351 aitorpen erabiliz egin da 1997ko irailaren 16an.

Urteko aitorpen gaineratua eta ekitaldi ekonomikoa ez datoz bat, aitorpenak muga-egunaren ondorengo hilean aurkezten baitira; hau honela, abenduari eta 1996ko laugarren hiruhilekoari dagozkienak 1997ko ekitaldian sortzen dira. Beraz, 1996ko ekitaldian, abenduari eta 1996ko laugarren hiruhilekoari dagozkienak sortu dira. Egiteko modu hau bat dator aurreko ekitaldietan erabilitakoarekin.

1994-96ko BEZaren aitorpen gaineratua
(milioi pezetatan)

14. koadroa

| Kontzeptua | Zenbatekoa 1994 133028 aitorp. | Zenbatekoa 1995 139180 aitorp. | 95/94 aldak. % | Zenbatekoa 1996 151351 aitorp. | 96/95 aldak. % |
|---|---|---|---|---|---|
| Araubide orokorra | 1.479.236 | 1.706.956 | 15 | 1.918.464 | 12 |
| Araubide erraztua | 2.153 | 2.653 | 23 | 2.948 | 11 |
| Sortutako BEZa | 1.481.415 | 1.709.648 | 15 | 1.921.444 | 12 |
| BEZ kengarria | 1.007.231 | 1.239.618 | 23 | 1.404.718 | 13 |
| Aldiko kitapena | 48.218 | 49.760 | 3 | 67.438 | 36 |
| Urteko erregularizazioa | 423 | 441 | 4 | 537 | 22 |
| Guztira | 48.641 | 50.201 | 3 | 67.975 | 35 |

1996ko ekitaldiko kitapenek 67.975 milioi egiten dute. Zenbateko hau, hala ere, aurreko kitapen negatiboekin konpentsatua izan daiteke. Horrela, 1996ko hasieran, konpentsatu gabeko kopuruak 11.528 milioi ziren, ekitaldiaren bukaeran, aldiz, etorkizuneko aitorpenetan konpentsatu beharreko zenbatekoek 10.131 milioi egiten zuten bitartean.

### 3.1.10. Tasak eta bestelako dirusarrerak.

Aitortutako eskubideek 9.459 milioi egiten dute, eta betetze maila ehuneko 140 da, alegia, ekitaldiko dirusarrera guztien ehuneko 4.

Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, 55 milioiko gehikuntza txiki bat agertzen da.

Departamentuka hartuta, Ekonomi eta Ogasun Departamentuak 5.294 milioi pezeta erregistratu ditu, guztizkoaren ehuneko 56; horietatik 2.351 joku-tasei dagozkie, 1.568 milioi ohiko zorren korrituak dira eta 1.079 premiamendu errekarguei dagozkie. Osasun Departamentuak 1.191 milioi erregistratu zituen kontzeptu horiengatik, ehuneko 13; horietatik 1.020 milioi osasun zerbitzuak emateagatik jarri diren prezio publikoei dagozkie. Lehendakaritza Departamentuak 1.121 milioi erregistratu zituen eta Gizarte Ongizatekoak 746.

**3.1.11. Ohiko transferentziak.**

Eskubideek atal honetan 19.862 milioi egiten dute; betetze maila ehuneko 125 da, eta honek dirusarrera guztien ehuneko 7ko garrantzia du.

Aurreko ekitaldiarekin alderatuz, 1.681 milioi pezeta gehiago egiten du.

1996 urtean dirusarrera hauek izan duten zenbatekoa eta jatorria ondorengo koadroan biltzen dira:

| Sektorea | Zenbat | % |
|---|---|---|
| Estatua | 2.375 | 12 |
| Gizarte Segurantza | 15.085 | 76 |
| Enpresa pribatuak | 119 | 1 |
| Europako Batasuna | 2.283 | 11 |
| Guztira | 19.862 | 100 |

Gizarte Segurantzatik datozen dirusarreren nagusigoa azpimarratzekoa da –Hitzarmen Ekonomikoaren ondorio direnak–,Insaludetik eta Insersoretik eskualdaturiko zerbitzuengatik, baita Europako Batasunetik datozenen gehikuntzarengatik ere –1995 urtean 1.173 milioi pezeta izan ziren, hau da, ehuneko 95ko gehikuntza izan zen.

Aurreko ekitaldian Ganbarak txosten berezia egin zuen Europako Komunitateko transferentzien marko orokorrari buruz.

Estatuko Administraziotik 2.375 milioi jaso ziren. Horietatik 1.182 udalek zerga ez-itunduetan parte hartzeagatik, 349 Telefónicako tasetan parte hartzeagatik izaniko dirusarrerak ziren, 361 milioi Inem-etik zetozen –batez ere Hezkuntza Departamenturako– eta 323 milioi jaso ziren Gizarte Ongizate Departamentuko FASen pentsioetarako.

**3.1.12. Ondare Dirusarrerak.**

5. kapituluan aitortzen diren eskubideek 6.087 milioi egiten dute, betetze maila ehuneko 168 da eta honen pisu erlatiboa ehuneko 2,3 da.

Kontzeptuka, azpimarragarrienak gordailuen korrituak dira –4.431 milioi– geroramenduen korrituak –1.251 milioi– eta eta aurrerakin zein maileguen korrituak –347 milioi–.

1995 urtearekin alderatuz, kapitulu honetan aitortu diren eskubideak 1.292 milioi gehitu dira.

Gehikuntza garrantzitsu hori, 1995eko Kontuei buruzko txostenean aurreratzen zen bezala eta Gobernuaren Oroit-idazkian modu egokian azaltzen den bezala, zor zaio 1995 urtean geroraturiko zorrengatik korrituen dirusarrerarik batere ez aplikatzeari –640 milioi izan ziren– premiamendu bideko zor zatikatuaren korrituenak ere –13 milioi egin zuten–.

Zenbateko horiek 1996ko ekitaldian aplikatu dira, ekitaldian lortu direnekin batera. Horrek ekarri du aldi horretan 1995ean baino 1.251 milioi gehiago kontabilizatzea.

**3.1.13. Inbertsio errealen besterenganatzea.**

Kapitulu honek 548 milioiko dirusarrerak dauzka, eta betetze maila txikia du: aurrekontu bateratuaren ehuneko 60.

Aurreko ekitaldiarekin alderatuz, betetze maila txiki hori eta dirusarreren gutxitzea –1.132 milioi gutxiago dirusarreretan– lurzoruaren salmentek eta etxebizitza programaren eraikuntzek behera egin izanari zor zaie.

**3.1.14. Kapital transferentziak.**

7. kapituluan aitorturiko eskubideek 7.911 milioi egiten dute, betetze maila ehuneko 116 da eta hau dirusarrera guztien ehuneko 3 da.

1995 urtearekin alderaturik, kapitulu honetan aitortu den bolumena handiagoa da, 4.247 milioi; gehikuntza honen arrazoia da Europako Batasunetik jaso diren transferentziak gehitu egin direla.

Ondorengo koadroan Europako Batasuneko transferentzia horiek aurkezten ditugu. Kapituluko guztizkoaren ehuneko 95 egiten dute, 7.533 milioi pezeta. Hona azalpena:

| | |
|---|---|
| Feder | 4.643 |
| Feoga | 1.840 |
| Fondo Social Europeo | 202 |
| Kohesio fondoak | 848 |
| Guztira | 7.533 |

**3.1.15. Finantza-aktiboak.**

Aitorturiko eskubideek 4.343 milioi egiten dute; betetze maila oso txikia dute: ehuneko 28.

Betetze maila hain txikia izatea azaltzen da aurrekontu bateratuan sartu delako diruzaintzako gerakina, edo aurreko ekitaldietako superabita, 11.327 milioi jotzen duena eta azkenik aplikatzen ez dena.

1995 urtearekin konparatuz, dirusarrerek 104 milioi gehiago baizik ez dute egiten.

Kapituluaren atal handi bat sektore publikoari emandako maileguen itzulketari dagokio –3.264 milioi–, enpresa pribatuari emaniko maileguen ordainketa –665 milioi pezeta– eta familia eta partikularrei emanikoetatik –415 milioi–.

**3.1.16. Finantza-pasiboak.**

Dirusarreren lerro honek ez du gauzapenik izan 1996an, dirusarreren hasierako aurrekontuan zor publikoa jaulkitzeko 16.484 milioi agertzen baziren ere, dirusarreren eta gastuen arteko oreka lortu ahal izateko. Jaulkipen hori ez da egin behar izan dirusarrerak handitu direlako.

Zehazki, 1996an zor berriko 29.245 milioi jaulki dra, baina zor zaharreko 30.000 milioi deusezteko (bigarren jaulkipena), izan ere Gobernuarentzako korritu sobera handiak zituelako. Beraz, zor publikoa, 1996ko abenduaren 31n aurreko ekitaldikoa baino 755 milioi txikiagoa da.

3.2. ESTATUAREKIKO HITZARMEN EKONOMIKOAREN PROGRAMA ETA NAFARROAKO GOBERNUAREN ORDAINKETA SISTEMA.

**3.2.1. Estatuarekiko Hitzarmenaren Programa.**

Foru eraentzaren indarrez, Nafarroak bere zerga eta finantza araubidea dauka, Hitzarmen Ekonomikoaren ohiturazko sistemak arautua. Hitzarmenaren bidez zehazten da Nafarroak Estatuko zama orokorretarako egingo duen ekarpena.

Labur bilduz, ondokoak dira hitzarmen ekonomikotik heldu diren fluxu ekonomikoak:

• Nafarroak Estatuari egingo dion behin-behineko ekarpena, urtero eguneratzen dena Estatuaren aurrekontu-aurreikuspenen arabera.

• Nafarroako Estatuari egingo dion behin betiko ekarpena, behin-behinekotarsunaren doiketa, Estatuak kasuan kasuko ekitaldian duen aurrekontu-betetzearen arabera kalkulatua (aintzat hartu beharrean aurrekontua, haren betetzea hartzen da).

• “BEZa dela-eta eginiko doiketa”. Nafarroak BEZa ordainarazten du bere lurraldean eginiko ondasun eta zerbitzuen entregengatik. Bildutako zenbatekoa ez dator bat Nafarroan sorturiko egiazko kontsumoarekin, izan ere kanpo uzten direlako inportazio-exportazio eragiketa guztiak, Estatuak duanetan zergapetzen dituena, baita erkidegoen arteko erosketak ere. Hori dela eta, Estatuak Nafarroa konpentsatzen du, dirubilketa egiazko kontsumoaren arabera doitu nahian.

• Diputazioek I. eta II. kapituluen bidez Estatuko dirusarreretan duten partehartzea, ezin dira Autonomi Erkidegoetara eskualdatu.

• Insalud eta Insersoren eskumenak eskuratzeak sorturiko fluxuak.

• Insaludek eta Insersok dituzten eginkizunak eta ematen dituzten zerbitzuak Nafarroari eskualdatzen zaizkio Nafarroak Estuari egingo dion ekarpena zehaztu ondoren. Horregatik, Foru Ogasunak hartuko duen kostua zenbateko horretatik murriztu behar da, izan ere jada Estatuaren karga orokorra ez delako. Estatuari eman beharrekoaren gutxiagotze hori ondoko ardatzak ditu:

a) Insalud eta Insersorako behin behineko ekarpenak. Nafarroari eskualdaturiko zerbitzuen balorazioa adierazten du, bi institutu horien hasierako aurrekontu-kredituak erabiliz kalkulatua. Horren parte bat Nafarroak Estatuari egiten dion ekarpenetik kentzen da eta bestea Gizarte Segurantzaren Diruzaintzan jasotzen da esku-dirutan, alde batetik insitutu horien urteko aurrekontuetan Estatuaren ekarpenek egiten duten portzentaien arabera, eta bestetik kuoten eta dirusarreren arabera. Ordainketak eta kenketak institutuen aurrekontuak balio duen ekitaldian egiten dira, lauhilekoan behin, Nafarroak Estatuari egiten dion ekarpenaren ordainketa egiten den aldi berean.

b) Insalud eta Inserso direla-eta eginiko aurrekontu aldaketak. Insaluden aurrekontuan onetsitako kreditu-handitze eta –gehikuntzetan Nafarroak izango duen partehartzea biltzen du, hasierako aurrekontuaren ohiko ekitaldiaren zuzeneko kudeaketa gisa, izan ere Nafarroak egingo zuen behin-behineko ekarpena kalkulatzeko balioko duena. Era berean, parte bat Estatuari egin beharreko ekarpenetik kentzen da eta beste partea Gizarte Segurantzaren Diruzaintzatik jasotzen da.

c) Insalud eta Inserso direla-eta eginiko behin betiko ekarpenak. Behin-behineko ekarpenen doiketak dira –kasuan kasuko hasierako aurrekontuak erabiliz kalkulatuak–, institutuen aurrekontu-betetzea hasierako aurrekontutik desbideratzen direneko protzentzaia aplikatuta lortzen direnak.

• Besterik. Hitzarmen Ekonomikoan bestelako osagaiak izan daitezke. Azkenekoan, Estatuaren partehartzea Iparraldeko Autobiako segurtasun gastuetan. Ekitaldi honetan, berriz, Insaluden saneamendu eragiketako korrituen ordainketa eta abar.

Ondotik azaltzen da kontzeptu horiek guztiak direla-eta 1996ko ekitaldian izandako aurrekontu-betetzea:

| | Gastuen aurrekontua | Dirusarreren aurrekontua | Dirusarreretan dagoen aldea |
|---|---|---|---|
| 1. Nafarroako Estatuari ematen dion ekarpena | 21.690.900.000 | | |
| 2. Insaluden transferentzien gutxipena | | 11.573.110.000 | 55.210.996 |
| 3. Insersore transferentzien gutxipena | | 2.054.575.000 | (311.417.996) |
| 4. Insaluden aurrekontuen aldaketa | | | |
| Esp. 6/96 (diruzain/ekarp.) | (3.573.022.000) | 1.042.880.000 | |
| Esp. 8/96 | (67.905.000) | | |
| Esp. 96-2-12 | (151.97.000) | 44.364.000 | |
| Esp. 96-1-19 | (208.142.000) | 60.752.000 | |
| 5. Insalud saneatzea | 559.000.000 | | |
| 6. BEZa doitzea | | | |
| 1. eta 2. hiruhilekoa | | 9.777.653.056 | |
| 3. hiruhilekoa | | 5.576.570.106 | |
| 4. hiruhilekoa | | | (5.574.606.330) |
| 7. 1993ko ekarpenaren behin betiko likidazioa | 71.019.000 | | |
| 8. 1994ko likidazioa | 853.804.000 | | |
| 9. 1994ko Insaluden likidazioa | | (36.192.000) | |
| 10. 1994ko Insaluden likidazioa, behin betikoa | 84.639.000 | | |
| 11. Insalud-Farmaindustria | | 161.632.239 | |
| 12. 1994ko Insaluden likidazioa, behin behinekoa | | 172.247.000 | |
| 13. Dipatazioen partehartzea Estatuko dirusarreretan | | 105.496.106 | |
| Guztira | 19.258.296.000 | 30.533.087.507 | (5.830.813.330) |

"Nafarroako Estatuari eginiko ekarpena" (gastuak) eta "Gizarte Segurantzaren Trasnferentziak" (dirusarrerak) aurrekontu lerroei dagokienez, Estatuarekiko Hitzarmena programaren atal bat dira, izan ere I eta II kapituluak direla-eta "Insaludeko eragiketa dela eta sorturiko zorraren korrituak" eta "Diputazioen partehartzea Estatuaren dirusarreretan" izenekoak ezin zaizkielako Autonomi Erkidegoei eskualdatu eta Aurrekontu eta Finantza Kudeaketa programan sartzen direlako; "BEZa dela-eta eginiko doiketa", berriz, Zergen Kudeaketa programari dagokio.

Aurreko txostenetan azaldutako iritzia berretsi daiteke: adierazitako kontzeptu eta magnitude guztiak, hitzarmenetik beretik datozenez, haren programan agertu beharko lirateke, aurrekontuak egitean eta betetzean argitasuna handiagoa egon dadin.

Ondotik azpimarratzen ditugu kontusail horietako bereizitasun aipagarrienak.

a) 1996ko behin-behineko ekarpena.

Bi administrazioen artean Nafarroaren ekarpena zehazteko garaian akordiorik izan ez denez, 1996 urterako behin-behinekoz zehaztu da ekarpen hori orain arte egin den moduan. Ekarpena kalkulatzeko unean, Estatuaren aurrekontua 1995 urtekoa zen, behin-behinekoz luzatua. Hori dela eta 1996ko behin-behineko ekarpena 18.699 milioi pezetakoa da.

Azken lauhilekoan ez zaio deus ere ordaindu Estatuari. Emaitza gisa kontabilizatu da, Estatuaren eskutik azken lauhilean BEZa dela eta eginiko doiketa kobratzen ez den arte.

b) Insalud eta Insersorako behin-behineko ekarpenak.

Aurreko urteetan bezala, Insaluden transferentziak behar zirenak baino gehiago dira (55,2 milioi pezeta), eta Insersorenak behar baino txikiagoak.

c) Insaluden eta Insersoren ekarpenen erregularizazioa.

Horretan biltzen da 1996an Insaluden aurrekontu aldaketetan Nafarroak duen partehartzea, baita Institutu horren 1994ko behin betiko likidazioa ere.

Insersori dagokionez, azpimarratu behar da Nafarroarekin likidatutako aurrekontu-aldaketen ondoriozko azken likidazioa 1993koa dela. Ekitaldi

berari dagokio Institutu horren behin betiko azken likidazioa. Beste aldetik, Gizarte Seguratzaren Diruzaintzaren bidez eginiko behin-behineko ekarpenak ia hitzarmenaren indarraldiaren hasieratik teorian zegozkionak dira. Etorkizunean egingo diren likidazio horiek Foru Ogasunarentzako aldeko edo kontrako emaitza izateak ez du kontabilitatean adierazpenik izan, horiek kontabilizatzeko kutxa-irizpidea erabili delako.

d) Insalud saneatzeko eragiketa.

Eragiketa hori dela-eta 556 milioi pezeta ordaintzearekin, kontzeptu hori dela-eta sorturiko obligazioak kitatu dira. Ordaintzeko daude 1991 urta baino lehenagoko Insaluden obligazioak, 1580 milioi pezeta, Nafarroak aipatu saneamendu-eragiketaren indarrez bereganatu zituenak eta epe luzerako hartzekodunen balantzean ageri direnak, hain zuzen ere Gizarte Segurantzaren ordainketa-luzamendu bat zeukatelako, 10 urte gehi 3 urteko ezaldia.

e) BEZaren doiketa

Ekitaldia bitartean Nafarroaren eta Estatuaren arteko ezadostasunak sortu ziren komunitateen arteko erosketak zirela eta. Horrek ekarri zuen Estatuak laugarren lauhilekoa ez ordaintzea; 5.147 milioitan kalkulatu zen hori. Zenbateko hori ez da kontabilizatu ez aurrekontuetan ez aurrekontuetatik kanpo ere. Ikus horren eragina ekitaldiaren emaitzetan.

1997 ekitaldiaren bukaeran beste hitzarmen bat sinatu da Estatuarekin. Horretan, zenbatekoak eguneratzen dira 2.000 urtera arte eta 1995 eta 1996 ekitaldiak erregularizatzen dira.

**3.2.2. Nafarroako Gobernuaren ordainketen sistema**

Horretarako erabiltzen diren sistema informatizatuak bat baino gehiago dira: Kudeaketa Ekonomiko eta Finatzarioko Sistema –KEFS–, kontabilitatearen euskarria dena, bai aurrekontuena bai ondarearena. "Hirugarrenen Kontabilitate Laguntzailea eta Zerga-Kudeaketa" –HKL eta ZK–, zordunen kontabilitate laguntzaile gisa definitu daitekeena. "Ordainketak eta Bankuak" –OB–, ordainketak eta dirusarrerak, entitate finantzarioetan dauden saldoak eta abar kudeatzen dituen diruzaintzako kontabilitate lagungarri gisa erabiltzen da. Nominen sisteman ere esku hartzen du, izan ere ordainketen sistema garrantzitsua delako.

Ordainketa prozesuaren diseinua, eginkizunen bereizketaren hatsapenean oinarritzen da. Alde batetik gastua sortzen duen eragiketa dagokion zerbitzuan kudatzen da eta behar den kontabilitate zentroko aurrekontuen kontabilitatean eta kontabilitate orokorrean erregistratzen da, antolamendu egitura deszentralizatu batean –37 kontabilitate zentro daude– Kontuhartzailetzaren barneko kontroleko prozesuak iragan ondoren.

**A)** Diruzaintzaz kanpoko sistema

Gastua sortzen duen unitateak ordainagirian edo horri eusten dion dokumentuan gastu hori finantzatuko duen aurrekontu-lerroa ematen du. Kasuan kasuko kontabilitate-zentrora bildaltzen da, bertan behar den kontabilitate-agiria bete dadin. Hori guztia kontuhartzailetzaren kontrolpean egiten da.

Kontabilitate zentroan konbabilizatzeari ekiten zaio, terminalean datuak "tekleatuz", horretarako sistemak aurredefinituriko pantailak erabiliz –KEFS ekintzak"-; pantaila horiek aurrekontufaseak bereizten dituzte ondoko irizpideak erabiliz: libramenduak jaulki diren ala ez, zein libramendu mota den, nominak eta abar. KEFS ekintzak erabiltzeak dokumentuaren datuak integratzen ditu aurrekontuen kontabilitatean eta ondarearen kontabilitatean.

Egunero, Informatikak bezperako idazpenen egunkaria egiten du. Seinalatutako dokumentazioarekin alderatzen da. Hori egin ondotik dokumentazioa artxibatu egiten da konbilitate zentro bakoitzean, urtearen, ekintza motaren eta KEFS-ek koerlatiboki esleituriko zenbakiaren arabera.

Ordainketak sortarazi behar dituzten ekintzak –0 fasea– "Ordaintzeko dauden libramenduen" kontuari dagokion taula batean sartzen dira. Horiek liberatu ahal izateko ezinbestekoa da kontuhartzaileak, dokumentazio guztia ikusi ondoren, baimena tekleatzea. Hori egin ondoren, liberaturiko libramenduak interfaseko taula batera pasatzen dira. OB (Ordanketak eta Bankuak) Diruzaintza sistemak hartuko ditu hortik.

Sistema orokorra deskribatu ondoren, berezitasunak ere badaudela azaldu behar da:

• "Se date" libramendua

Pertsona askori eta ordainketa-kontzeptu berarengatik ordaindu beharreko zenbatekoen zerrenda bat da –normalean diru gutxiko zenbatekoak–. Kontabilitate-idazpen asko izatea ekiditeko, guztizko zenbatekoa hartuko duen libramendu bakar bat egiten da, beraz, kontabilitate idazpen bakarra. Beraz, konbabilitatearen ondorioetarako hartzaileen xehetasuna galtzen da.

Prozedura hori ohiko prozeduratik bereizten da "se date" prozedurak P-2 ordainketen xehetasuna behar duelako; eskatzen duen Departamentuko

Idazkari Teknikoak baimendu behar du hori. Ikusi dugun moduan kontabilizatzen da kontabilitate zentroan, baina blokeatuta geratzen da, hau da, ez da Diruzaintzako prozedura hasiko harik eta atal horrek baimenaren P-2 izenekoa jasotzen duen arte.

• Konturako kargu zuzena

Finantza entitateak egingo du zuzenean. Gastu zentro jakin batzuek baimena dute aukera hori ordainketa jakin batzuetan erabiltzeko. Baimen horiek OB (Ordainketak eta Bankuak) taulan agertzen dira. Sistemak taula horren aurka egiaztatuko du eragiketa baimenduta ote dagoen. Logikaz, kasu hauetan ordainketa edozein administrazio eta kontabilitate jarduera baino lehenagokoa da.

• Libramendu berezia

Hura ordaintzeko, Aurrekontu eta Diruzaintza Zerbitzuko zuzendariaren baimena behar da. Ohiko libramendu baten aurretiko pasuak emanda daudela –hau da, aurrekontu-lerro bat eman, kontabilitate agira burutu kontuhartzailearen oniritziarekin eta abar–, kontabilitate zentroak, gainera, “libramendu bereziaren bidezko ordainketa egiteko eskaria” bete beharko du. Eskari hori eta gainerako dokumentazio euskarria baimena eman behar duen zerbitzura igortzen dira, eta hortik Diruzaintzara. Diruzaintzan ordaindu egingo da eta gero dokumentuak kontabilitate zentroari itzuliko zaizkio. Zentro honek kontabilizatu egingo ditu eta kontuhartzailearen oniritza jaso eta gero, kontabilitatean sartuko dira eta interfasera pasatuko dira, Diruzaintzaren eskutara.

Labur bilduz, libramendu bereziaren izapidaketak ohiko hurrenkera aldatzen du. Lehenbizi Diruzaintzaren sisteman integratzen da zuzenean eta gero aurrekontu– eta ondare-kontabilitatean. Hortik, kontuhartzaileak oiniritzia eman eta gero, interfasearen bitartez Diruzaintzara pasatuko da, baina ordainketa debekatzen duen “90” kode indentifikatzailea duela, izan ere ordainketa ordurako egina dagoelako.

**B)** Diruzaintzaren sistema

Sistema informatizatua da OB (Ordainketak eta Bankuak) deitzen duguna. Haren xedea da, ordainketei dagokienez, KEFS sisteman dauden ordainketa aginduak –libramenduak– Interfase taula baten bidez kudeatzea edo Diruzaintzara zuzenean heldutakoak (libramendu bereziak), aukeratutako finantza entitateak horiek ordaindu arte eta eragiketa horiek behar bezala erregistratu arte.

• OBren (Ordainketak eta Bankuak) elementuak.

Sistema hau Hirugarrenen Kontabilite Laguntzailearen oso antzekoa da. Sistemaren gakoa “Oinarrizko kontua” izenekoa da. Hori oinarrizko unitate bat da non kontabilitate-idazpenak jartzen diren. Libramendu bakoitza eta finantza entitate bateko kontu bakoitza oinarrizko kontu bat dira.

Oinarrizko kontu bakoitzerako erregistro nagusi edo erregistroburu bat eta oinarrizko kontuaren satelite bat sortzen dira. Azken horrek KEFS sistemak edo beste azpisistema batzuek emandako datuak eta OB sistemaren beraren bidez sarturiko datuak bilduko ditu.

Kontabilitate idazpen posibleek libramendu bat izapidatzeko orduan erregistratzen diren egitate ezberdinak sailkatzen ditu. Mota ezberdinetako taldeetan biltzen dira, eragiketaren kontzeptu orokorren arabera.

Idazpenak, logikaz, idazpenetan biltzen dira, azken horiek ere motaren arabera sailkatuak.

OB (Ordainketak eta Bankuak) sistemako datu guztiak taulatan ordenatzen dira.

OB sistemak prozesuen bitartez funtzionatzen du. Prozesu horiek multzotan banatzen dira, eta multzoak programatan banatzen dira. Programa horiek eragin zuzena dute sistemaren taula ezberdinetan, eragiketa jakin batzuk burutuz.

Kontsultak egiteko, datuak sartzeko, programak arrankatzeko, txostenak egiteko eta abar “OB sistemaren ekintzak edo funtzioak” izenekoak erabiltzen dira. Ekintza horiek funtzionatzeko aurredefinituriko pantaila batzuetan tekleatu behar da. Pantaila horietara sartzeko erabiltzaileak baimena beharko du (administrazioko taulak).

• Ordainketa prozesua

Bi prozesu ezberdin bereiz daitezke, alegia:

a) Eguneroko prozesua, Diruzaintza sisteman kontabilitatetik bi sistemen arteko taula batera –interfasea– pasatu diren libramenduak hartzeko erabiliko dena. Hainbat kontrol eta balidazio egingo ditu. Zenbait kontrol-txosten aterako ditu eta OB sistemaren barneko kontabilitatea eguneratuko du.

b) Asteroko prozesua, aste osoko prozesuak biltzen dituena eta banku-entitateei transferentziak egiten dizkiena, ordaintzeko agindua ematen dien bitartean. Izatez, bi prozesu dira astero egiten direnak. Asteazkenean lote arrunta ordaintzeko agindua ematen da eta ostiralean lote horreta-

tik kanpo geratu diren bestelako ordainketak egiteko agindua ematen da.

a) Eguneroko prozesua.

1.a Libramenduak KEFStik OBra lekualdatzea.

Egunero, OB sistemak KEFS-Interfase libramenduak taulatik, kontuartzaileak oniritzitako ordainketa aginduak hartzen ditu; horrela, libramendu kopuru bat sortzen da. Era horretara Diruzaintza sisteman sartzen dira.

2.a Libramenduen balidazioa

Sistemak egiaztatzen du OB sistemak onartu dituela KEFS sisteman lekualdatutzat emaniko libramendu guztiak.

OBk libramendua onartuko du emandako NAN/IFK datutegian baldin badago eta harekin batera kobrantzak egiteko banku-kontua agertzen bada.

3.a Endosuen kontrola

Endosatzaile batek endosu-hartzaile bati eginiko libramenduen endosuak kontrolatu eta kudeatzeko lanak OB sistemak duen modulu independente batek egiten du. Endosuak beren jatorriaren arabera kodetzen dira –ofiziala, judiziala eta beste–,eta okorrak –endosatzailearentzata dauden libramendu guztiak– edo berariazkoak –libramendu jakin bat– izan daitezke.

Sistemak, endosu baten klabea antzematen duenean, libramendua blokeatzen du. Diruzaintzan azpilibramendu bat sortzen da, eta ordainketa –erabatekoa edo partziala– egiten zaio endosuaren arabera libramendu hori kobratu behar duenari.

4.a Blokeoen kontrola.

Horiek ere sistemaren modulu independente batek kudeatzen ditu. Blokeoetarako 13 kode ezberdin daude. Blokeoak ordainketa eragozten du, zorrak konpentsatzen edo bahitura judiziala ordaintzen ez den bitartean eta abar. Asko dira dauden aukerak: guztientzako libramendu jakin bat, hirugarren baten libramenduak eta abar. Moduluak ekintza jakin batzuk ditu blokeoak deusezteko eta kontsultak egiteko. Blokeoari eusten dion dokumentazioa Diruzaintzan artxibatzen da.

Blokeoetarako prozesu berezi bat dago, Agentzia Exekutiboak eskatuta egin daitekeena, astelehenetan burutzen dena.

Ordaintzeko dauden libramenduekin astean pilatu dena azaltzen duen taula bat eta Agentzia Exekutiboaren fitxeroen arteko gurutzaketa bat eginez, premiamenduan diren zordunak diren titularrek agindutako ordainketen zerrenda bat lortzen da. Zerrenda horren gainean Agente Exekutiboak blokeatu behar direnak markatuko ditu, eta horretarako baimena eman beharko du bere sinadurarekin. Diruzaintzan, zerrenda hori ikusita, pantailan blokeatuko dira banan-banan, eta horien zerrenda artxibatu egingo da.

5.a “Se date” azalpena, aurredefinituriko maketa baten bitartez.

Sisteman duen beste modulu bat da, se date libramenduak egiteko balio duena. Libramendu horiek sisteman sartzen direnetik blokeatuta daude, eta horrela egoten dira Diruzaintzara ordainketen xehetasunak ematen dituen zerrenda heldu arte, kontabilitate zentroak bidalita.

Aurredefinituriko maketa alternatiba bat da sistemarako, kontabilitate zentroak banakako ordainketen xehetasunak Diruzaintzarekin partekaturiko taula bat sartzeko bidea ematen duena, xehetasunak paperean bidali beharrean. Horrela banakako hartzaileen xehetasuna ez galtzea lortzen da eta ordainketa horiek balidazio kontrolak pasatzea. Gainera, alde batera uzten da mekanizatu gabeko “se date” izenekoek berezkoa duten informazioaren galera.

Desgloseak koadratzeko errutina bat ere aurreikusten da. Modulu hau sistemak duen aukera bat dela eta oraindik ez dela erabili adierazi behar da.

6.a Informazioaren tratamendua

Pantaila bidez hainbat datu sartzeko ekintzen multzoa, nahitaez edo hala nahi izanez gero, kasu bakoitzaren arabera: Titularra den hirugarrena aldatzea, banku ordaintzaileak finkatzea, banku-kontu ordaintzaile bakoitzak eta banku guztien multzoak ordaindu beharreko gehieneko kopuruak finkatzea eta ordainketa-lehentasunak ezartzea (hori ez da erabiltzen).

7.a Proposamena birkalkulatzea

Ordainketa-baldintzetan aldagaiak sartu ondoren (hala bada), pantaila bidez horiek berresteak proposamena birkalkulatzeko ekintza hau funtzionarazten du, baremo-saldoaren kalkulua deritzona eta banku ordaintzailearen hasierako esleipena eginez.

Baremo-saldoaren kalkuluak finkatzen du banku bakoitzari dagokiona, Nafarroako Gobernuak duen guztizko saldoaren arabera, horren exekuzioa horien guztien artean egitean.

Banku ordaintzailea esleitzea: Libramendua blokeatuta baldin badago, blokeaturiko kontuaren bidez egingo da ordainketa. Ez baldin badago blo-

keatuta, libramendua ordainduko da helbideratzegako gisa definituriko banku-kontuaren bidez –hau da, hartzekodunak adierazitakoaren bidez.

Banku ordaintzaileko kontua esleitu ondoren, egun horretarako ordaintzaile gisa definituriko banku batekoa baldin bada kontu hori, libramendua banku horren bidez ordainduko da. Kontrako kasuan, libramendu hori ordainduko da halakorik ezean definituriko kontuaren bidez.

8.a Ordainketaren antolamendua.

Kontu ordaintzaile bakoitzak egun jakin batean ordaindu behar dituen libramenduei buruzko proposamena kalkulatu ondoren, onetsi egiten da, edo, bestela, aukeran, libramenduak berresleitzen edo proposamenetik ezabatzen dira. Hitz gutxitan, libramendu-ordainketa beste banku batera desbidera daiteke, behar bezala koadratu arte.

9.a Eguneroko zerrenda-igorpena.

Azalduriko prozesuek hurrengo egunean Diruzaintzan jasotzen diren honako zerrenda hauek sortarazten dituzte:

* Eskualdaketaren laburpen-zerrenda, eskuz aldaturiko libramenduen kopurua eta zenbatekoa adieraziz, mota ezberdinak bereiztuz: eskualdatu gabeko libramenduen guztizkoa, “se date” libramenduen guztizkoa, “no se date” libramenduen guztizkoa, libramendu berezien guztizkoa, kargu zuzeneko libramenduen guztizkoa eta eskualdaturiko eta ez eskualdaturiko libramenduen guztizkoa.

* Zorren bitartez oreka daitezkeen libramenduen guztizkoa.

* Blokeaturiko libramenduen guztizkoa.

* Sorturiko proposamenen guztizkoa. Kopurua eta zenbatekoa.

* Diruzaintzara eskualdaturiko zorraren aitorpena.

* Ordaindu beharreko libramenduen zerrenda.

* UU/HH/EE datako ordainketa-antolamenduaren zerrenda.

b) Asteroko prozesua. Multzoak osatzea.

Libramendu normalen ordainketak “multzo” delakoan egiten dira, asteazkenetan. Horien prestaketa astelehenean hasten da. Libramendu bereziek prozedura ezberdina jarraitzen dute, baina asteazkenetako multzoetan ere integratzen dira, edo, bestela, ordainketa-prozesu ezberdin batean, ostiraletan.

Informatikak aurreko asteko zerrenda metatu bat igortzen du, ordaindu beharreko libramenduena, egunerokoaren egitura berbera duena.

Diruzaintzan, ordainketa-proposamena prestatzen joateko helburuarekin, pantaila bidez guztizko zenbatekoen arabera antolaturiko laburpen bat lortzen da, “ordaintzea erabakitako zenbatekoa”, Informatikako zerrendaren zain egon behar izan gabe.

Ondoren, diruzaintzan prozesu bat abiarazten da. Honako eragiketa hauek burutzen dituzten hiru blokez osatua dago:

1.– Kontabilizazioa.

OBko kontabilitate osagarria gaurkotu egiten da, Libramenduen kontuetan kargatuz eta Banku ordaintzaileen kontuetan abonatuz. Kontabilitate osagarri hori fondo-hornidura egitean koadratuko da, banku ordaintzaileen kontuak kargatuz eta kutxako kontuetan abonatuz; orduan azalduko dute bankuen kontuek beren benetako saldoa.

2.– Transferentzia-taulak sortzea.

Dagoeneko kontabilizaturiko libramendu bakoitzerako erregistro bat duen taula bat sortzen da. Sistemak, banku ordaintzaile bakoitzeko, transferentzia-fitxategi bat eratzen du. Taula honetatik, beranduago, ordainketa-disketea lortuko da.

3.– Zerrendak (multzoa) egitea eta jakinarazpenak.

Hurrengo egunean, kontabilizaturiko libramenduak (multzoa) ordaintzeko aginduen eta libramendu horietako bakoitzerako jakinarazpen-aginduen zerrenda bat iristen da Informatikatik. Jakinarazpenak posta arruntez bidaltzen dira.

Multzo deiturikoa bankuaren arabera ordenatua dago, eta, banku bakoitzean, zenbatekoen arabera. Sinatu ondoren, NAK (CAN)-era bidaltzen da, horri buruzko disketeekin batera (horiek Diruzaintzan lortuak dira, ad hoc ekintza baten bidez). Ordainketa egina dago.

4.– Libramendu berezien tratamendua. Horiek multzoan sartzea.

Bereziak edo arruntak ez diren libramenduek premiazko izaera dute sisteman sartzen diren unetik. Horiek ordaintzeko beharrezkoa da baimentze-prozedura berezi bat.

Ordainketa hiru modu ezberdinetan egin daiteke: transferentzia, txeke edo banakako transferentzia bidezko premiazko ordainketen multzoa. Normalki premiazko libramenduen multzo forman egin ohi da, eta horretarako prozesua, laburbilduz, hauxe da:

Libramendu normalen multzoa osatzeko prozedura abian jartzearekin batera, Diruzaintzatik, aldez aurretik definituriko ekintza baten bidez, libramendu bereziak lekualdatzeko prozesua hasten da, azken horrek honako prozedura normal hauek barnean hartuz: datuak balidatzea, zorrak kontrolatzea, blokeoak eta endosoak kontrolatzea eta ordainketa-proposamena gaurkotzea.

Horrela, premiazko libramenduen multzoa lortzen da, eta horiek libramendu normalen multzoari gehitzen zaizkio, izapidatze berbera jarraituz: sinadurak, bankuetara igorpenak egitea eta abar.

5.– Ostiraletako aparteko multzoa.

Astelehenetan, multzo normala prestatzean, Diruzainak kopuru garrantzitsu batetik gora ordaindu beharreko libramenduen xehekapen bat lortzen du, horien norakoa Nafarroako Gobernuaren inbertsio-kontu bat duen banku bat izanik. Libramendu horiek pantailan blokeatu egiten dira, asteazkeneko multzo normalari ez gehitzeko. Premiazko gisa hurrengo ostiralean ordainduko dira, bankuek eragiketak egozteko dituzten bi egun naturalak saihesteko.

Ostiralean banku adina premiazko libramendu egingo dira, eta, dagozkien taloiekin batera, egun horretan bertan banatuko dira.

6.– Fondo-hornidura.

Diruzaintzak nahi duena hauxe da: fondoak kontu korronteek baino interes hobea eskaintzen duten inbertsio-kontuetan ipiniak egotea. Kontu korronteak saldo txikiekin mantentzen dira, zenbaki gorriak ekiditeko. Gainera, hau ere lortu nahi da: hartzekodunen banku-kontura eginiko transferentzien bitartez buruturiko ordainketak hartzekodun horiek kontua duteneko finantza-entitate berean gordetako fondoekin egitea. Beraz, asteroko ordainketa-prozesu bakoitzean beharrezkoa da inbertsio-kontutik transferentziak egitea Foru Ogasunaren kontu korrontera, eta, eskastasun-kasuan, banku-entitate ezberdinen arteko transferentziak.

Horretarako, “Asteko ordainketa-proposamena” deituriko txosten bat egiten dute Diruzaintzan. Txosten horri buruzko erabakia Aurrekontu eta Diruzaintza Zerbitzuko Zuzendaritzak hartzen du. Prozesu hori hainbat ekintzaren bidez osatzen da: bankuek eginiko fondo-hornidurаren kalkulua, fondo-hornidurako txekeak igortzeko abiaraztea egiaztatzea eta taloiak baimenduriko pertsonek sinatzea. Finantza-entitateetan entregatzean amaitzen da.

• Kontabilizazioa.

Esan bezala, OB sistemak barne kontabilitate berekia dauka, eta horren nukleoa oinarrizko kontua da: hor adierazten dira kudeaketa-eragiketa ezberdinak, aurredefinituriko idazpen– eta oharpen-motekin. Baina barne kontabilitate honek automatikoki idazpenak sortzen ditu (OB ekintza) aurrekontu– eta ondare-kontabilitatean (KEFS).

Kontabilizazioa oinarritzen da OBko bihurketa-taula aurredefinitu batean, OBko barne kontabilitateko idazpenak sailkatzen dituena kontu-mota, idazpen-mota, oharpen-mota, eta libramendu-mota bereiztuz, horien konbinazio bakoitzerako KEFSen idazpena sortarazi behar duten ala ez definituz, eta, baiezkoan, kontabilitate orokorreko zer konturen kontra.

Maiztasun haundieneko kasuak hauek dira: libramendu normalak, libramendu bereziak, konturako kargu zuzenak, libramendu-itzulketak/ordaintzen berriro saiatzea eta libramendu-itzulketa/deuseztapena. Suposamendu horiek ez dituzte kasu posible guztiak barnean hartzen.

• Kontrol-errutinak.

Aldizka, dela noiztik/noiz arte data-tartea aukeratuz, dela modu automatikoan, aurreko koadratzearen datatik, hainbat kontrol-prozesu abiarazten da:

a) OB koadratze-txostena.

Hauxe egiaztatzen du: OBko barne kontabilitatean oinarrizko kontu guztiak koadratuta daudela baldin eta euren prozesu-data hautaturikoen artean badago. Hau da, haien “zor”eko zenbatekoa “hartzeko”ko zenbateko berbera dela. Hala bada, zerrendak adierazten du: “ez dago idazpen-deskoadratzerik”. Kontrako kasuan, deskoadraturiko oinarrizko kontuak agertzen ditu.

b) Kontabilizazio-prozesuaren laburpena

Prozesu konplexua da. Honakoa arautzen du: Diruzaintzako kontabilitate osagarriko oharpenek KEFS Kontabilitate Orokorrean OB oharpenak sortaraztea, bihurketa-taulak kontrolaturiko barne lan-taula bat sortuz eta horri buruzko txostenak eginez.

Prozesuak hainbat baliozkotze-prozesu dauzka, KEFSen idazpenak sortarazi ez dituzten OB oharpenak hautatu eta agerian jartzen dituztenak, zenbait errore-mezu bidaliz, hala bada. Bihurketa-taulan OBko idazpenak aurredefiniturik ez baldin badaude, ez du idazpenik egiten eta mezu hau sortzen du: “Errorea, bihurketa-taulan aurkitu gabeko erreferentzia”. Ordainketa-kontua zuzena ez baldin bada, ez du idazpenik sortarazten, mezu

hau baizik: “Errorea. Banku-kontuetan aurkitzen ez den Bankua”. Kontabilitate orokorreko egozpen-kontua okerra bada, ez du inolako idazpenik egiten, eta mezu hau sortarazten du: “Errorea. Kontabilitate orokorrean ez dagoen lehenengo eta bigarren mailako kontua”. Idazpenaren erreferentzia kalkulatzean arazorik izan baldin bada, ez du kalkulatzen eta mezu hau sortarazten du: “Errorea. Baliorik gabeko idazpen-erreferentzia”.

Arazorik ez baldin bada izan, taula-gaurkotze bidez kontabilizatzen da.

c) OB KEFSekin koadratzea.

KEFSean OB sistemaren bitartez sortarazitako idazpenak azken sistema horretan dauden idazpenekin koadratzen ditu. Deskoadratzerik ez baldin badago, mezu bat bidaltzen du, hau esanez: “Ez dago deskoadratzerik OB eta KEFSen artean”.

**C)** Eginiko probak.

97-05-05etik (astelehena) 97-05-09ra (ostirala) arteko astean sortarazitako multzoaren osaketa egiaztatu nahi dugu.

1. xedea. KEFSek interfasera lekualdaturiko libramendu guztiak OB sistemak jasoak izan direla egiaztatzea.

Metodoa: KEFSeko interfasera lekualdaturiko libramenduak eta OBk bere eguneroko prozesuan igorritako zerrendak konparatzea.

Ondorioa: Libramendu-kopurua eta kontabilitate-zentro bakoitzeko guztizkoa, interfase eta Diruzaintzako KEFS taulan (TF.224) lekualdatze-data aztergai diren daten artean edukiz agertzen direnak, bat datoz epe horretarako OB sistemak “Diruzaintzara lekualdaturiko zorren aitorpena” izenpean adierazten duen kopuruarekin eta kontabilitate-zentro bakoitzeko guztizko zenbatekoarekin, eguneroko prozesuak eginiko zerrenden arabera.

2. xedea. Lekualdaturiko datuen identitatea egiaztatzea.

Metodoa: egun baterako (1997ko maiatzaren 6a) konparatzea TF.224 interfasearen arabera lekualdaturiko libramendu guztiak eta “Diruzaintzara lekualdaturiko zor-aitorpenak”-eko zerrendaren arabera jasotakoak.

Ondorioa: Aipaturiko egunerako, kontuhartzaileak oniritzia emandako libramendu guztiak, eta horiek bakarrik, “pasatu” dira OB sistemara, kasu guztietan kontabilitate-zentroa, libramendu-zenbakia, NAN/IFZ eta zenbatekoa bat etorriz.

3. xedea. Eskualdaketa-prozesuak prozeduran deskribaturiko txostenak, egunerokoak eta asterokoak, sortarazi dituela egiaztatzea.

Metodoa: Sistemak sortarazitako txostenak bildu eta aztertzea.

Ondorioa: Eginiko zerrendak prozeduran “sistemak sortarazitakoak” gisa deskribaturikoak dira. Ematen den informazioa koherentea da.

4. xedea. Prozeduran deskribaturiko baliozkotze-kontrolak, endosoak, blokeoak, “se date” xehekapenak eta abar egin direla egiaztatzea.

Metodoa: “se date” libramenduak, bereziak, kargu zuzenak, libramendu orekagarriak eta blokeaturiko libramenduak aztertzea. Hala bada, egoki diren oinarrizko kontuak kontsultatzea.

Ondorioak: Libramendu bereziak.– Egiazta dezakegunez, sistemaren logikaren arabera, libramendu berezi guztiak kontuhartzailearen oniritziaren aurretik ordaindu ziren, eta, beraz, ez dute ordainketa-proposamenik sortarazten.

Konturako kargu zuzenak. Era berean, lekualdaturiko bakarra aldez aurretik ordaindua izan zen, sistemaren logikaren arabera, eta ez du ordainketa-proposamenik sortarazten.

Blokeaturiko libramenduak. Blokeaturiko zortzi libramenduetatik lautan Agentzia Eragileak eginikoa da blokeoa. Dokumentaturik daude (kobrantza-eskubideen lagapena). CATeko oinarrizko kontu egokietan egiaztatzen dugunez, orekatu egin dituzte zorrak.

Blokeoetako beste bat “kopuruzkoa” da. Prozeduran azalduriko moduan premiazko libramenduz hurrengo ostiralean ordaintzen dela egiaztatzen dugu.

Beste hiru blokeoak CATetik datoz. Orekatzeke daude.

Kasu guztietan, idazpen eta egoera egokiak zein bere taulan agertzen dira (TF. 404, “Blokeoak-desblokeoak”), eta blokeoari dagokion adierazlea TF. 409an (“Libramendu-satelitea”).

5. xedea. Lekualdaturiko libramendu guztiak asteari dagokion multzoan sartzen direla egiaztatzea.

Metodoa: Alderaketa egitea asteroko multzoaren eta eguneroko lekualdaketen artean, 100.000 pezeta baino gehiagoko 728 libramenduentzat (2457 libramenduko populazio osoaren ehuneko 29,6).

Ondorioa: Asteroko multzoan ordainduriko libramendu guztiak, 10 izan ezik, lekualdatu dira Diruzaintzara arretagai dugun astean.

Azterturiko multzoan, egoki zen epean Diruzaintzara lekualdatu gabeko libramenduak ordaintzea justifikatua dago: aldez aurretik lekualdaturiko libramenduak izan daitezke, multzo honetan ordaintzen direnak epe-muga hori edukitzeagatik, edo, bestela, behinola Agentzia Eragileak blokeatu zituen eta, ondoren, guztiz edo partzialki liberatuak izan ziren, kasu horietan Agentzia Eragilearen idatzizko agindua izanik.

6. xedea. Multzoan ez dauden libramenduak behar bezala baimenduriko eta agerturiko blokeo-egoeran daudela egiaztatzea.

Metodoa: KEFSetik Diruzaintzara pasatu izanik, asteroko multzoan agertzen ez diren libramenduak hautatzea. Horietako bakoitzaren egoera aztertzea, oinarrizko kontu egokia kontsultatuz, eta behar den dokumentazioa bilduz, hala bada.

Ondorioa: Bost libramendu eskuz blokeatuak izan dira, Agentzia Eragileak igorritako zerrendaren arabera, azalduriko prozedurari jarraituz. Horientzat guztientzat Agentzia Eragileraren agindua badago. Gainontzekoa hamar premiazko libramendu eta kargu zuzen bat dira, sistemaren logikaren arabera libramendua Diruzaintzara pasa aurretik ordaintzen direnak. Kasu guztietan libramendua aldez aurretik ordaindua zegoela egiaztatu dugu.

7. xedea. Multzoan, eta ez interfasean, dauden libramenduak behar bezala agerturiko eta baimenduriko libramendu bereziak edo kargu zuzenak direla ziurtatzea.

Metodoa: “Queries ad hoc” direlakoen bitartez, ostiralean, hilaren 14an –ordaintzeko eguna, prozeduraren arabera–, sisteman prozesaturiko premiazko libramenduak eta kargu zuzenak lortzen ditugu. Zerrenda hori konparatzen dugu ostiral horretan ordainketarako jarritako premiazko libramenduen multzoarekin.

Ondorioa: Premiazko libramendu guztiak multzoan daude, eta prozeduran azaldu bezala daude dokumentatuta.

***Laburbilduz:***

• Automatismoa.

Hauxe nahi da: Gastu Zentroak igorritako ordainketa-aginduko datuak sistemak automatikoki har ditzala, eta, baita ere automatikoki, transferentzia-agindu edo taloia sor dezala.

Printzipio honek bi salbuespen ditu: libramendu bereziak, hasierako diseinuaren arabera sisteman libramendu normala bezalaxe, kontabilitatezentroaren bidez, “sartzen” zen horrek, gaur egun Diruzaintzaren bitartez du sarbidea sisteman, ondoren hark eginiko datu-sartzearekin koadratu behar badu ere.

Taloi bidez eginiko ordainketentzat, asmaturiko prozedurak ezartzen zuen sistemak berak transkribatu behar zuela ordainketa-agindua taloi batean. Hainbat zailtasun dela-eta, gaur egun taloiak eskuz egiten dira.

Prozesuan zehar gertaturiko ordainketa-datuen edozein aldaketa erregistratua geratzen da. Bestalde, ordainketa egin ondoren, sistemak berak automatikoki egiten ditu idazpenak aurrekontu– eta ondare-kontabilitatean.

• Berehalakotasuna.

Ordainketa-prozesua egunerokoa izan zedin pentsatu zen sistema. Praktikan, asterokoa da.

• Informazioa.

Ordainketaren datu guztiak sistemaren tauletan jasoak geratzen dira, horiek lantzea ahalbidetuz, informazioa lortzeko aukera zabal batekin, aurredefinituriko txosten multzo bat ere sortuz.

• Kontrola.

Sistema informatiko ezberdinen arteko informazio-lekualdaketen gainekoa. Horiek egunero koadratzen dira. Ordainketa kudeatzeko edozein eragiketaren gainekoa. Horiek erregistraturik geratzen dira. Hartzekodunaren identitate-datuen eta abonorako bere banku-kontuaren gainekoa , baliozkotze-mekanismoen bitartez. Zenbatekoen gainekoa, sistemaren barne kontabilitatea koadratuz. Aurrekontu– eta ondare-kontabilitatean eginiko idazpenen gainekoa, koadratze-prozesuen bitartez.

• Malgutasuna.

Sistemako hainbat moduluren bitartez; enbargo edo epailearen agindurik baldin badago, ordainketak deribatzea, edo Foru Ogasunarekin zorrak dituzten pertsonei ordainketak egitea ekiditea posible egiten dutenak, azken kasu horretan zorrak orekatuz eta eragiketa horiek erregistratuz.

• Prozedurari buruzko arau eta eskuliburuak.

Posible diren eragiketa guztien kudeaketa, baimentze eta funtzionamendurako beharrezkoak diren idatzizko arauak egotea, baita horiek behar bezala dokumentaturik eta etengabe gaurkoturik egotea, prozesuetan esku hartzen duten pertso-

nen eskura, barne kontrolerako sistema egoki batek galdatzen duen zerbait da.

Gure lanean zehar ikusi ahal izan dugu sistemako ekintzen eta prozesu ezberdinen deskripzioa badagoela, sistemaren hasierako diseinutik datorrena; baita ere, OBko barne kontabilizazioaren eta KEFSen eginiko idazpenen eskuliburu bat. Horrek guztiak aldaketak jasan ditu ezarria izan ondoren, eta horiek jaso eta deskribatzen dituen dokumenturik ez dago.

Prozeduraren eta eginiko proben analisiari jarraituz, hauxe ondorioztatzen dugu: Nafarroako Gobernuaren ordainketa-sistemak modu egoki batean ziurtatzen duela eginiko ordainketen zuzentasuna eta horien kontabilizazioa. Hala ere, honakoa gomendatzen dugu:

*Gaurkoturiko prozedura-eskuliburu batean jasotzea sistemako ekintzen eta prozesuen eta horiek sortzen dituzten kontabilizazio-prozesu automatikoen deskripzioa.*

3.3. AZTERKETA OPERATIBOA. EFIKAZIAREN, EFIZIENTZIAREN ETA EKONOMIAREN EBALUAZIOA.

Epigrafe honetan azaldu nahi dira, efikazia, efizientzia eta ekonomiaren printzipioetan oinarrituz baliabide publikoen kudeaketa ebaluatzeko asmoz eginiko lan operatiboen ondorio nagusiak.

Ekitaldian aztertu diren programa eta/edo jarduerak hauexek dira:

• Langileria-kudeaketa II.

• Suhiltzaileen partzuergoa.

• Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileria-kudeaketa.

• Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

• Minusbaliatuen programa.

Jarraian agertzen ditugu aurreko programa eta jardueren azterketa berezian lorturiko ondorio nagusiak.

**3.3.1. Langileria-kudeaketa II.**

“Langileria-kudeaketa II”-ri buruzko txostenak (32. zenbakia duen 1997ko ekainaren 5eko NPAOn argitaratua) bi helburu ditu:

a) Foru Komunitateko Administrazioan aplikatu beharreko izaera aldakorreko ordainsariek izan litzaketen oinarrizko ezaugarri eta betekizunak zehaztea.

b) Hezkuntza Departamentuko langileria-kudeaketarako eredua aztertzea, horren ezaugarriak, printzipio arautzaileak, beharrizanak eta plantila organikoa aztertuz, eta, hala bada, ahuleziak detektatuz eta zuzenketa-neurriak proposatuz.

Jarraian, jarritako helburuei dagokienean gure analisitik eratorritako ondorioak eta, hala bada, gomendioak, aipatuko ditugu.

ORDAINSARI ALDAKORREI BURUZKO ONDORIOAK

Emaitza edo errendimendu eta lanbide-merituei loturiko ordainsariak, gaur egun, kontuan hartu beharreko elementu bat dira, baliabide publikoen kudeaketan dauden joera berriei egokituago dagoen ordainketa-sistema bat sortzerakoan.

Sektore pribatuan horren aplikazioa hedatua egotearen eta hala Administrazio Zentralean nola hainbat Autonomi eta Toki Administraziotan hori aztertu eta proba gisa ezartzearen ondorioz, Ganbara honek gogoeta-multzo bat aurkeztu du, horrelako ordainketa-sistema bat Foru Komunitateko Administrazioan onartu eta ondoren aplikatzean bete beharko liratekeen oinarrizko betekizunei buruz.

Egindako lanaren ondorio orokor gisa, honakoa adierazi behar dugu: izaera aldakorreko ordainketa-sistema bat sartzea ezin har daitekeela bere horretan, baizik eta oro har kudeaketa publikoa, eta, zehazki, giza baliabideak Foru Komunitateko Administrazioan erreformatzeko osoko prozesu baten barnean kokaturik.

Testuinguru horretan, Administrazioaren eraginkortasuna hobetzeko eta enplegatu publikoen motibazio-maila igotzeko tresna egokia gertatzen da. Alabaina, hori ezartzean arrakasta izatea honako honen baitan dago: erdietsitako lorpen eta errendimenduak zehaztea ahalbidetuko duten aurrekontu– eta antolamendu-teknikak aplikatzearen eta buruzagi eta langileek horren operatibotasunari buruzko informazio eta konbentzimendu osoa edukitzearen baitan.

Jarraian, aurreko iruzkinak garatu egingo ditugu.

• Foru Komunitateko Administrazioan egun aplikaturiko ordainketa-ereduaren (1) oinarrizko ezaugarri gisa honako hauek aipatu behar ditugu:

*(*) Ikus langileriaren kudeaketari buruzko txostena (NPAO, 42 zk. 1996ko ekainaren 28koa)*

1.– Eredu itxia eta osoa da.

2.– Tratamendu berdintzailea ematen du.

3.– Uniformea eta homogeneoa da.

4.– Ordainsariak nagusiki lanpostuari esleituriko mailarekin daude lotuta.

Eredu honetan, errendimenduak edo lorpenak ordaintzeko ezarritako ordainsari orokorra, alegia, “gradua”, funtzionarioaren antzinatasuna ordaintzeko kontzeptu huts bat bihurtu da. “Produktibitatea” deiturikoarekin bereziki loturikoek –Ogasun Departamentuko eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko talde jakin batzuei aplikaturikoak– ez dute garrantzizko kopururik osatzen, eta horien onuradunak Gobernuaren guztizko langileriaren kopuru oso txiki bat dira.

Bai administrazio publikoetan bai sektore pribatuan nabaritzen den joera, ordea, ezaugarri hauek dituen ordainsari-sistema baterakoa da:

1.– Sektore publikoa kudeatzeko formula berrietara egokitua egotea.

2.– Deszentralizatua eta/edo zerbitzu publiko ezberdinei egokitua.

3.– Enplegatu publikoen artean motibazioa sustatzen duena.

4.– Bakoitzari egokitua egotea edo ordainsariak pertsonalizatuta egotea.

5.– Bi ordainketa-osagai nagusirekin:

a) Ordainsari finkoa edo funtzio publikoan sartu eta lanpostua eduki ahal izateko bete beharreko baldintzek zehaztua.

b) Ordainsari aldakorra edo emaitza edo errendimendu eta lanbide-merituei lotua eta lanpostu bakoitzaren ezaugarriei egokitua.

Hala ere, izaera aldakorreko ordainsariak ezartzea ezin daiteke bere horretan helburutzat jo, izaera instrumentala baitu, tresna bat bailitzan, administrazio publikoetako giza baliabideen kudeaketa edo politika oso baten barruan. Azken horrek gutxienez honako eremu hauek berrikustea aurreikusiko du:

1.– Langile-hornidura.

2.– Prestakuntza.

3.– Antolamendua.

4.– Ordainketa-sistema.

5.– Langileriaren ordezkaritza.

Azken batean, zera eskatzen du: alde batetik, antolamendu– eta zuzendaritza– egitura egokia, prestaturiko buruzagiak, sistemaren abantailei buruzko konbentzimendua duten erantzule politikoak egotea eta horren definizioa eta burutzeplana behar bezala taxuturik egotea. Bestalde, egungo araudia aldatzea eska lezake.

Izaera aldakorreko ordainsariak ezartzeak, aurreko oinarrizko alderdiez gain, baldintza batzuk betetzea eskatzen du; horien artean, honako hauek:

1.– Sistema ulergarri eta argi bat definitzea.

2.– Erdietsi nahi diren helburuei buruzko azalpen osoa ematea langileei.

3.– Aplikazioan eta emaitzetan gardentasun eta publizitaterik haundiena.

4.– Ordainsariak ahalik eta ebaluazio-prozedura objektiboenen arabera koantifikatzea.

5.– Ordainsari hauek ez dute halakotzat errotuta geratu behar; izaera finkokoei lotuta behar dute egon.

6.– Enplegatu publikoak bere errendimenduan eta, beraz, bere ordainsari aldakorraren zehaztapenean, eragin nabaria eduki ahal izan behar du.

• Ordainsari aldakorreko sistema baten arrakastarako funtsezkoa den tresna bat, beraz, gauzatzen erraza, eraginkorra eta ahalik eta objektiboena den ebaluazio-metodo edo plan bat taxutu eta aplikatzean datza. Hala jarrera eta jokabideak nola enplegatu publikoek beren eginkizunak betetzean helburuak zein heinean betetzen dituzten baloratzea eta/edo neurtzea ahalbidetu behar du. Ebaluazio-plan honek galdatzen du, gainera, erantzule guztiek –politikoek zein zuzendaritzakoek– eta ukituriko langileek prestakuntza egokia eta zehatza izatea.

• Azterturiko esperientzien arabera, hasiera batean administrazio-unitate bati aplikatu behar zaio sistema, proba pilotu moduan, enplegatuei horrek ondorio ekonomikorik ekarri gabe, eta lantaldeak nahiz banakakoak ebaluatuz.

HEZKUNTZA DEPARTAMENTUKO LANGILERIA-KUDEAKETARI BURUZKO ONDORIOAK

Ondorio orokor gisa, Hezkuntza Departamentuan aplikaturiko langileria-kudeaketarako ereduak honako ezaugarri hauek dituela aipatu behar da:

• Departamentuko zerbitzu zentraletan zentralizaturiko eredu bat da –zehazki, Giza Baliabideen Zerbitzuko Zuzendariarengan–, ikastetxeetan kudeaketa-autonomiarik izan gabe.

• 1995ean, Hezkuntza departamentuko langileria-gastuek Nafarroako Gobernuaren gastu guztien ehuneko 10 osatu zuten, eta Nafarroako Gobernuaren langileria-gastuen ehuneko 34.

• 1. kapituluko (“langileria-gastuak”) hasierako aurrekontuaren zenbatespena ez da behar adinakoa; hori dela-eta, aurrekontu-aldaketa haundiak beharrezkoak dira, ekitaldiko gastuak dagozkien kredituek estalita egon daitezen.

• KEFSen bitartez eginiko kontabilitate/aurrekontu jarraipena ez da nahikoa langileria-kudeaketari dagozkion erabakiak hartzeko; ondorioz, departamentuari eskatzen zaio aplikazio informatiko berezi bat presta dadila, eginkizun hori burutu ahal izateko.

• Ordainketa-sistema tradizionala du, lanposturako eskaturiko maila oinarrizko erreferentzia izanik, eta errendimendu edo helburuei loturiko ordainsariak ez dira aurreikusten.

• Plantila organikoa ia osoki funtzionario publikoek osatua da; irakaskuntzan langileen ehuneko 85ak dihardu, eta administrazio-egoera berezi ugari dago (zerbitzu-eginkizunak, eszedentziak, atxikipenak...).

• Aldi baterako kontratazioen portzentaia altu bat eskatzen du, irakaskuntza-beharrizanei aurre egiteko, plantila organikoa egokitu gabe izatearen eta egungo araudiak jasotako lan-eskubideen ondorioz.

• Hiru faktorek eragin haundia dute etorkizuneko langileria-beharrizanetan: matrikulazio-beherakadak, LOGSEren aplikazioak eta hizkuntza-ereduaren bilakaerak. Beharrizan horiek zeintzuk izango diren eta horiei aurre egiteko tresnak epe ertainean planifikatu eta koantifikatzen dituen behar bezala onetsiriko txostenik ez da ageri.

• Azkenik, enplegatu publikoen tipologia ia erabat berria sortu da, hitzarturiko ikastetxe pribatuetako langileak direla-eta, botere publikoek definitu eta arautzen baitituzte horien lan-harremanei dagozkien oinarrizko puntuak.

Aurreko iruzkinek eskatzen dute Departamentuak azterlan– eta neurri-multzo bat egin eta hartzea, aipaturiko problemak argitu eta ebazteko, langileria-kudeaketa irakaskuntza-sare publikoak ongi funtzionatzeko egokia izan dadin. Zehazki, egungo plantila dimentsionatzea, etorkizuneko irakaskuntza-beharrizanei aurre egiteko, ea egungo baliabide finkoekin horiei erantzutea posible den aztertuz, kontuan edukiz birziklapen eta mugikortasunerako aukerak eta hitzarturiko langileriaren eragina, ezin baita benetako langileria-kudeaketari buruz hitz egin Hezkuntzan, hitzarturiko zentroekin dauden konpromisoen ondoriozko langileriamota honen eragina (birkokapenak, moduluaren definizioa eta abar) gogoan izan gabe.

**3.3.2. Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako Partzuergoa.**

• Efikazia, efizientzia eta ekonomia.

Analisi hau egitea ahalbidetzen duen mekanismo eta tresnarik Partzuergoan ez dagoenez gero, ezin gara mintzatu 1996rako horren aurrekontua betetzean erdietsiriko efikazia, efizientzia eta ekonomia mailari buruz.

Dena den, Plan zuzentzailean eginiko gomendioen jarraipena egin dugu, eta ondorio honetara iritsi gara: oro har, gomendio horiek ez dira betetzen ari edo horien betetze-erritmoa ez dator bat aipaturiko Planean adierazitakoarekin.

Azken batean, eta azken ondorio edo laburpen gisa, Kontuen Ganbara honen ustez Partzuergoak lehentasunez helburu hauetara zuzendu behar ditu bere urratsak:

a) Antolamendua.

• Kudeaketan Nafarroako Gobernuarekiko duen menpekotasun edo menpekotasun-ezaren norainokoa behin betiko argitzea.

• Partzuergoaren zerbitzuan dagoen langileria guztia arautze bakar baten pean bildu edo batzearen komenigarritasuna aztertzea, guztiek eskubide eta betebehar berberak izan ditzaten.

Kuestio horiek ebaztea nahitaezko premisa da kudeaketa ekonomiko-finantzazkoa hobetzeko neurriak ezartzeari begira, autonomia-maila altuago edo baxuago batek kontrol-maila eta kudeaketa-tresna ezberdinak aplikatzea eskatzen baitu. Hori guztia, legezkotasun-printzipioa hertsiki betez.

b) Kudeaketa.

Helburuak eta adierazleak, hala nola horien jarraipena (oroit-idazkia, denborak, kostuak...) ezartzea, Partzuergoari, beste edozein entitate publikori bezalaxe, eska dakiokeen betebehar bat da, Nafarroako gizartearen ongizateari egiten dion benetako ekarpena behar bezala baloratu ahal izateko.

**3.3.3. Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileria-kudeaketa.**

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua administrazio-izaerako erakunde autonomo bat da, Osasun Departamentuari atxikirikoa, eta fundazio-helburutzat hauxe du: “oinarrizko osasunlaguntzako eta laguntza espezializatuko zerbitzu

eta prestazioak araubide deszentralizatuan antolatzea eta kudeatzea”.

O-NOZeko langileria-gastuei eta bertan aplikaturiko langileria-ereduari buruzko **ondorio orokor gisa** zera adierazten dugu:

• O-NOZen zerbitzuan dagoen langileria –7145 pertsona, finkoak gehi aldi baterakoak, batezbeste, 1996an– Foru Komunitateko Administrazioko enplegatu publiko guztien ehuneko 40 da ia. Horrek 1996an ekarri zuen kostua 33.775 milioikoa izan zen, hau da, Nafarroako Gobernuaren langileria-gastuen ehuneko 43.

1992 eta 1996 artean O-NOZeko langileria-gastua ehuneko 32 igo da, langile-kopurua gutxi gora-behera egonkor mantenduz. Aurrekontu kontzeptuei dagokienez, mediku-goardiak dira azpimarratzekoak, ehuneko 176ko igoera pairatu baitute.

• O-NOZek langileria-kudeaketaren arloan funtsean eskumen guztiak dauzka esleituak, Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuan dagoen langileriaren nahitaezko plangintza eta koordinazio orokorretik eratorritakoak –horiek Nafarroako Gobernuari dagozkio– eta prestakuntzakoak –horiek Osasun Departamentuak burutzen dituizan ezik.

Barne egiturari dagokionez, eredu zentralizatu bat definitu da plangintza, koordinazio, finantzaketa, plantilla-taxuketa eta eskaintza publikoaren arlorako, eta deszentralizatua, nomina-kudeaketarako eta aldi bateko kontrataziorako.

Ospitaleek eta gainontzeko laguntza-unitateek ez dute nortasun juridiko propiorik, eta autonomia gutxi daukate euren langileria-beharrizanak eta finantzaketa erabakitzeko.

• O-NOZen zerbitzuan dagoen langileria funtsean tipologia honetakoa da:

a) Foru Komunitateko Administrazioa-Nafarroako Gobernuko eta O-NOZko funtzionario-langileria.

b) Estatutu– eta funtzionario-langileria, Administrazio Zentraletik transferitua.

c) langileria laboral finkoa.

d) Aldi baterako langileria kontratatua, nagusiki administrazio-izaerakoa.

Hainbat gorabeheraren ondoren, O-NOZko langileria-politika langile finkoak funtzionariotzearen alde lerratu da behin betiko; horrela, gaur egun horietako ehuneko 1ek bakarrik dauka izaera laboraleko harreman bat.

Gaur egun arte, 2.500 langile inguru bilakatu da Foru Komunitateko funtzionario, eta horiek potentzialki bilaka litezkeenen ehuneko 75 dira, estatutu-langileria fakultatibotik aukera horretaz ehuneko 47 bakarrik baliatu bada ere.

• O-NOZen plantila organikoa 1996rako lanpostuak betetzeko beharrezkoak diren 6.200 pertsonakoa da, hutsik ehuneko 16 egonik eta hertsiki osasunaren arloko eginkizunetan ehuneko 77k jardunez. Jarraian erantsita doan koadroan horien banaketa agertzen da, jarduketa-eremuen eta estamentuen arabera.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko plantila organikoaren banaketa

| | Fakulttbo. Espezialis. | Fakulttbo. ez-espezial. | Osa. lag. tituluduna | Osa. lag. ez-titulud. | Adminis-trazioa | Zerbitzu Orokorrak | Zuzendariak | Guztira | % guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Bideko Ama Birjina O. | 258 | 2 | 502 | 450 | 128 | 122 | 9 | 1.471 | 24 |
| Nafarroako Ospitalea | 177 | 3 | 482 | 376 | 119 | 233 | 7 | 1.397 | 23 |
| Tuterako Osasun Barrutia | 93 | 56 | 232 | 122 | 79 | 14 | 5 | 601 | 10 |
| Laguntza Esp. Koord. Zuzendariord. | 70 | 0 | 195 | 85 | 99 | 5 | 5 | 459 | 7 |
| Lizarrako Osasun Barrutia | 46 | 51 | 152 | 74 | 51 | 18 | 5 | 397 | 6 |
| Ubarmin Klinika | 19 | 0 | 96 | 81 | 30 | 36 | 4 | 266 | 4 |
| Osasun Publikoaren Institutua | 7 | 59 | 15 | 9 | 49 | 12 | 0 | 151 | 2 |
| Odol Bankua | 6 | 0 | 23 | 6 | 3 | 2 | 0 | 40 | 1 |
| Ikerketa Biomedik. zentroa | 0 | 0 | 2 | 2 | 0 | 0 | 0 | 4 | |
| Laguntza espezializatua | 676 | 171 | 1.699 | 1.205 | 558 | 442 | 35 | 4.786 | 77 |
| Oinarrizko osasun laguntza | 40 | 331 | 374 | 257 | 241 | 80 | 9 | 1.332 | 22 |
| Zerbitzu Zentralak | | | | 4 | 68 | 6 | 4 | 82 | 1 |
| Guztira | 716 | 502 | 2.073 | 1.466 | 867 | 528 | 48 | 6.200 | 100 |

Gainera, O-NOZek egitura-langileriari dagozkion beharrizanak edo, beharrizan iraunkorrei aurre egiteko diren baina plantila organikoak aurreikusten ez dituen postuetarako eginiko aldi baterako kontratazioetatik eratorritako beharrizanak zenbatesten ditu.

Laburtuz, O-NOZen zerbitzuan dagoen langileriari buruzko datuak, 1996koak, hauexek dira:

| | |
|---|---|
| Plantilako langileak | 6.200 |
| Plantilako lanpostu beteak | 5.203 |
| 1996ko batezbesteko plantila (aldi baterakoak gehi finkoak) | 7.145 |

Aurreko datuek agerian uzten dute plantila organikoa ez dagoela guztiz egokitua O-NOZen benetako beharrizanetara, egia bada ere ezin daitekeela ahaz aldibatekotasun-portzentaia jakin bat beti izango dela beharrezko osasun-zerbitzuak emateari dagokionean, zerbitzu horien ezaugarri bereziak direla-eta.

• Langileria hautatzeko prozesu luzeek, horri dagokionean aurkezten diren errekurtso eta erreklamazio ugariekin batera, ez dute giza baliabideen kudeaketa arina errazten, printzipioz.

Horrela, 1994ko eskaintza publikoa une hauetan amaiera-prozesuan aurkitzen da, hautapen-fase ezberdinak egin ondoren; 1996koa ia gaur egun hasia da.

• 1996an, guztira 15.403 aldi baterako kontratu sinatu ziren; alegia, eguneko 2.294 pertsona, batezbeste. Aldibatekotasun hau, funtsean, bai egiturako postuak eta plantilako hutsuneak –ehuneko 25– bai ordezkapenetakoak –ehuneko 63– betetzeko beharrizanaren ondorio da.

Orokorrean, 1996ko guztizko langileria –finkoak gehi aldi baterakoak– eguneko 7.145 pertsonatakoa da, horietatik ehuneko 68 finkoak izanik eta ehuneko 32 aldi baterakoak.

Aldibatekotasun-portzentaia garrantzitsu horiek agerian uzten dute benetako langileria-beharrizan iraunkorrak eta horien lotura juridikoa argitzeko eta zehazteko beharrizana, epe luzean emaniko zerbitzuaren kalitatean eraginik izan ez dezan, besteak beste.

• Aurrekontuei dagokienez, 1. kapituluko zenbatespen orokorra zehaztasun aipagarriz egiten da, hala burutze-fasean nola hasierako aurreikuspenak aldatzekoan, eta ehuneko 100etik hurbil dauden portzentaiak lortzen dira –lehenengo kasuan–, aldaketei dagokienean ehuneko batera eskas iritsiz. Dena den, ospitaleetan zentzu hertsi eta juridikoan aurrekonturik ez egoteak kreditu-eskualdaketak errazten ditu euren artean eta kontzeptu ekonomiko ezberdinen artean.

Aurrekontu-burutzearen erregistro eta jarraipenari dagokionean, bi bide daudela aipatu behar:

a) Alde batetik, datuen eskualdaketa automatikoa nominen programa informatikotik Gobernuaren kontabilitate-sistema orokorrera (KEFS).

b) Aurreko prozesuaren eskastasun eta atzerapenen ondorioz, langileria-arloko erabakiak arrazionalki hartzeko, O-NOZek mekanismo alternatiboak eratu ditu 1. kapituluko aurrekontu-burutzearen jarraipen egoki eta unean unekoa egiteko.

• Hertsiki langileria eta nominari dagokien kudeaketaren barnean, bereziki azpimarratzen dugu honakoa:

a) Aldizka gaurkotzen den eskuliburu edo kudeaketarako prozedura-gida bat egotea.

b) Nomina-unitate ezberdinetan kudeaketa deszentralizatua.

c) Programa informatiko amankomun baten bidez burutzea, horretan aurkitu den hainbat eskastasun gora-behera.

d) Langileria, egitura eta eskumenei buruzko arloan indarreko arauak hainbeste eta hain ezberdinak –bai jatorriari bai datei dagokienez– izateak kudeaketari sortzen dizkion zailtasunak. Horregatik, aztertzekoa litzateke horien testu bateratu bat egitearen komenigarritasuna. Baita ere, langileria atxikitzeko lanpostu-izen edo kategoria gehiegi dagoela –220 inguru– adierazi behar dugu; horregatik, horiek sinpleago egin beharko lirateke.

• Kontuhartzailetzaren eginkizuna, indarreko araudiari jarraituz eta Ganbara honek behin eta berriro eskatzen duen etorkizuneko erregelamenduaren zain, langileriaren arloan aldi baterako kontratazioa a posteriori eta lagin bidez fiskalizatzera mugatzen da.

Kontrol hori ahaztu gabe, O-NOZek eginiko administrazio-ekintzen kopuru, zenbateko eta konplexutasunak eskatzen dute, gure ustez, barne auditoretzako unitate batek esku hartzea, zuzendaritzak ezarritako politikak eta prozedurak bermatzeko.

• O-NOZen aplikatutako ordainketa-sistema administrazio tradizionalekoa da, lanposturako eskaturiko maila oinarrizko erreferentzia izanik, era guztietako osagarri asko ezarriz eta errendimendu edo produktibitateari loturiko ordainsaririk ez egonik, edo, egotekotan, ia ezer ez.

Eredu horrek hausturak eragiten edo errazten ditu bere baitan; O-NOZen kasuan izendapen askeko postuetan gauzatzen dira horiek; horrela, postu horien ordainsariak sistema orokorretik at ezartzen dira. Baita ere, talde zehatzei osagarri berri bat esleitzen zaie –egokitze iragankorreko osagarria-; hainbat osagarri desnaturalizatu egiten dira –produktibitatea– eta transferentziak baino lehenagokoak diren eta printzipioz desagertze-prozesuan egon beharko luketen ordainketa-sistemei loturiko eskubide ekonomiko eta prestaziozkoak mantentzen dira –kupo-sistema–.

• Osasun-langileei 1992z geroztik behin-behineko izaerarekin aplikaturiko karrera profesionalaren eredua, arau-teknika oso akastun bat erabiliz, honetara mugatu da: langile jakin batzuei ordainketa-osagarri bat esleitzera, antzinatasunaren arabera –egokitze iragankorra–, karrera profesional zuzen bat definitzen duten gainontzeko kontzeptuei (erantzukizun-mailak, helburuak, motibazioa, prestakuntza,...) lotu gabe. Gaur egun, behin betiko karrera-eredu bat negoziatzen ari da.

• 1996an lanera ez agertzea ehuneko 11 igo da aurreko ekitaldiarekin alderatuz, 7,35eko indizea lortuz. Horrek esan nahi du ez egotearen batezbestekoa pertsona/eguneko 525 dela. O-NOZen estimazioei jarraituz, lanera ez joatearen zenbaki hauek 1.884 milioi inguruko kostu batean gauzatzen dira.

Azken batean, aurreko iruzkinek agerian uzten dute Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua langileria kudeatzeko bere eredua definitu eta/edo osatu beharrean aurkitzen dela, kontuan izanik honako faktore edo **gomendio** orokor hauek:

*• Eman beharreko zerbitzuak, behar den langileria eta berorren lotura juridikoa eta aurreikusitako kalitate-maila, teknologia berriak sartzearen ondorioekin eta osasun publikoaren barnean kudeaketa-arloan ikusitako joerekin osatuz.*

*• Antolamenduaren kultura aldatzeko prozesua, zentzu honetan: medikuntza eta politikako erabakiei euren ondorio ekonomiko eta langileriari dagozkionak eranstea.*

*• Giza baliabideen kudeaketa estrategiko bat taxutzea, adiera burokratiko-administratibo hutsa gaindituz, oso-osoan hautaketa, ordainketa, sustapena, prestakuntza, disziplina-araubidea eta lan-harremanak ere barruan hartzeko.*

*• Kontratazio-sistema arin bat sortzeko beharra, langileria hautatzeko prozesuak erraztea zein sortzen doazen beharrizanei aldi baterako egokitzea ahalbidetuz.*

*• Ordainketa-sistema bat ezar dadila zeinaren bitartez errendimenduei edo produktibitateari loturiko osagarriek nominaren guztizkoan pisu garrantzitsua izango baitute.*

*• Langileriaren benetako karrera profesional bat taxutu dadila, horretan ordainketa-faktoreez gain lehentasuna helburuak betetzeari, sustapenari eta motibazioari emanez.*

*• Ospitaleek eta gainontzeko laguntza-zentroek langileriaren definizioan, hautaketan, sustapenean eta ordainketan eta haien langileria-gastuen aurrekontuak egin eta finantziazioa antolatzeko garaian protagonismo haundiagoa izatearen egokitasuna, haien kudeaketan, ondorioz, finantz-arriskua hein jakin batzuetan onartuz. Azken bate-*

*an, beren jarduera modu eraginkorrean burutzeko beharrezko duten autonomia ematea haiei.*

**3.3.4. Nafarroako Unibertsitate Publikoa.**

Egindako lanetik ateratzen diren ondorio eta gomendio nagusiak bildu ditugu atal honetan.

Ondoren egiten diren iruzkinak baloratzeko garaian uste dugu kontuan hartu behar dela unibertsitate gazte batez ari garela eta ez zela hutsetik abiatu, orduan Iruñean ziren unibertsitate-ikasketak bereganatu baitzituen. Ondorioz, unibertsitate-eraikuntza eta ekipamenduari, titulazioak abiarazteari eta irakasleak kontratatzeari begiratu zaie bereziki zortzi urte hauetan.

UNIBERTSITATEKO ESPARRU OROKORRARI BURUZ.

1. Espainiako unibertsitateak baditu zehaztasunak, arau-esparrua, irakasleen kontratatzioa, etab., Estatu guztirako amankomunak. Ondorioz, bertuteak eta akatsak unibertsitate-sistemarenak dira, oro har, hein handi batean.

Arautegi horrek ezarri duen kudeaketaren ezaugarri nagusiak dira sistema demokratikoa dela, ia-ia asanbleario bihurtzeraino, aginte-organoen ugariak sortutako “burokrazia” eta unibertsitate-kudeaketa beharrizan aldakorrei egokitzeko malgutasun eskasa.

Gure ustez, unibertsitate-erakundea arautzen duen esparrua ez da egokiena unibertsitate-jardunaren kudeaketa modernoa egiteko, eraginkortasun eta ekonomi hatsapenak gidaritzat hartuko baldin badira, behintzat.

NAFARROKO UNIVERTSITATE PUBLIKOAREN ESPARRUARI BURUZ.

2. NUPek ez du inongo dokumenturik epe luzerako eta erdi eperako bere estrategia planteatzeko. 1993an landu zuen hura Parlamentura bidali zuten. Batzorde arduradunak, ordea, ez zuen bere lana burutu. Gaur egun, NUP beste dokumentu bat ari da lantzen bere plan estrategikoa ezartzeko.

Aurrekoaren ondorioz, ez dira hainbat alderdi definitu, hala nola, irakaskuntzarekin eta ikerketarekin zerikusia duten helburu zehatz eta neurtzeko modukoak, sail bakoitzeko plantila haren berezitasunen arabera taxutzea edo etorkizunerako jarduketa-planak.

Horri gagozkiolarik esan behar da txosten hau egiteko garaian (96-97) lanean aritu izan direla plantilen osaketari eta ikasleen iraupen-planari buruz.

3. Ildo beretik, Foru Komunitateak nahi eta behar duen unibertsitate eredua finkatu gabe dago, hurrengoak kontutan hartuz: azken boladan Estatuan ezarri den unibertsitate kopurua, gorantz doana, jaiotze-tasaren etengabeko beherakada, laster unibertsitate-erakundeari eragingo diona, Europako Batasuneko kide izatearen ondoriozko ikasle-mugikortasunaren eragina eta teknologia berriek irakaskuntzan izan dezaketen eragina, hori guztia sistema ekonomiko aldakorra ahaztu gabe.

Hori dela-eta esan behar da Nafarroako Unibertsitate Publikoaren egungo egituraketak aldaketak izan dituela hasieran aurreikusitako planak zekarren titulazio-mapari buruzkoan.

4. Sailak dira unibertsitae-jardueraren giltzarria, sail-unibertsitatea baita NUP.

Urtero izaten den sail-kopurua hogei da; sailen egiturek eta izenek, hala ere, aldaketak izan dituzte.

5. Gaur eguneko munduan gertatzen diren aldaketa garrantzizkoek eta azkarrek, jaiotze-tasaren beherakadarekin batera, egungo parametroei eutsiz gero, ehuneko 44 gutxitu ditzakete balizko unibertsitarioak hogei urteko epean: titulazio berriak jarri eta irakasleak kontratatzeko jarduketetan kontuz ibili beharra dago, hortaz. Aldi berean, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren ospea areagotzeko jardueraren baten aldeko apustua egin behar dela uste dugu, ikasleak erakarri ahal izateko.

AURREKONTUAK, KOSTUAK ETA FINANTZAKETA.

6. Hona 1989 eta 1995 urteen bitartean datu nagusiek izandako bilakaera:

| | 1989 | 1995 |
|---|---|---|
| Gastuak, guztira (milioitan) | 280 | 4.623 |
| Irakasleen kidegoetako kideak (zenbat) | 32 | 270 |
| Kontrataturiko irakasleak (zenbat) | 47 | 299 |
| Goi mailako ikasleak (zenbat) | 537 | 4.593 |
| Erdi mailako ikasleak (zenbat) | 1.042 | 4.943 |

Unibertsitateak bere aurrekontuen kontura egin dituen inbertsioak kontuan hartuz gero, Nafarroako Gobernuak eraikitako edifizioak alde batera utzita, Nafarroako Aurrekontu Orokorren kontura egin baitziren, 5.379 milioi pezeta jotzen dute, 1995era arte.

Oro har, sailek uste dute NUP baliabideez ondo hornituta dagoela, kontuan hartuz gero existentzia laburra duela oraindik. Unibertsitate kudeaketari buruzko XV. jardunaldietan Espainiako unibertsitateak alderatzeko aurkeztu zuten azterlan baten arabera, ikasleko gastua ratiorik handienetakoa du NUPek.

7. Egungo kontabilitate-sistemekin ezinezko da kostuak titulazioen arabera zorrotz aztertzea.

1995eko aurrekontu-kitapeneko datuekin, ikasleko gastua 520.000 eta 398.000 pezeta bitartean egongo litzateke, aurrekontu-gastu guztiak kontutan hartzen diren, edota ohiko gastuak ken ikerketa-proiektuei atxikiak bakarrik. Inoiz ez ditugu higiezinaren amortizazioak kontuan hartu.

8. Unibertsitate-finantzaketa matrikulen prezioetara, ehuneko 20, gutxi gorabehera, eta Foru Administrazioak ematen duenera mugatzen da, ia-ia. Foru Administrazioak ematen duena guztizko kopurua da, irakaskuntzarako dena eta ikerketarako dena bereizi gabe, eta egungo kontabilitate-sistemek ez digute biderik ematen irakaskuntzaren eta ikerketaren kostuak zeintzuk diren jakiteko.

IRAKASKUNTZARI BURUZ.

9. Sailek, are ezagupen-arloek, duten garrantziak “enpresa” txiki bihurtzen ditu, ia-ia, batzuetan elkarren arteko loturarik gabe, norbere jardueretan interes handiagoarekin unibertsitatearen emaitza orokorrean baino.

Irakasleek ikerketa-lanetan gero eta interes handiagoa dutela ikusten da.

10. Irakaskuntza Antolatzeko Plana (IAP) kontuan hartuz gero ateratzen diren irakas-zamari buruzko datuak ez dira guztiz fidagarriak, plana egiten zen moduagatik eta ikasturtean zehar eguneratzen ez zelako.

Hala ere, hauxe ateratzen da, aztertuz gero:

a) Irakaskuntza-denboraren ehuneko 70a lehen zikloari dedikatzen zaio; ehuneko 20a bigarrenari eta ehuneko 10a doktoretzari.

b) Alde handia dago sailek dituzten irakaszamen artean: batzuetan sailaren irakas-ahalmena gainditu ere egiten da, bestetzuetan irakas-ahalmenaren ehuneko 80a gainditzen ez den bitartean.

c) Sail guztiek eskatu dute langile gehiago irakasleen kidegoetarako.

d) Irakaskuntzaren kontrola egiteko, bertaratzea neurtzeko sistema formala erabiltzen da eta baita ikasleei egindako inkesta ere, non sailak ondorio orokorrak jasotzen dituen eta banakako datuak irakasle bakoitzari baino ez zaizkio jakinarazten. Zailago da kontrola egitea praktiketako klasetan, IAP egiterakoan ez direlako matrikulazioak, eta ondorioz, irakas-beharrizanak ezagutzen.

11. 1996ko bigarren seihilabetekora bitartean 104 irakaslek eskatu du bateratasun baimena. Hona banaketa:

| | |
|---|---|
| Unibertsitateko titularrak | 9 |
| Unibertsitate Eskolako titularrak | 2 |
| Unibertsitateko titular interinoa | 1 |
| Elkartuak | 92 |
| Guztira | 104 |

Egindako laginketatik atera dugu ehuneko 80a administrazio publikoarekin zerikusia duen jarduera nagusia duten irakasleak direla. Ez dugu ezer berezirik aurkitu, azpimarratzeko modukorik.

IKERKETARI BURUZ.

12. Ez dago ikerketa-plan orokorrik, eta ikerketa-askatasuna irakasleen eskubide eta betebehartzat hartzen da.

Langileen ikerketa-jarduera sei urtero ebalua dezake Batzorde Nazional batek, ekoizkortasun-osagarriak (tarteak) emateko.

Hona NUPeko irakasleen tarteak, 1997ko datuen arabera:

| | Tartedun irakasleak | Tarte kopurua |
|---|---|---|
| Unibertsitateko katedradunak | 31 | 57 |
| Unibertsitate eskolako katredadunak | 5 | 6 |
| Unibertsitateko titularrak | 33 | 37 |
| Tarteak, guztira | | 100 |

Unibertsitateak egin dituen ikerketa-proiektuak gogoan hartuz gero, inbertsioak jaso dituela esan behar: 157 milioi pezetako finantzaketa, unibertsitatearen jarduna hasi zenetik.

ERAGINKORTASUNA (EMAITZA AKADEMIKOAK).

13. 95-96 ikasturtean 93.140 matrikulazio izan ziren eta 28.422 ikasgai geratu ziren gainditu gabe, ehuneko 31, alegia. Azterketa egitera aurkeztu ez ziren ikasleek matrikulazio guztien ehuneko 23a egiten dute.

Ikasketen iraupenari buruz, guztiz kontrolatu diren 2.221 tituluetarik, erabateko ondorioak ateratzeko gutxi badira ere, ehuneko 59 atera dira ikasketa-planetan agertzen diren urteetan.

Hala ere, aipatu behar da matrikula egin duten ikasleen araberako balizko titulazioak, ateratakoak baino hiru edo lau aldiz gehiago izan zitezkeela.

Ondorioz, beraz, horra gomendioak:

*1. Nafarroako gizarteak, haren ordezkariek definitu behar dute gure komunitaterako nahi duten unibertsitate-eredua eta, ondorioz, haren jardueraren alde nagusiak planifikatu epe luze eta ertainerako: titulazio-mapa eta titulazio berrietarako irizpideak; unibertsitatearen finantzaketa; ikerketa; irakaskuntza eta ikerketa ebaluatzeko irizpideak; unibertsitatearen antolamendua, plantilak, eta abar.*

*Plangintza hori urtero zehaztu beharko litzateke aurrekontua eginez, eta aurrekontuak bere baitan hartu beharko lituzke unibertsitate-jardunaren helburu eta adierazleak, helburu orokorrak epe ertainean erdiesteko bide emango dutenak.*

*Estatuan, arrazoiak guztiz bestelakoak badira ere, neurriak ezarri dira aipatu helburuak erdiesteko. Horien artean aipa ditzakegu, kontrako muturretan daudelako, Kanarietako unibertsitateek bere Administrazioarekin izenpetu kontratu-programak eta Kataluniako Unibertsitate Politeknikoaren Plan Estrategikoa.*

*2. Unibertsitate-eredua oso argi baldin badago, orobat unibertsitatearen jardunaren eraginkortasuna eta ekonomia gizarteari bermatzeko antolamendu beharrezkoa, litekeena da egungo arau-esparruaren garrantzizko aldaketa behar izatea. Izan ere, unibertsitate-komunitateko ia kide guztiek kritikatzen dute eta behin baino gehiagotan aldatzeko zorian izan bada ere, azkenean ez da aldaketarik gertatu, hainbat arrazoirengatik.*

*3. Informazio–, kontabilitate–, aurrekontu– eta informatika-sistemen garapena ahalik eta gehien bultzatzea, halako moldez non informazio guztia eskura ahal izango dugun, irakaskuntza eta ikerketaren kostuei buruz, benetako irakas-zamari buruz, ondorio akademikoei buruz, ekipamenduen erabilerari buruz, eta abar..., beharrezkoak baitira unibertsitate-jardueraren eremu bakoitzean kudeketa egokia erdiesteko eta erabakiak azkar eta eraginkortasunez hartu ahal izateko.*

*4. Langile guztiei helaraztea Unibertsitatea entitate bakarra dela bere osotasunean, eta haren interes orokorrak kideen interes partikularren gainetik egon behar direla.*

*5. Irakaskuntza eta ikerketa ebaluatzeko plan sistematikoa ezartzea. Azken horri dagokionean, egoki deritzogu NUPeko ikerketaren plan orokorra ezartzeari, Foru Komunitatearen planaren baitan sartzeko, hala bada.*

*Halako plan bat izateak ez du esan nahi NUPek kanpo geratu behar duenik Unibertsitateen Kontseiluak edo Estatuko edo Europako beste entitateren batzuek egin ditzaketen borondatezko ebaluazioetarik.*

*6. Beste finantza-baliabide batzuk lortzeko ekintzak sustatu, ikerketa-kontratuen bitartez, edo beste estatu batzuetan erabiltzen diren moduen bitartez, hots, fundazioen edo ikasle ohien dohaintzak eta abar.*

*7. Jaoitze-tasaren gutxitzeak eta gizartearen beharrizan aldakorrek unibertsitatearen geroan izan dezaketen eragina aztertu eta egoera horri egokitzeko politika ezartzea. Politika horren barruan egin daitezkeen jarduketetako bat kontsideratu dugu iraupen jakineko titulazio berekiak ezartzea.*

**3.3.5. Minusbaliatuen programa.**

Programei buruzko lan-mota honen azken helburua hauxe da: horietan aurreikusten diren ekintza ezberdinen efikazia eta efizientziari buruzko iritzia ematea, erdietsiriko helburuak eta horien kostuak lortuz. Gainera, analisi horiek beste erkidego batzuetako kostuekin konparatuz osatzen dira, gure erkidegoan erabakitako soluzioen efikazia– eta efizientzia-mailari buruzko ideia bat eduki ahal izateko.

Programa honen egungo garapen-egoerak eta beste erkidegoetatik homogeneoak eta konparagarriak diren datuak lortzeko zailtasunak helburu hori lortzea eragozten digu; dena den, jarraian azaltzen ditugu akats nagusiak; horiek konponduz etorkizunean gardentasun haundiagoa lortu ahal izango litzateke kudeaketan, eta efikazia eta efizientzia minusbaliatuen arlo honetako problemen irtenbidean.

Programako aurkezpena eta egitura osatu gabe dago gure ustez, honako arrazoi hauek direla-eta:

• Ezarritako helburuek egin beharreko jarduerarekin lotura badute ere, jarduera hori oso modu orokorrean definitzen dute; ez daude zenbatetsita, ezta aurrekontu-kredituarekin erlazionatuta ere.

• Gehitzen diren adierazleak ez daude espreski lotuta helburuekin, eta administrazio-kudeaketa zenbatestera mugatzen dira.

• Helburuak burutu eta betetzeari dagokionez, ez da jarraipen berezirik egiten, eta ez da jardueren eta horien kostuaren urteroko oroit-idazkirik egiten.

• Langileria– eta inbertsio-arloan egozgarri zaizkion gastu guztiak ez ditu jasotzen programak.

Gizarte-izaerako helburuen lorpen-maila neurtzearen zailtasunak aitortzen baditugu ere, hauxe gomendatzen dugu:

*Institutuak esfortzu bat egitea epe ertain eta luzean programari helburu zehatzak emateko, programako ekintzen efikazia– eta efizientzia-maila zehaztu ahal izateko egoki diren adierazleak sortuz. Programaren analisia urteroko oroit-idazki batean agertu beharko da, egindako lanaren helburuak eta kostuak zerrendatuz.*

Gainera, komenigarri deritzogu programaren helburuen artean minusbaliatuen hainbat problemaren piskanakako konponbidea jasotzeari; gizarteak horientzat soluzioa eskatzen du. Hori delaeta, honakoa gomendatzen dugu:

*Programaren helburuen artean hainbat kuestioren soluzioa sartzea; adibidez:*

*• Koordinazio haundiagoa Nafarroako Osasun Zerbitzuaren eta Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren artean, Osasuneko paziente izatetik minusbaliatutzat hartuak izatera –eta, beraz, minusbaliatuen programako zerbitzuen berehalako laguntza behar izatera– pasatzen diren pertsona guztiei argibideak, aholkuak eta laguntza etengabe emateko.*

*• Arkitektura-oztopoen ezabaketa modu tinkoan abiaraztea, oztopo fisiko eta zentzumenezkoei buruzko Foru Legea aplikatuz, bide publikoetan eta eraikin publiko eta pribatuetan minusbaliatuen mugikortasuna errazteko.*

*• Minusbaliatuen gizarteratzeari laguntza haundiagoa ematea, langabezia-tasak populazio normalarenak baino hiru aldiz haundiagoak dituen multzo bati lan-merkatuan sar ahal izan dadin lagunduz.*

Laguntza, beka, pentsio eta diruz lagunduriko hitzarturiko egonaldietan gauzaturiko programako ekintzen analisian zehar, ikusi ahal izan dugu Institutuak onuradunaren errentaren eta ondasunen gain, hala nola bere famili-inguruabarren gain –horiek dira minusbaliatuak bere zainketa egokirako behar dituen laguntza publikoak zehazteko oinarri gisa hartu behar direnak– kontrol ahula burutzen duela.

*Programako ekintzen arauzko garapena egin dadila gomendatzen dugu, Institutuaren kontrol-eginkizunari bultzada emanez, laguntza publiko guztiak benetan behar dituzten onuradunei ematen zaizkiela ziurtatzeko.*

Azkenik, hauxe adierazi nahi genuke: langileriaren espezializazioak epe ertainean programako ekintzen efikazia eta efizientzian eragina izango duela. Langileriak behar adinako egonkortasuna izan behar du, hainbat funtsezko postutan, behintzat.

**4. GEHIGARRIA. KONTRATAZIO PUBLIKOAREN AZTERKETA BEREZIA.**

Arlo honetan egindako lana hurrengo gai hauetan gauzatu da:

• Batzordeari departamentuek igorritako kontratuetatik ateratako datu eta ondorio nagusien analisia.

• 1996ko ekitaldian eginiko kontratazioari buruz ( 2 milioi pezeta baino gehiagoko kontratuak) zerbitzu publikoak kudeatzen dituzten enpresa publikoei Ganbara honek eginiko zirkularizazioaren administrazio-kontratazioko analisia.

• Gaiari buruzko txosten eta lan zehatzak; bereziki, Iparraldeko autobiaren azken likidazioari buruzkoa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren zentroetako arropa alokatu, garbitu eta lisatzeko kontratuari buruzko txostena eta Tuterako Osasun-barrutiaren mantenimendu orokorrerako kontratuari buruzko txostena.

Hona hemen, lortutako ondorio nagusiak:

4.1. KONTRATAZIO BATZORDEAREN URTEKO OROIT-IDAZKIA.

Kontratazio Administratiboko Batzordeak igorritako informaziotik abiatuz, ekitaldi honetan oroit-idazkirik egin ez duenez gero, datu eta ondorio multzo bat atera dugu, eta horien artean hurrengoak azpimarratuko ditugu:

**1.** Departamentuek Batzordera informazioa igortzeari buruz. Ganbara honek behin eta berriro salatzen dituenetako bi punturi heldu behar diogu berriz:

• Departamentuek oro har atzerapen handiaz igortzen dute informazioa.

• Ia ez da informazioarik igortzen kontratuen aldaketei buruz.

Gorabehera hauek eragotzi egiten dute Batzordeari eratxikitako eginkizunak erabat betetzea nahiz Foru Komunitateko Administrazioko kontratuen errealitateari buruzko informazio fidagarria edukitzea.

Hortaz, eta aurreko Txostenetan bezala,

*Gure gomendioa da Nafarroako Gobernuko departamentuek Kontratazio Administratiboko Batzordearekin dituzten betebeharrak bete ditzaten; bereziki, ezarritako epeen barruan egitea*

*igorpena eta kontratu guztiek izandako aldaketa guztien berri ematea.*

Horrek ahalbidetuko luke kontratuen esleipena, bajak eta exekuzioa konparatzea.

*Gure gomendioa da Batzordeari behin betiko ematea hala giza baliabideak nola materialak eta eskumenezkoak, bere eraginkortasuna hobetzen eta Legeak ezartzen dizkion eginkizunak betetzen ahalbidetuko diotenak.*

**2.–** 1996an, guztira 1.234 kontratu igorri dira Kontratazio Batzordera, esleituriko zenbatekoa 19.904 pezetakoa izanik. 1995 urteari dagokionez, zenbateko horrek ehuneko hogeita hiru egin du gorantz.

Beste ekitaldietan buruturiko jarduerarekin konparatuz, ondoko koadroan agertzen da, indize-zenbakitan, esleituriko zenbatekoen (milioika pezetatan) bilakaera, 1992tik, aurtengoa oinarri-ekitalditzat edo 100 gisa hartuz.

| Ekitaldia | Zenbatekoa | Indize zk. |
|---|---|---|
| 1992 | 12.466 | 100 |
| 1993 | 23.005 | 184 |
| 1994 | 21.044 | 168 |
| 1995 | 16.128 | 129 |
| 1996 | 19.904 | 159 |

1996an eginiko kontratuen objektua honako koadro honetan azaltzen da:

| Kontratua | Zenbakia | Ehu-nekoa | Zenbat (milioitan) | Ehu-nekoa |
|---|---|---|---|---|
| Obrak | 319 | 26 | 12.708 | 64 |
| Hornidurak | 515 | 42 | 3.432 | 17 |
| Laguntza teknikoa | 389 | 32 | 3.753 | 19 |
| Bestelakoak | 11 | 1 | 13 | – |
| Guztira | 1.234 | 100 | 19.904 | 100 |

Datu hauetatik deigarriena, aurreko ekitaldian bezalaxe, honakoa da: horniduren gainekoa Administrazioak gehien eginiko kontratu-mota izatea –ehuneko berrogeita bia–, nahiz eta, zenbatekoari dagokionean, obren gainekoa izan esleituriko zenbatekoaren ehuneko 64 azaltzen duena.

**3.** Esleipen-moduari dagokionez, 1996ko kontratuak jarraian agertzen den koadroak adierazi bezala egin dira:

| Adjudikazioa | Zenbakia | Ehu-nekoa | Zenbat (milioitan) | Ehu-nekoa | Zenbat batez/beste |
|---|---|---|---|---|---|
| Enkantea | 78 | 6 | 1.435 | 7 | 18 |
| Lehiaketa | 677 | 55 | 16.761 | 84 | 25 |
| Zuzeneko esleipena | 479 | 39 | 1.708 | 9 | 4 |
| Guztira | 1.234 | 100 | 19.904 | 100 | |

Beraz, lehiaketa-sistema Administrazioak gehien erabilitako prozedura da, eta esleituriko zenbatekoaren hiru laurden azaltzen ditu, funtsean.

Azkenik, ondoko koadroan erakusten dugu eginiko kontratuen portzentaiaren bilakaera 1992tik, haien esleipen-moduaren arabera.

| Ekitaldia | Enkantea | Lehiaketa | Zuzeneko esleipena |
|---|---|---|---|
| 1992 | 0,5 | 15 | 84,5 |
| 1993 | 0,3 | 21 | 78,3 |
| 1994 | 2 | 33 | 65 |
| 1995 | 5 | 50 | 45 |
| 1996 | 6 | 55 | 39 |

Ikus daitekeen bezala, 1995ean hausten da lehenengo aldiz esleipen zuzenaren nagusigoa Administrazioaren esleipen-sistema gisa, horren ordez lehiaketa-sistema gailenduz. 1996an sistema horren erabilpena hedatu egin da; esleipen zuzenak, ordea, beherantz egin du.

**4.** Nafarroako Gobernuaren Departamentuei begiratuz, honako puntu hauek azpimarratzen ditugu:

• Herrilan Departamentua da obra-kontratuan zenbatekorik haundiena esleitu duena, izaera honetako kontratuen kopururik haundiena Hezkuntzakoari badagokio ere.

• Hornidurei eta laguntza teknikoari dagokienez, Osasun Departamentuak du horietako bakoitzean jarduera-kopururik haundiena.

• Enkanteari dagokionean, Nekazaritza eta Hezkuntza dira hori gehien erabiltzen dutenak, erabiltzen ez duten lau departamentu badaudela adierazi behar bada ere.

• Lehiaketa batez ere Osasunean aplikatzen da –guztirakoaren ehuneko 45–, kopuruari dagokionez esleituriko zenbatekorik haundiena Herrilanei baldin badagokie ere –ehuneko 48–.

• Prozedura negoziatua, kopuruari eta zenbatekoari dagokienez, funtsean Hezkuntzan eta Osasunean biltzen da. Departamentuka, Industria eta Gizarte Ongizatea dira oraindik ere gehien

erabiltzen dutenak (haien guztirakoaren %61 eta %73rekin, hurrenez hurren).

**5.** Batzordeak dauzkan datuetan oinarrituz, ezin dugu azterlan bat egin aurrekontuetan agerturikoaren, esleiturikoaren eta benetan exekuturikoaren artean dauden aldeei buruz, departamentuek ez baitiote Batzordeari ematen exekuzioan gertaturiko gorabeheren berri.

Dena den, aurreko hainbat txostenetan Ganbara honek buruturiko analisiarekin jarraituz, 210 obra-kontratu esleitzean izandako bajen azterlan bat egin da, horren emaitzak honako koadro honetan agertuz:

| Baja, % | Zenbat kontratu |
|---|---|
| 0 | 68 |
| 0-10 | 45 |
| 10-20 | 24 |
| 20-30 | 25 |
| 30-40 | 29 |
| 40-50 | 8 |
| Total | 210 |

Laburbilduz, batezbesteko baja %17koa dela ikusten da — 1995ean, %24koa izan zen—, eta kontratuen %17an baja hori %30 baino haundiagoa izan zela aipatu behar da.

Ondoko koadroan hauxe agertzen da: eginiko kontratuetan aurkituriko baja-portzentaia, 1995 eta 1996ren artean konparatuta.

| | Kontratuak, ehuneko | |
|---|---|---|
| Baja, % | 1995 | 1996 |
| 0 | 16 | 33 |
| 0-20 | 52 | 33 |
| 20-40 | 29 | 26 |
| +40 | 3 | 4 |
| Guztira | 100 | 100 |

0-20 tarteko baja-portzentaiaren jaitsiera nabarmentzen da; 0 bajako kontratuak gehitu egiten dira eta gainiontzeko tarteetan halako egonkortasun bat mantentzen da.

## 4.2. ZIRKULARIZAZIOA, ENPRESA PUBLIKOAK.

Enpresa publikoek eginiko kontratuei dagokienez, informazioa eskatu diegu zerbitzu publikoak kudeatzen dituztenei; alegia, honako hauei: ITG Agrícola, ITG Ganadero, S.A.,ITG Porcino S.A., ITG Vacuno S.A., Riegos de Navarra, S.A., Gestión Ambiental-Riegos, Planetario de Pamplona, S.A., Tracasa, Gedesa, Vinsa, Nilsa, Nasersa, Terminal de Transportes Comarca de Pamplona, S.A. eta Obras Públicas de Navarra, S.A.

Jarraian, bi milioi pezeta baino gehiagoko kontratuei buruz lorturiko emaitzen berri emango dugu.

Zerbitzu publikoak kudeatzen dituzten enpresa publikoek 1996an zehar bi milioi pezeta baino gehiagoko 304 kontratazio egin dituzte guztira, 5.872 milioiko zenbatekoarekin.

Kontratuen objektua honako koadro honetan azaltzen da:

Enpresa publikoak. 2 milioitik gorako kontratuak, kontratu motaren arabera.

| Kontratu mota | Zenbat | Ehunekoa | Milioitan pta. | Ehunekoa |
|---|---|---|---|---|
| Obra | 152 | 50 | 4.893 | 83 |
| Hornidura | 77 | 25 | 472 | 8 |
| Zerbitzu ematea | 75 | 25 | 507 | 9 |
| Guztira | 304 | 100 | 5.872 | 100 |

Enpresa horiek ez dute kontratuei buruzko Legean ezarritako kontratazio-prozedurak jarraitzeko obligaziorik; haien kontratuetan publizitate– eta konkurrentzia-printzipioak aplikatzeko obligazioa, ordea, bai. Kontratuak koadroan azaltzen den bezala egin dira:

Enpresa publikoak.
2 milioitik gorako kontratuak.

| Esleipen mota | Zenbat | Ehunekoa | Milioitan pta. | Ehunekoa |
|---|---|---|---|---|
| Lehiaketa bidez | 104 | | 731 | |
| Egunkarietan iragarkia jarrita | 125 | | 4.395 | |
| Egunkarietan eta NAOn iragarkiak jarrita | 5 | | 382 | |
| Guztira, lehiaketa bidez | 234 | 77 | 5.508 | 94 |
| Lehiaketarik gabe | 70 | 23 | 364 | 6 |
| Guztira | 304 | 100 | 5.872 | 100 |

## 4.3. KONTRATAZIO-ARLOKO TXOSTEN ZEHATZAK.

Jarraian agertzen ditugu kontratazio-arloan Ganbara honek eginiko berariazko lanen ondorioak. Hiru txostenak 1997an argitaratu dira, maiatzaren 27koa den eta 38. zenbakia duen NPAOn.

**4.3.1. Iparraldeko Autobiaren amaiera-likidazioa.**

Laburbilduz, teknikoki konplexua den obra bat da, hasierako urteetan kontrako testuinguru batean egin zena; horrek gainkostu bat eragin du segurtasun-arloan, eta, zeharka, gainontzeko arloetan ere bai.

Dena den, baldintza berezi horiek ez dituzte behar bezala justifikatzen gertaturiko alde haundiak: obraren prezioan, esleipenaren %58koa, eta, epeari dagokionez, bikoiztu egiten da hasiera batean aurreikusitakoarekiko.

Obrek jasandako aldaketa ugariak proiektuetako hainbat akats eta aurreikuspen-gabeziari egotzi behar zaizkio; proiektu horiek administrazioak ez zituen behar bezala ikuskatu, eta indarreko legediak aurreikusitako ikerketa– eta zuzenketa-neurriak ere ez ziren hartu.

Eginiko aldaketetako asko ez ziren onetsiak izan behar zutenean, eta obrak aurrekontu-kontsignaziorik eduki gabe egin ziren; horrek beharrezko egin du obren amaieran egoera araupean jartzen saiatzea, Gobernuaren Erabakien bidez prezio– eta epe-aldaketak a posteriori onetsiz, errealitateari egokitu ahal izateko, eta kopuru haundien ordainketa ekitaldi batzuetatik besteetara pasatuz.

Administrazioak, baliabide berekiak falta zitzaizkiola argudiatuz, obren zuzendaritza eta laguntza teknikoa kanpoan kontratatu zituen, obren zuzendaritza eta kontrol hobea lortzeko.

Zerbitzu hauek, hala ere, 1.545 milioi kostatu dira, eta, esaten genuen bezala, obrek desbiderapen haundiak pairatu dituzte, hala prezioan nola epean, eta, paradoxikoki, horietatik zuzenean onura atera dutenak zerbitzu horien enpresa esleipen-hartzaileak dira, haien kontratuak gorantz joz aldatu baitira.

Administrazioak ez ditu erabili indarreko legediak aurreikusten dituen neurriak obren edo obra horien laguntza tekniko eta zuzendaritzaren esleipen-hartzaileen erantzukizuna galdatzeko.

Bestalde, txostena kaleratzerakoan ebazteke daude enpresa kontratisten hainbat erreklamazio, 2.890 milioiko zenbatekoa osatzen dutenak eta etorkizunean autobiaren kostua gehitu lezaketenak.

Gaur egun, bermealdia bukatu ondoren, bakarrik I. faseko obren behin betiko harrera egin dela daukagu ziurtatua. Bestalde, azken hilabeteetan problema teknikoak ari dira sortzen tunelekin; horien ondorioz, material-erorketak gertatzen ari dira, eta horien kausak eta konponketa-kostua ari da aztertzen Herrilan Departamentua, obraren kontratistei egozgarri zaizkien erabakitzeko.

Azkenik, Ganbara honek azpimarratu nahi du plangintza, proiektua eta proiektuaren ikuskapena modu egokian egiteak duen garrantzia ondoren obrak aurreikusitako prezioan eta epean egingo direla ziurtatzeko.

**4.3.2. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren (O-NOZ) arropa alokatu, garbitu eta lisatzeko kontratua.**

Egindako lanetik, honako arrazoiketa eta ondorio hauek nabarmenduko ditugu:

**1.–** O-NOZek bere zentroetako arropa alokatu, garbitu eta lisatzeko kontratua esleitzeko eginiko kontratazio-prozesua izaera honetako prestazioak eranetzen dituen araudiari egokitua dago.

**2.–** O-NOZak kontratua amaiarazteko duen nahia bideratzen da kontratua eraentzen duten administrazio-klausulen Plegua hertsiki jarraituz, alde batera utziz organoaren eskumen-falta hori egiteko. Litekeena da, baina, bidezkotzat edo egokitzat ez jotzea 1996ko abuztuaren 26an sinaturiko kontratu bat –urte horretako irailaren 1ean indarrean sartuz– ekitaldi bereko irailaren 30ean salatzea, espedientean horretarako behar adinako motibaziorik agertu gabe, gainera.

**3.–** Kontratazio-prozesuak iraun duen denbora luzea azpimarratzen dugu, hura formalki 1995eko irailaren 18an hasi baitzen, eta haren esleipena 1996ko abuztuaren 26a arte ez zen bukatu. Hau da, epea ia urtebetekoa izan da. Hona zer ekarri duen epe luze horrek:

• Prozesuan halako ziurgabetasun juridiko bat, nagusiki eskaintza-egileetako bik aurkezturiko errekurtso, kexu eta alegazioek agerian jartzen dutena.

• Emandako zerbitzuaren kalitatean eragina, aurreko esleipen-hartzaileari bere prestazioa aldi baterako luzatzen baitzaio, baina horrekin jarraitzeko aukerarik izan gabe.

• Prozesu guztiaren jarraipena egiteko giza baliabide publiko asko erabiltzea.

**4.–** Komenigarria da Administrazio Publikoari gogoraraztea kontratazio-prozedura guztietan bere jarduketa guztiek, dokumentuetan ezezik, oinarri juridiko eta tekniko sendoetan ere erroturik behar dutela egon. Hori guztia, izaera eta bolumen honetako kontratu batek bai merkatuan dauden enpresetan bai haien eta Administrazioaren artean sortzen dituen tirabirak eta harreman zailak alde batera utzirik.

**5.–** Azkenik, Kontuen Ganbara honek eskatzen du O-NOZko eta gainontzeko Administrazio Publikoko zerbitzuek hausnarketa bat egin dezatela honakoei buruz:

• Azterturiko zerbitzu-kontrataziorako prozesuak harturiko epe luzearen justifikazioa eta arrazoizkotasuna.

• Izaera hori eta laguntza-prestazioan halako garrantzia dituen zerbitzu bat –ospitale nagusietako arropari dagokionean eragina du– hornitzaile bakar batengan kontzentratuta egotearen egokitasuna.

• Esleipen-hartzaile berriak aurrekoari arropa berriro erosteko duen obligazioa mantentzea, azken aldian nabaritu diren –eta oraindik ebatzi ez diren– problemen zati haundi batek eragiketa horretan baitu jatorria.

• Esleipen-hartzailearen inbertsio haundi bat eskatzen duten kontratuetan, 4 prestazio-urteko muga. Denbora-epea luzatzea komenigarritzat jotzekotan, kontratuei buruzko foru-lege berrian espreski sartu ahal izango litzateke.

**4.3.3. Tuterako osasun-barrutiaren mantenimendu orokorra.**

Jarraian, eginiko lanetik eratorritako ondorio orokorrak azaltzen ditugu:

**1.–** Ondorio orokor gisa, baiezta dezakegu kontratuaren exekuzioa, orokorrean, bai kontratuan bai kontraprestazioa arautzen duten plegu administratibo eta teknikoetan ezarritako klausula eta betekizunei egokitzen zaiela.

**2.–** Esleipen-hartzaileak eginiko lan guztiak dagokien fakturaren bitartez ziurtaturik daude, eta faktura horrek beti eramaten du osasun-barrutiko mantenimendu-arduradunaren oniritzia. Kontratuari dagozkion fakturetan, gainera, aplikaturiko prezioak kontratua eraentzen duen araudian ezarririkoekin bat datozela egiaztatu da.

**3.–** Mantenimenduko jarduera normaletik at bururutiko lanen fakturak esleipen-hartzailearen proposamen ekonomikoan ezarritako prezioekin bat datoz.

**4.–** Hala eta guztiz ere, Ganbara honek pentsatzen du mantenimendu-arloan barne kontrola sendotu egin beharko litzatekeela, dokumentazioan espreski agertuz kasuan kasuko aginduak eta eginiko lanaren berriemate-agiriak, lanaren egokitasuna erabat bermatzeko.

Neurri horiek aplikatzeak ziur aski administrazio-lana gehitzea ekarriko luke, jarraipen eta kontrol egoki bat egiteko.

**5. ERANSKINA. ERAKUNDE AUTONOMOAK.**

Txosten honetako I idazatian aipaturikoarekin bat, Foru Komunitateko Administrazioak, 1996an, administrazio-izaerako honako Erakunde Autonomo hauek dauzka (hemendik aurrera, EEAA):

• Nafarroako Administrazio Publikoen Institutua (NAPI)

• Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua (O-NOZ)

• Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua (NGOI)

• Nafarroako Lan Osasunaren Institutua (NLOI)

• Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutua (NKGI)

• Nafarroako Mahastilan eta Enologi Zentroa (NMEZ)

• Nafarroako Emakumearen Institutua (NEI)

Erakunde autonomo horien gastu eta dirusarrerei dagozkien aurrekontu-lerroak Nafarroako Gobernuko aurrekontu-exekuzioan bertan sarturik daude.

1996an, gure gomendioei jarraituz, Gobernuak Kontu Orokorretan aurreko EEAA-en aurrekontu-likidazio banakatua sartu du.

1994an ekin zitzaion ildoari jarraituz, ondoren 1996ko ekitaldiko aurrekontu-exekuzioaren azterketa labur bat egingo dugu (dagozkion likidazioak 4. eranskinean jasota daude).

5.1. 1996KO AURREKONTUAREN BETETZE-MAILA.

Azpimarragarriak:

• 1996an, EEAAen gastu eta dirusarrera guztiak hurrengo koadroan islatu dira (milioitan):

| EA | Gastuak | Dirusa-rrerak | Finantza beharrak |
|---|---|---|---|
| NAPI | 340 | 37 | (303) |
| O-NOZ | 59.749 | 1.169 | (58.580) |
| NLOI | 427 | 0 | (427) |
| NMEZ | 129 | 18 | (111) |
| NGOI | 12.940 | 1.053 | (11.887) |
| NKGI | 2.291 | 374 | (1.917) |
| NEI | 163 | 7 | (156) |
| Guztira | 76.039 | 2.658 | (73.381) |

1996an EEAAen gastuek guztira 76.039 milioi jotzen dute eta horrek Nafarroako Gobernuaren gastuen aurrekontu osoaren ehuneko 30 egiten du. Erakundeka, O-NOZ eta NGOI nabarmentzen dira, horiek erakundeen gastuen %96 biltzen baitute.

Dirusarrerek 2.658 milioi jotzen dute, hau da, Nafarroako Gobernuaren dirusarrera guztien %1. Erakundeka, O-NOZak eta NGOIk ehuneko 84 biltzen dute.

Gastuak dirusarreren bidez ordaintzeko gaitasun maila batezbeste ehuneko 3,5 da.

EEAAen 1996ko finantziazio-beharrizanak guztira 73.381 milioi jotzen du, eta O-NOZek horren %80 eta NGOIk %16 hartzen dute.

• EEAAek egindako gastuaren izaera eta Nafarroako Gobernuaren kapitulu osoan duen garrantzia hurrengo koadro honetan azaltzen da:

| Gastua | Zenbatekoa | % | Naf. Gob. Aurrekont. Kapitulu. % |
|---|---|---|---|
| Langileria | 36.296 | 48 | 46 |
| Ohiko ondasunak | 14.630 | 19 | 65 |
| Ohiko transferentziak | 22.000 | 29 | 27 |
| Inbertsioak | 2.193 | 3 | 9 |
| Kapital transferentziak | 920 | 1 | 3 |
| Guztira | 76.039 | 100 | 30 |

EEAAen gastuen %48 ohikoak dira. Kapital gastuak ehuneko 3a dira bakarrik, eta funtsean inbertsioei dagozkie.

Gobernuaren aurrekontu osoaren kapituluen gainean duten garrantzi erlatiboaren arloan, langileria eta ohiko ondasun eta zerbitzukoak nabarmentzen dira, kapituluotan gastatu denaren erdia inguru biltzen baitute.

• Dirusarrerei buruz, hurrengo koadroan islatzen da horien banaketa kapituluka (milioitan):

| Dirusarrerak | Zenbatekoa | % | Naf. Gob. Aurrekont. Kapitulu. % |
|---|---|---|---|
| Tasak eta besteak | 2.065 | 78 | 22 |
| Ohiko transferentziak | 481 | 18 | 2 |
| Ondarekoak | 1 | 0 | 0 |
| Kapital transferentziak | 111 | 4 | 1 |
| Guztira | 2..658 | 100 | 1 |

Antzematen da ohiko sarreren ia erabateko nagusitasuna, kapitalekoek ehuneko 4 eskas besterik ez baitute egiten.

Aurrekontu osoaren gainean pisu espezifiko piska bat duten kapitulu bakarrak tasak eta ohiko transferentziak dira, dagozkien kapituluen gainean %22 eta %2 egiten baitute.

5.2. 1995-1996 AURREKONTUAK ALDERATZEA.

15. koadroan alderatzen da EEAAen 1995ko eta 1996ko aurrekontu-kitapena.

Erakunde Autonomoak
1995-1996 alderaketa

15. koadroa

| | GASTUAK | | | DIRUSARRERAK | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| EA | 1995 | 1996 | % | 1995 | 1996 | % |
| NAPI | 352 | 340 | (3) | 28 | 37 | 32 |
| O-NOZ | 56.399 | 59.749 | 6 | 1.114 | 1.169 | 5 |
| NLOI | 425 | 427 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| NMEZ | 115 | 129 | 12 | 9 | 18 | 100 |
| NGOI | 12.100 | 12.940 | 7 | 834 | 1.053 | 26 |
| NKGI | 1.255 | 2.291 | 83 | 144 | 374 | 160 |
| NEI | 90 | 163 | 81 | 7 | 7 | 0 |
| Guztira | 70.736 | 76.039 | 7 | 2.136 | 2.658 | 24 |

Hori aztertuz, honakoa nabarmentzen dugu:

• EEAAen gastu guztien multzoak ehuneko 7ko gehikuntza bat pairatzen duela ikusten da. Horretan eragiten dutenak nagusiki NKGI eta NEI dira (ehuneko 83ko eta 81eko gehikuntza, hurrenez hurren).

Gastuaren izaerari bagagozkio, hazkunderik handiena duten kapituluak hauek dira: ohiko transferentziena, gutxi gorabehera 2.000 milioiko (ehuneko 10) gehikuntzarekin, eta kapital transferentziena, aurreko urtearekiko ehuneko 384ko gehikuntza pairatzen duena (zenbaki absolutuetan 730 milioiko gehikuntza izan arren).

• Dirusarrerei dagokienez, gehikuntza nabarmena ere ageri da, hala osotasunari dagokionean (ehuneko 24ko gehikuntza) nola EEAAetako bakoitzean, bereziki NKGIn eta NMEZen (ehuneko 160 eta 100eko gehikuntzak, hurrenez hurren).

Izaerari bagagozkio, tasen eta bestelako dirusarreren kapitulua da gehikuntzarik haundiena duena (422 milioi, ehuneko 26 1995ekiko). Baita kapital transferentziena ere (92 milioi, ehuneko 484 1995ekiko).

• Finantza beharrizanak ehuneko 7 gehitu dira, 4.781 milioiko gehikuntza, beraz. EEAAka, defizit haundiago hau justifikatzen da O-NOZak eta NKGIk jasandakoa kontuan edukiz (horien defizitak gehitzen dira, hurrenez hurren, 3.295 eta 806 milioi pezetatan).

**Ondorio gisa,** 1994ko eta 1995eko Kontuei buruzko txostenetan genioen ildotik, aurreko zifren garrantzi kuantitatiboak gogoeta egiteko aldia irekitzea eskatzen du, honako puntu hauei buruz:

a) Zenbait zerbitzu erakunde autonomoen bitartez emateari buruz, batik bat oinarrizko alorretan (langileak, kontratazioa) behar duten autonomia ez dutenean eta erabilitako baliabideak beti ere bereziki esanguratsuak ez direnean.

b) Diru-sarrerak gastuak baino gehiago hazi badira ere, horrek defizitari, bai osotasunarenari bai EEAAetako ia bakoitzarenari ere, haztea ez dio eragotzi. Beraz, komenigarria da gastua geldiarazteko eta horren arrazionaltasuna lortzeko aurrekontu-politika bat diseinatzea eta ezartzea, erakunde autonomo bakoitzak erdietsi nahi dituen gizarte eta ekonomi helburuak eta Foru Ogasunaren finantza egoera beti ere kontuan hartuz.

## 6. GEHIGARRIA. ZUZENBIDE PUBLIKOKO ENTEAK.

Foru Komunitateko sektore publikoan dauden zuzenbide publikoko enteak honako hauek dira:

• Nafarroako Unibertsitate Publikoa

• Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendurako Partzuergoa.

• Nafarroako Merkataritza eta Industri Ganbara.

Foru Sektore Publikoari buruzko ikuspegi osotua izateko asmoz, Kontuen Ganbara honek komenigarritzat jotzen du Txosten honetan ente publikoon aurrekontu betetze-mailaren eta gainerako finantza-egoeren inguruko ezaugarriak aipatzea. 5. eranskinean bildu dira.

1996ko ekitaldian zehar Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuaren eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren fiskalizazioa egin da, eta hainbat profesional independentek eginiko Nafarroako Merkataritza eta Industri Ganbararen auditoretza ere badugu.

6.1. NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren –NUP– 1996ko hasierako aurrekontuko gastu eta dirusarrek 5.512 milioi jotzen dute, eta, aldaketekin, 6.013 milioi pezeta.

Aitorturiko betebeharrek 5.625 milioi jotzen dute, betetze-maila %94koa izanik. Aurreko ekitaldiari begiratuz gero, gastuek ehuneko 22 egin dute gora.

Euren izaerari dagokionez, betebehar hauek batik bat langileria-gastuen –ehuneko 53– ohiko ondasun eta zerbitzuen –ehuneko 22– eta inbertsioen –ehuneko 22– artean banatzen dira.

1995ekin alderatuz gero, hazkunderik handienak izan dituzten gastu-kontusailak hurrengoak dira: inbertsio errealak .ehuneko 45– eta ohiko transferentziak –ehuneko 37–.

Aitorturiko eskubideek 6.122 milioi jotzen dute, betetze-maila ehuneko 102koa izanik. Guztizko gehikuntza ehuneko 15ekoa da, 1995ekin alderatuz gero.

Dirusarreren artean, nagusi dira transferentzien bidez iritsitakoak –ehuneko 69– eta tasak eta bestelako dirusarrerak –ehuneko 19–. Aurreko ekitaldiarekin alderatuz gero, finantza-aktiboek izandako hazkundea azpimarratu behar –ehuneko 136, 398 milioi gehiago 1996an– eta ohiko transferentziak –ehuneko 14, 456 milioi gehiago 1996an–.

Aipatzekoa da, baita ere, kapital-transferentzien bidezko dirusarreren gutxitzea –254 milioi gutxiago 1996an; hau da, ehuneko 34ko jaitsiera aurreko urtearekiko–.

NUPen 1996rako aurrekontu betetzeak 497 milioiko superabita erakusten du, hau da, aurreko ekitaldian baino 184 milioi gutxiagokoa.

1996an zehar, Ganbara honek Unibertsitate Publikoari buruzko fiskalizazio-txosten bat egin du, kudeaketa edo auditoretza operatiboko hurbilketa bat eginez. Horren ondorioak 3. eranskineko 3.3. idazatian azaltzen ditugu.

6.2. NAFARROAKO SU-ITZALTZE ETA SALBAMENDURAKO PARTZUERGOA.

Partzuergoaren 1996rako hasierako aurrekontuko gastu eta dirusarrerek 2.187 milioi pezeta jotzen dute.

Aitorturiko betebeharrek guztira 1.708 milioi egiten dute, eta hortaz horien betetze maila guztira ehuneko 78 da. 1995ekin alderatuz gero, gastuak ehuneko 5 hazi dira.

Euren izaerari dagokionez, betebeharren ehuneko 88 ohiko gastuei dagokie, batez ere langileria gastuei –Partzuergoaren gastu guztien ehuneko 80–.

Kapital gastuek, inbertsioek guztizkoaren ehuneko 12 egiten dute, eta horien betetze maila %54 da soilik.

1995ekoekin alderatuz gero, ohiko gastuek %7 egin dute gora –102 milioi gehiago 1996an–, eta kapital-gastuek %12 behera egin dute –26 milioi gutxiago 1996an–. Hala eta guztiz ere, lehen esan dugun bezala, guztizko emaitza hauxe da: guztizko gastuek gora egin dutela.

Aitorturiko eskubideek 1.708 milioi jotzen dute eta horien betetze maila ehuneko 78 da, ehuneko 5eko gehikuntza 1995ekin alderatuz gero. Aitorturiko dirusarrerak ohikoak besterik ez dira, eta horietatik ehuneko 100 ia-ia Nafarroako Gobernutik etorritako transferentzien bidez zertu da.

Partzuergoaren 1996rako aurrekontu betetzeak oreka erakusten du, gastuak eta egindako dirusarrerak bat datozelako; egoera hori iaz ere gertatu zen.

Partzuergoaren kontuetan eginiko azterketatik honako hau ondorioztatzen da:

• Aurrekontuaren garapenari eta betetzeari dagokionez:

Aurrekontuaren betetze-egoerak nahiko ongi adierazten du 1996ko ekitaldian zehar Partzuergoak buruturiko jarduera, tasen bidezko dirusarrerak kutxa-irizpidearen arabera kontabilizatzen badira ere.

• Ondare-egoeraren agerpena 1996ko abenduaren 31ko datarekin.

Kontabilitate orokorrik ez edukitzeak eta dagoen inbentarioa osoa ez izateak eragotzi egiten digute 1996ko abenduaren 31ko datan Partzuergoak duen ondare-egoeraz aritzea.

6.3. NAFARROAKO MERKATARITZA ETA INDUSTRI GANBARA.

Nafarroako Merkataritza eta Industri Ganbarak badu hainbat profesional independentek urtero egiten duen auditoretza bat. Horren iritzia hauxe da:

“Erantsita doazen 1996ko ekitaldiko urteko kontuek “fidelki islatzen dute alderdirik behinenetan Ganbarak 1996ko abenduaren 31n zuen ondarea eta finantza-egoera, baita aipatu egune-

an bukatu den urteko ekitaldiko eragiketen emaitzak eta lortutako eta erabilitako baliabideak ere, orobat aurrekontua eta haren likidazioa, eta horiek behar bezala interpretatu eta ulertzeko, aurreko ekitaldian aplikaturikoekin bat datozen eta guztiok onartuak diren kontabilitate printzipio eta arauei jarraituz, beharrezkoa eta nahikoa den informazioa ere eskaintzen dute.”

Kopuru garrantzizkoenei buruz, aipatu behar da Ganbararen ekitaldiko dirusarrerek 368 milioi egiten dutela eta ohiko gastuek 382 milioi. Beraz, ekitaldiko emaitza hauxe da: 14 milioiko galerak.

## 7. GEHIGARRIA. ZERGA GASTUEN AURREKONTUAK.

### 7.1. ZERGA-GASTU KONTZEPTUARI HURBILTZEA.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 8/1988 Foru Legeko 34 artikuluak ezartzen du Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Aurreproiektuan Oroit-idazkia erantsi dadila, zeinak, beste hainbat gorabeheraren artean, tributu-irudiak ukitzen dituzten zerga-gastuen zenbatespena egingo baitu.

Artikulu honekin bat etorriz, 1996ko Oroit-idazkian ekitaldi horretako Zerga Gastuen zenbatespena egiten da. Testu hartan definitzen dira gastu horiek “hainbat zerga-hobari ematearen ondorioz izango bide den dirusarrera tributarioaren gutxitzearen kopuruzko adierazpena”.

Zerga-hobariok hurrengoekin lot daitezke:

• Zergagaiarekin, salbuespen objektibo eta subjektiboak.

• Zerga oinarriarekin, murrizpenak.

• Karga motarekin, tasa bereziak ezartzeko aukera.

• Kuotarekin, zerga-kenkari eta hobariak.

Hau da, zergek duten birbanatzeko helburua bete betean baieztatzen da zerga gastu hauen agertzearekin, haien helburua baita batez ere izaera ekonomikoa eta soziala duten helburuak lortzea eta horietarako orientabidea izatea.

Horregatik garrantzizkoa da gastu hauek zenbat joko duten esango digun informazioa aurretik edukitzea; baita bere ezarpenean aurreikusten ziren helburu sozialen betetze maila berraztertzen duen informazioa, ondorengoa, edukitzea ere.

### 7.2. 1996KO ZERGA-GASTUEN ZENBATESPENA.

1996ko Oroit-idazkiko testuari gagozkiola, aldi hartako zerga gastuak zehaztu eta zenbatzeko jarraitu den metodologia laburkiro azaltzen da. Zehatzago esanda:

• Zeharkako zergen kasuan, Administrazio Zentralak aplikatzen dituen zenbatespen-portzentaiak hartzen dira.

• Zuzeneko zergetan, oro har, zergadunek 1995eko ekitaldian aurkeztu zituzten aitorpenetatik abiatu gara (beraz, 1994an sorturiko zergei buruzkoak), denboraren araberako egozketa egiteko irizpidea kutxakoa hartuz. Halaxe egin dugu PFEZaren kasuan; Sozietateen gaineko Zergaren kasuan, ordea, erreferentzi ekitaldia 1994koa da, 1995eko informazio estatistikorik ez dagoelako.

• Aurrekontuan sartu da hurrengoen ondoriozko zerga-gastuen zenbatespena:

a) PFEZn, famili kenketak eta etxebizitza inbertsiorako pizgarriak.

b) Ondare eta ondorengotza zergak.

Zenbatespen honen emaitza ondorengo koadroan adierazten da (milioika pezetatan):

| | Zerga gastuak | Dirusarrerak | % |
|---|---|---|---|
| Pertsona Fisikoen Errenta gaineko Zerga | 26.321 | 81.975 | 32,11 |
| Ondarearen gaineko Zerga | 1.762 | 3.250 | 54,22 |
| Elkarteen gaineko Zerga | 6.500 | 22.115 | 29,39 |
| Oinordetzen gaineko Zerga | 79 | 450 | 17,56 |
| Zuzeneko zergak, guztira | 34.662 | 107.790 | 32,16 |
| Ondare Transmisioak eta Egintza Jur. dokumentuaren gaineko Z. | 980 | 9.800 | 10,00 |
| Balore Erantsiaren gaineko Zerga | 10.385 | 75.800 | 13,70 |
| Zerga Bereziak (Alkola eta garrio elementuak) | 695 | 9.325 | 7,45 |
| Zeharkako zergak, guztira | 12.060 | 94.925 | 12,70 |
| Zergak, guztira | 46.722 | 202.715 | 23,05 |

Beraz, esan daiteke zerga gastuek foru-kutxari eragiten diotela 46.722 milioko gutxiagotzea; hau da, zerga dirusarreren ehuneko 23.

Tributu-klasearen arabera, Zuzeneko Zergei aplikatzen zaizkien portzentaiak dira nabarmentzekoak, bai PFEZi –ehuneko 32– bai sozietateen gaineko zergari –ehuneko 29–. Edonola ere, ratiorik handiena duen zerga ondareari buruzkoa da, zerga-gastuak aurreikusitako dirusarreren ehuneko 54 baitira.

Zeharkakoetan, bereziki BEZak du zerga-onuren ratio eta munta azpimarragarria.

Jarraian azaltzen dugu 1996ko zerga gastuen aurrekontua, aurreko ekitaldikoekin konparatu ahal izateko kopuruak eta guzti (milioika pezetatan).

| Zerga mota | Zerga gastuak 1995 | Dirusa-rreren % | Zerga gastuak 1996 | Dirusa-rreren % | 1995/1996 gehikun.% |
|---|---|---|---|---|---|
| PFEZa | 24.494 | 33,2 | 26.321 | 32,11 | 7,4 |
| Ondarearen gainekoa | 1.580 | 56,4 | 1.762 | 54,22 | 11,5 |
| Elkarteen gainekoa | 6.100 | 37,8 | 6.500 | 29,39 | 6,5 |
| Oinordetzen gainekoa | 99 | 18 | 450 | 17,56 | 354 |
| Zuzeneko zergak, guztira | 32.273 | 34,6 | 34.662 | 32,16 | 7,4 |
| Ondare transmisioak eta E.J.D. | 538 | 6,7 | 980 | 10 | 82 |
| BEZa | 9.733 | 15,3 | 10.385 | 13,7 | 6,6 |
| Bereziak (alk. eta garraio.) | 424 | 5,6 | 695 | 7,4 | 63 |
| Zeharkako zergak, guztira | 10.695 | 13,5 | 12.060 | 12,7 | 12,7 |
| Zergak, guztira | 42.968 | 24,9 | 46.722 | 23,05 | 8,7 |

Dakusagunez, kopuruari dagokionez zerga onurak gehitu egiten badira ere (ehuneko 7,4 zuzeneko zergetan eta ehuneko 12,7 zeharkako zergetan), aurreikusitako zerga-dirusarreren gaineko etekin portzentaia jaitsi egin da 1995ekiko: zuzeneko zergetan ia ehuneko 2, eta zeharkakoetan ehuneko 1.

Zehaztapenari eta jarraipenari dagokienez, esan behar da 1996ko Kontu Orokorrek, indarreko araudiarekin bat, ez dutela inolako aipurik egiten benetan gauzaturiko zerga gastuen egiazkotasunari buruz, ezta aurreikusitako helburuen erdiespenaren norainokoa aztertzeari buruz.

Ondorioz, 1995eko txostenean adierazten genuen bezala, zerga gastuak hainbat aurrekontu eta gizarte-politikari buruzko helburuak lortzeko tresnarik eraginkorrenetakoak dira. Hortaz, behar bezala zehaztea eta jarraitzea zein aurreikusitako helburuei aplikatzen ari zaizkiela egiaztatzea alde batera ezin saihestu daitezkeen beharrak dira, are eta gehiago aintzat hartuz bere zenbatekoaren handia eta Foru Ogasunaren gaurko egoera,

aurrekontuaren aldetik oso zorrozki jokatzea eskatzen duena.

Gomendioak:

*• Hala lortu nahi diren helburuei loturiko zerga gastuen zenbatespenari buruzkoetan sakontzen duten nola zenbatetsitako kopuruak egiazko kopuruekin alderatzen dituzten lanak egin daitezen, sorturiko desbideraketak eta euren arrazoiak aztertuz, eta, hala badagokio, behar diren zuzentzeko neurriak hartuz.*

*• Ekitaldi bakoitzeko aurrekontuaren kitapenaren Oroit-idazkiarekin batera zerga gastuen aurreikuspenen betetze-mailari buruzko azterketa gehitzea.*

**8. GEHIGARRIA. ENPRESA PUBLIKOEN SEKTOREA.**

Gehigarri hau honela banakatzen da:

• 1996ko Enpresa Publikoen Sektorearen osaketaren azterketa, baita aurreko ekitaldiarekin alderaturik dauden aldaketarik garrantzizkoenena.

• 1996ko Kontu Orokorretan islatzen den informazioa.

• Enpresa publikoen Urteko Kontuen gaineko Auditoretza Txostenetan ikusten diren gorabeherarik azpimarragarrienen laburpena.

• Horietako kopuru ekonomiko eta finantzazko esanguratsuenei buruzko iruzkinak.

8.1. ENPRESA PUBLIKOEN SEKTOREAREN OSAKETA.

19. eta 20. koadroetan Nafarroako Gobernuaren jabetzakoa den Enpresa Publikoen gaur egungo Sektorearen osaketa agertzen da.

19. koadroak azaltzen ditu kapital sozialean partehartzerik haundiena (ehuneko 50 edo gehiagokoa) Nafarroako Gobernuarena duten enpresak, dela zuzenean, dela tarteko enpresen bidez. Horri buruz esan behar da Ogasun Publikoari buruzko Foru Legeak Enpresa Publikoaren Sektoreko sozietatetzat hartzen dituela Administrazioaren partaidetza aipaturiko portzentaia baino neurri haundiagoan duten enpresak bakarrik.

20. koadroak beste hainbat enpresen berri ematen du, eta enpresa hauetan Nafarroako Gobernuak parte hartzen du, baina ez du gehiengorik.

1995eko egoerarekin konparatuz, partehartzerik haundieneko (ehuneko 50 edo gehiagokoa) enpresetan izan diren aldaketarik nabarmenenak honako hauek dira:

“Navarra de Medio Ambiente Industrial S.A.”-k alta egiten du sozietate publiko gisa. Nafarroako Gobernuak zuzeneko partehartzea du bertan, ehuneko 100ekoa.

Sigesa, S.A.-k eta Etudesa-k baja egiten dute desegin eta likidatzeagatik.

Gotebe, S.L. saltzen da.

Selgana, S.A.k “ITG Porcino” eta “ITG Vacuno” zurgatzen ditu eta izena aldatzen du, “ITG Ganadera, S.A.” izatera pasatuz.

## 19. koadroa

## Nafarroako Komunitateko Administrazioak gehiengoz pataliertzen dituen enpresak



## Nafarroako Komunitateko Administrazioak gutxiengoz partaliertzen dituen enpresak

20. koadroa



8.2. 1996KO KONTU NAGUSIETAN AZALTZEN DEN INFORMAZIOA.

Nafarroako Foru Ogasunari buruzko Foru Legeko 5.1. artikuluaren arabera, Nafarroako Gobernuak kapital sozialaren ehuneko 50 baino gehiago partaliertzen duen enpresen urteko kontuek Kontu Orokorretan sartu beharko dute, eta Kontuhartzailetzak kontrol finantzarioa egingo du haiei buruz, edo kontrol finantzario hau Kontuhartzailetzaren zuzendaritzapean egingo da.

Kontu Orokorren II. eta III. liburukietan honako informazio hau sartzen da:

• 18 enpresa publikoren Urteko Kontuak eta haiekin batera haiei buruzko auditoretza-txostena.

• 5 enpresaren Urteko Kontuak, auditoretza-txostenik gabe.

Laburbilduz, Enpresa Sektore Publikoaren informazio egoera hauxe da:

• Kanpoko profesionalek egin eta Kontu Orokorretan jaso diren 17 auditoretza-txosten, hurrengo enpresa publikoei buruzkoak: Sodena, Audenasa, Tracasa, Nafinco, Vinsa, Nilsa, Selgana, Gestión Ambiental, Viveros y Repoblaciones de Navarra, ITG Agrícola, ITG Ganadera, Riegos de Navarra, Cetenasa, Nasersa, Magnesitas de Navarra, Ceinsa, Funvera, Susnor eta Gedesa.

• Auditoretza Atalak egindako eta Kontu Orokorretan jasotako auditoretza-txosten bat: Navarra’92 (desegintza-prozesuan).

• Esklusiboki 5 enpresaren Urteko Kontuei buruzko informazioa; zehazki: Soles Systems –desegintza eta likidazio prozesuan–, Opnasa, “Planetario de Pamplona”, “Terminal de Transportes de Pamplona” eta Sodexna. Azken lau horien txostenak Nafarroako Parlamentura igorriko dira, bukatu ostean.

8.3. AUDITORETZA-TXOSTENAK.

Auditoretza-txostenetan ikusten den iritzia honela banatzen da:

• Hamahiru enpresak iritzi garbia daukate, hau da, auditoretza egin zaien enpresen ehuneko 72ak.

• Bost enpresak iritzia oharrekin daukate, hau da, guztiaren ehuneko 28.

• Hamar kasutan, iritziarekin batera iritzia areagotzeko lerroalde bat bidaltzen da, batez ere bere jarduera Nafarroako Gobernuaren erabakiekin loturik dagoela dioena.

Ondoren, laburki azalduko dugu enpresa bakoitza ukitu duten gorabeherarik garrantzizkoenak zeintzuk izan diren, errepikatuz, Norainokoa izeneko atalean esaten den bezala, gure jarduketa auditoretza-txostenetan dauden gorabeherarik garrantzizkoenen bilduma egitea baizik ez dela.

**Fundiciones de Vera, S.A.** enpresari buruzko txostenak bi zalantza adierazten ditu, koantifikatu gabeak: bata, Nafinco 1994an sartu zenetik enpresak duen bideragarritasunari buruzkoa, eta, bestea, pizgarridun bajei zein garaiz baino lehenagoko jubilazioei buruz langileekin hitzartu zenaren alderdi ekonomikoa 1996 urterako ez gaurkotzeari buruzkoa. Halaber, kontabilitate hatsapenen hiru hauste aipatzen du: alegia, hainbat ekitalditan banatzeko dirusarrerak emaitzei egoztea dagozkien ondasunen amortizazio erritmoa kontutan hartu gabe, sortu gabeko dirusarrera bat aitortzea eta kalte-ordainketarako erreklamazio baten aurrean hornidurarako zuzkidurarik ez egitea.

23/96 Foru Legearen babesean egindako balantze-gaurkotzea ere aipatzen da.

**Suspensiones del Nortek** zenbatu gabeko bi zalantza ditu: bata, enpresa eta haren nagusi den Funvera hondotik ateratzeko prozesuari buruzkoa, izan ere, denbora gutxi igaro denez ezin baita ebaluaziorik egin. Bestea, zerga arauak interpretatzerakoan sor daitezkeen bat ez etortzeen ondoriozko gorabeherei buruzkoa.

**Nafincok** zenbatu gabeko zalantza erakusten du, finantza eta ondare egoera larrian diren sozietateei kobratu beharreko saldoak direla eta. Era berean, azpimarratzeko hiru lerroalde agertzen dira: administratzaileen iritzia, alegia, sozietatea buru den enpresa-taldearen kontu bateratuak ez direla egin behar, partaidetza ezberdinen behinbehinekotasuna dela eta; Potasas de Subiza, S.A. ixteak izango dituen ondorioei buruzko ziurgabetasuna (enpresa horretan %50eko partaidetza dauka), eta baita ere jakinarazten da bere partaidetza (kapital-partaidetzen ehuneko 94,47) daukaten sozietate jakin batzuetako auditorearen iritzia beste auditore batzuek egindako txostenetan oinarritua dagoela.

**Gestión Ambiental, Viveros y Repoblaciones de Navarrak** salbuespen bat du, kontabilitate-printzipioak ez betetzeagatik; zehazki, aurreko ekitaldian jadanik bukaturiko urte anitzeko proiektuak “Beste ekitaldietako dirusarrerak eta etekinak” gisa (1996ko ekitaldiko Galerak eta Irabaziak) kontabilizatzean datza.

Era berean, azpimarratzeko lerroalde bezala, sozietatea Nafarroako Gobernuarena dela esaten

da, eta zerbitzuak emateko prezioak hitzartuta daudela sozietatearen eta bere jabearen artean.

**Riegos de Navarrak** zenbatu gabeko zalantza erakusten du ureztatzaileen komunitateei eta toki entitateei emandako maileguetako kuota mugaeguneratuak kobratzeko eskubide jakin batzuk gauzatzeari buruz.

Era berean, azpimarratzeko lerroalde batean, sozietatearen eragiketak bere akzio guztien tituludun den Nafarroako Gobernuaren erabakien eta aurrekontu-dotazioen menpean daudela aipatzen da.

**Nilsa:** iritzia areagotzeko bi lerroalde dauzka, enpresaren jarduera guztiz Nafarroako Gobernuaren erabakien menpe dagoela esaten duena bata, eta saneamenduko kanona kontabilizatzean sortzapen hatsapena zorrotz aplikatzea ezinezkoa dela dioena bestea.

**Cetenasa:** iritzia areagotzeko lerroalde bat dauka, enpresak Nafarroako Gobernuaren zentro teknologikoak kosturik gabe kudeatzen dituela esaten duena.

**Tracasak** iritzia areagotzeko lerroalde bat dauka, ibilgetu materiala eta ez materiala garaia baino lehenago amortizatzeari buruz (zenbatekoa: 22 milioi pezeta).

**Sodenak** iritzia areagotzeko lerroalde bat dauka, hauxe aipatuz: auditoreak ez zituela aztertu jabetzan partaidetza bat hartu zitzaien sozietate batzuen urteko kontuak. Beraz, bere iritzia beste auditore batzuek eginiko txostenetan oinarritzen da.

